

Bilboko Urtekari 2014 Sozioekonomikoa



Biztanleria

Ekonomia eta enpresa

Lan merkatua

Merkataritza

Turismoa

Informazioaren eta
berrikuntzaren gizartea

Kultura eta kirola

Etxebizitza

Garraioa eta
ingurumena

Aurkibidea

Aurkibidea

Bilboko Urtekari **2014** Sozioekonomikoa

1. Biztanleria

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura
Atzerriko biztanleak
Biztanleak: Errenta, eskolatzeko eta hezkuntza maila

2. Ekonomia eta enpresa

Ekonomia eta enpresa jarduerak
Soldatapeko beharginak dituzten enpresak
Afiliazioa Autonomoen Araubidean
Enpresen dinamikotasuna
Ekoizpen ekonomia

3. Lan merkatua

Biztanleria aktiboa, okupazioa eta langabezia
Populazio afiliatua
Kontratu erregistratuak
Langabezia erregistratua

4. Merkataritza

Merkataritza jarduerak eta enpresak
Merkataritza jardueraren dinamikotasuna
Soldatapeko enplegua
Familiaren kontsumoa
Sektorearen salmentak

5. Turismoa

Turismo jarduera
Biltzar eta bileretako turismoa

6. Informazioaren eta berrikuntza gizartea

Informazioaren gizartea Bilbon
Ikerketa, garapena eta berrikuntza
Enpresa eta profesionalen ezagutza jarduera trinkoak
Unibertsitatea ikerketa iturri

7. Kultura eta kirola

Udalaren kultura jarduera
Antzerkia, dantza eta musika jarduerak
Museoetako jarduerak
Liburutegiak
Kirola

8. Etxebizitza

Etxebizitza
Higiezinaren eskaintza

9. Ekoizpen ekonomia

Garraioa eta mugikortasuna
Ingurumena

1 BIZTANLERIA

Bilboko
Urtekari **2014**
Sozioekonomikoa



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

Biztanleriaren joan-etorriak

Biztanleak barruti eta auzoetan

Atzerriko biztanleak

Herritartasunaren arabera

Barrutietan

Biztanleak: Errenta, eskolatzeko eta hezkuntza maila

Pertsonen eta familien errenta

Gizarte babesa

Eskolatzeko maila

Ikasten ari diren biztanleen hezkuntza maila

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	1	2	Atzerriko biztanleak	Biztanleak: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila
Biztanleriaren joan-etorriak			Herritartasunaren arabera	Pertsonen eta familien errenta
Biztanleak baruti eta auzoetan			Barrutietan	Gizarte babesa
				Eskolatzeta maila
				Ikasten ari diren biztanleen hezkuntza maila

DEMOGRAFIA:
BIZTANLERIAREN
BILAKAERA ETA EGITURA

Bilbok 2014an 347.278 biztanle dauzka

2014ko urtarriaren batean, Bilboko biztanleak 347.278 izatera iristen da, 2.591 gutxiago 2013 urtean baino (% -0,7). 2000. urtetik hona, biztanleen galera absolutua 7.634 herritarrena izan da, % -2,2.

Hiriak berak biltzen du Bilboaldeko Metropoli eremu osoko biztanleriaren % 38,3, guztira 904.607 pertsona metatzen dituen 35 udalerritan, eta Bizkai osokoaren herena baino zertxobait gehiago (% 30,1).

Bilbok 40,6 km²-ko zabalera du eta 8.543 biz/km²-ko biztanle dentsitatea, eta hau kopuru altuenetarikoa da Espainiako estatuko probintzia hiriburu guztien artean. Eustatek, Biztanleen Udal Estatistikan, 2014. urteaz argitaraturiko datuen arabera, Bizkaiko biztanle dentsitatea, batez beste, 517,16 biz/km²-koa da, eta EAE osokoa berriz, 300,52 biz/km²-koa. Bilbo bigarren ageri da biztanle dentsitate handieneko euskal udalerrien zerrendan, eta soilik Portugaletetik gainditzen du, 14.642,06 biz/km²-ko dentsitate batez.

Azken urteetan Bilboko biztanleriaren egitura nahiko egonkor mantendu da, eta handixeagoa ageri da emakumeen multzoa (% 52,9) gizonezkoena baino (% 47,1). Proportzioa 112 andrerena da 100 gizoneko.


Bilboko biztanleen batez besteko adina 46 urtekoa da (43 urte gizonezkoen artean eta 48 emakumezkoak). Biztanle gazteenen multzoa, 15 urtetik beherako haur-gazteak, ez dira biztanle guztien arteko % 12,2 baino, eta 30 urtetik beherakoak berriz, haien laurdena baino ez (% 25,5). 45 eta 64 urte bitartekoak multzoak batzen du biztanleria osoaren % 29,2 (+0,3pp), eta 65 urtetik gorako biztanleak osteraz, % 23,2ra izatera iritsi dira jada (+0,5pp).

Biztanleak, sexuaren arabera

	2013	2014	% 2014/13
Biztanleak	349.869	347.278	-0,74
Emakumezkoak	184.699	183.575	-0,61
Gizonezkoak	165.170	163.703	-0,89

Iturria: Udal Errolda.

Biztanleriaren bilakaera 1960-2014



Iturria: Udal Errolda.

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	1	2	Atzerriko biztanleak	Biztanleak: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila
Biztanleriaren joan-etorriak			Herritartasunaren arabera	Pertsonen eta familien errenta
Biztanleak baruti eta auzoetan			Barrutietan	Gizarte babesa
				Eskolatzeta maila
				Ikasten ari diren biztanleen hezkuntza maila

DEMOGRAFIA:
BIZTANLERIAREN
BILAKAERA ETA EGITURA

15 eta 44 urte arteko biztanleen multzoa % 2,9 urritu da aurreko urtekoaren aldean, eta 85 urte edo gehiagokoen multzoa berriz, hazi % 7,9an. 45 eta 64 urte bitartekoen taldea ez da ezer asko aldatu, eta gauza bera gertatu da azken urte honetan 65 eta 84 urte bitartekoen multzoan.

Adin nagusienetakoen multzoek hazkundera erakusten dute biztanleriaren piramidean, eta ondo nabarmen ageri da hirian jazo den biztanleriaren zahartze prozesu gero eta orokorragoa.

Biztanleriaren zahartze indizea etengabe joan da hazten azken urteetan, eta 2014an % 23,18ra iritsi da jada. Beste aldetik berriz, nabarmen azkartu da 85 urtetik gorakoek multzoaren egonkortze prozesua hiribilduan, eta daborduko, badira 2014an biztanle guztien arteko % 3,94 ere. Bere aldetik, 65 urte eta gehiagokoen multzoak biztanleon % 17,0 biltzen du, aurreko urtean baino puntu bat gehiago.

Bilboko biztanleriaren zahartze, eta gainzahartze, prozesu honek argi adierazten du mendekotasun indizearen hazkuntza, 2014an % 54,72raino ere igo dena, 2013an baino puntu bat gorago. Prozesu honek, jakina, hainbat pisuagoa bihurtzen du oraindik populazio produktiboak, 15 eta 64 urte arteko biztanleek, beren gainean hartu behar duten karga behar bezala mantendu ahal izateko ekonomikoki mendekoa den biztanle multzo hura (haurrak eta adinekoak).


Biztanleak, adinaren arabera

	2013	2014	% 2014/13
Biztanleak	349.869	347.278	-0,74
0-14 urte bitarte	42.670	42.339	-0,78
15-29 urte bitarte	48.085	46.528	-3,24
30-44 urte bitarte	78.704	76.521	-2,77
45-64 urte bitarte	100.949	101.401	0,45
65-84 urte bitarte	66.774	66.800	0,04
85 urte eta gehiago	12.687	13.689	7,90
0-14 urte bitarteko biztanleak/biztanleria osoa, %a	12,20	12,19	0,01 pp
85 urte eta gehiagoko biztanleak/biztanleria osoa, %a	3,63	3,94	0,31 pp
Mendekotasun Indizea*	53,63	54,72	1,09 pp

*Mendekotasun Indizea: Biztanle ez-aktiboek (15 urtetik beherakoek eta 64 urtetik gorakoek) duten pisua biztanle potentzialki aktiboek aldean (15-64 urte).

Iturria: Udal Errolda.

Biztanleak, adinaren arabera



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	1	2	Atzerriko biztanleak	Biztanleak: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila
Biztanleriaren joan-etorriak			Herritartasunaren arabera	Pertsonen eta familien errenta
Biztanleak baruti eta auzoetan			Barrutietan	Gizarte babesa
				Eskolatzeta maila
				Ikasten ari diren biztanleen hezkuntza maila

DEMOGRAFIA:

BIZTANLERIAREN BILAKAERA ETA EGITURA

Behera egin du etorkin kopuruak 2014an, baina migrazio saldo positiboa erakusten du berriro Bilbok

Biztanleriaren mugimenduak

2014. urtean Bilboko udalerrian jazo den biztanleriaren mugimenduak 15.780 herritarren altak ekarri ditu, aldi berean baja izan diren beste 18.371 herritarren aldean. Eta kontzeptu hauen barruan sartzen dira, hala biztanleriaren mugimendu naturalak, zelan migraziokoak ere.

Errolda mugimenduen xehetasunak aukera ona eskaintzen digu ezagutzeko zelan 2014. urtean erregistratu diren 15.780 alta berrien artean, hauetako % 65,4 dagozkien udalerri aldaketari loturiko erroldatzeei (guztira 10.325). Gainerakoa, beste hiru multzok osatzen dute: atzeritik etorritakoak (1.623), jaiotzak (2.637), eta artean aurretik erroldan jaso bakoak (1.195).

Erroldetatik ezabatutakoei dagokienean (18.371 2014an), hauetako % 51,5 dagozkie udalerri aldaketei (9.463), eta % 19,2 heriotzei (3.522). Gainerako bajak berriz, batetik, aurretik izena bidegabe emanak zirenei (3.939) dagozkie, edota bestela, atzerrira joan direnak dira (661).

Migrazio fluxuak Bilbon 1.735 pertsonako saldo positiboa erakusten du, sarrera kopurua (immigrazioa) handiagoa izan delako irteerena baino (11.948 eta 10.249 hurrenez hurren).

Erroldaren azterketa, saldo begetatiboari begira amaituko dugu. 2014an jaiotakoen kopurua txikiagoa da hildakoena baino (2.637 jaiotza, 3.522 heriotzaren aldean). Horrela, aipatu saldoa, negatiboa jazo da, 885 pertsonako kopurua galdu denez. Gainera, jaiotzen kopurua berriro jausi da jarraian bosgarren urtez.

Biztanleriaren migrazio mugimenduak

	2013	2014	% 2014/13
Immigrazioa	12.210	11.948	-2,1
Udalerri aldaketa	10.293	10.325	0,3
Atzeritik itzuliak	1.917	1.623	-15,3
Emigrazioa	10.432	10.249	-1,8
Udalerri aldaketa	9.720	9.463	-2,6
Atzerrira irtenak	712	786	10,4
Migrazio saldoa	1.778	1.735	-2,4

Iturria: Udal Errolda.

Biztanleriaren mugimendu naturalak

	2013	2014	% 2014/13
Hazkunde begetatiboa	-922	-885	-7,3
Jaiotzak	2.737	2.637	-3,7
Heriotzak	3.659	3.552	-2,9
Jaiotza tasa gordina (bizt. %otan)	7,8	7,5	-0,3 pp
Heriotza tasa gordina (bizt. %otan)	10,4	10,1	-0,3 pp

Iturria: Udal Errolda.

1. Biztanleria

4. Merkataritza

7. Kultura eta kirola
2. Ekonomia eta enpresa

5. Turismoa

8. Etxebizitza
3. Lan merkatua

6. Informazioaren eta berrikuntzaren gizartea

9. Garraioa eta ingurumena

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

Biztanleriaren joan-etorriak
Biztanleak barruti eta auzoetan

1 2 Atzerriko biztanleak

Herritartasunaren arabera
Barrutietan

Biztanleak: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila

Pertsonen eta familien errenta
Gizarte babesa
Eskolatzeta maila
Ikasten ari diren biztanleen hezkuntza maila

DEMOGRAFIA: BIZTANLERIAREN BILAKAERA ETA EGITURA

Biztanleak barruti eta auzoetan

Bilbo: 4065 hektarea, 40 auzotan banatuak

Bilbo osatzen duten zortzi barruti eta berrogei auzoen artean, Ibaiondokia da barruti jendetsatuena. Guztira 61.574 biztanle ditu 2014an (Bilboko biztanle guztien arteko % 17,7). Biztanle gutxien biltzen dituen berriz, Otxarkoaga-Txurdinagokoa da, eta 27.001 biztanle ditu (guztien % 7,8).

Barruti guztietan jaitasi da bertako biztanle kopurua, eta bereziki da azpimarratzekoa Uribarri eta Basurtu-Zorrotzakok barrutiek jasan duten bizilagun galera (487 eta 385 pertsona gutxiago, hurrenez hurren). Egonkor mantendu da berriz Abandokok barrutia, non aurreko urtekoaren aldean soilik % 0,30 jaitasi den biztanleen kopurua.

Abandokoa (23.982 bizt./km²-ko) eta Begoñakoa (23.360 bizt./km²-ko) dira biztanle dentsitate handiena metatzen duten barrutiak, bietan ere hiru bider handiagoa udalerriko batez bestekoa baino. Bere aldetik, Deustu eta Uribarrikok barrutiek ere gaitzen dute Bilboko hiriaren batez besteko biztanle dentsitatea (9.956 bizt./km²-ko eta 8.672 bizt./km²-ko, hurrenez hurren). Gainerakoak Bilbokoaren azpitik ageri dira, eta Basurtu-Zorrotzakokoa da batez besteko dentsitate txikiena biltzen duen barrutia (4.543 bizt./km²-ko).

Auzo jendetsuenen artean aipatzekoak dira Santutxukoa (32.158 biztanle), Indautxu (27.476), Abando (23.846) eta Deustukok San Pedrokoa (20.571). Lauren artean biltzen dute Bilboko biztanleria guztia-ren % 30a 2014an. Alderantziz, Olabeaga, Elorrieta, Loruri eta Erriberako auzoak ageri dira kontrako aldean, bakoitzak ere 1.300 biztanle baino kopuru txikiagoak biltzen ditu-eta.


35 auzo dira biztanle galerak erakusten dituztenak aurreko urtekoen aldean. Santutxu, Zurbaran, Basurtu, San Frantzisko, Indautxu eta Deustukok San Pedro dira galera handienak izan dituztenak (hau da, 150 biztanle baino galera absolutu handiagoak). Elorrieta, Erribera, Atxuri, Miribilla eta Abandokok auzoek berriz, biztanleria hazkuntza ezagutu dute azken urte honetan.

Biztanleak eta biztanle dentsitatea barrutietan

	2013	2014	% 2014/13	Bizt./Km ² -ko
Biztanle kopurua	349.869	347.278	-0,74	8.543
Abando	51.476	51.322	-0,30	23.982
Basurtu-Zorrotza	32.683	32.298	-1,18	4.543
Begoña	41.750	41.348	-0,96	23.360
Deustu	49.838	49.583	-0,51	9.956
Errekalde	47.814	47.557	-0,54	6.862
Ibaiondo	62.010	61.574	-0,70	6.421
Otxarkoaga-Txurdinaga	27.216	27.001	-0,79	6.906
Uribarri	37.082	36.595	-1,31	8.672

Iturria: Udal Errolda.

Bilboko biztanleriaren bilakaera 2013-2014an, auzoen arabera



Ibaiondokia da biztanle gehien biltzen duen barrutia eta Abandokoa biztanle gehien pilatzen duena km²-ko

Auzo gehienek galdu dituzte biztanleak 2014an

Iturria: Udal Errolda.

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	1 2	Atzerriko biztanleak	Biztanleak: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila
Biztanleriaren joan-etorriak		Herritartasunaren arabera	Pertsonen eta familien errenta
Biztanleak baruti eta auzoetan		Barrutietan	Gizarte babesa
			Eskolatzeta maila
			Ikasten ari diren biztanleen hezkuntza maila

ATZERRIKO BIZTANLEAK

Biztanle atzeritarrak dira populazio guztiaren % 7,7ko multzoa

Bilbon, atzerriko biztanleen multzoa bertako biztanleria guztiaren % 7,7 ingurukoa da, eta 26.842 pertsonatan kokatu da 2014an. Aurtengoa izan da biztanleria multzo honen kopurua jarraian jaitsi den bigarren urtea, hiriak 2002. urtetik etengabe ezagutu duen gorakako joeraren ondoren. 2014an Bilbok 1.681 biztanle atzerritar gutxiago du 2013an baino (% -5,9).

Biztanle atzeritarrak oro har nahiko gazteak dira, eta batik bat, biztanleria piramidearen erdi aldeko adin-tarteetan ageri da bildua. 2014an, % 55,2k 25 eta 44 urte bitarte dauzka; % 14,2k 14 urte baino gutxiago; eta soilik % 1,8k dauzka 65 urte edo gehiago. Sexuaren araberako desberdintasunak guztiz txikiak dira, nahiz andrazkoak zertxobait ugariagoak diren, denera 13.512 emakume direnez udalean errolatuak, 13.330 gizonezkoren aldean.

Herritartasunaren arabera

Nabarmentzekoak dira beren kopuruagatik Ameriketatik datozkigun biztanle atzeritarrak, beraiek dira eta atzerritiko biztanleria guztiaren erdia ia (% 45,9). Ondotik datozkie, ordena honetan, Afrikatik datozenak (% 25,0), Europatikok (% 19,3) eta Asiakoak (% 9,7).


Jatorrizko herrialdeei begiratzen badiegu, nabaria da Bilbon biztanle atzeritar talde ugariena Boliviatik datorrena dela (3.766 pertsona), eta nabarmenak dira ere, beren kopuruengatik, komunitate marokoarra (2.560), errumaniarra (2.414) eta kolonbiarra (2.038). Lau herrialde hauetako biztanleek batzen dute, lauren artean, Bilboko biztanleria atzeritarraren % 40,2a 2014an.

Atzerriko biztanleak

	2013	2014	% 2014/13
Atzerriko biztanleak	28.523	26.842	-5,9
Andrazkoak	14.266	13.512	-5,3
Gizonezkoak	14.257	13.330	-6,5
0 eta 15 urte bitartekoak	3.956	3.799	-4,0
16 eta 24 urte bitartekoak	3.755	3.392	-9,7
25 eta 44 urte bitartekoak	15.980	14.818	-7,3
45 eta 64 urte bitartekoak	4.369	4.347	-0,5
65 urte eta gehiagokoak	463	486	5,0
Europa	5.152	5.183	0,6
Afrika	6.782	6.703	-1,2
Amerika	13.950	12.332	-11,6
Asia	2.620	2.608	-0,5
Ozeania	17	14	-17,6
Herrigabeak	2	2	0,0
Bolivia	4.151	3.766	-9,3
Maroko	2.490	2.560	2,8
Errumania	2.354	2.414	2,5
Kolonia	2.527	2.038	-19,5
Gainerako herrialdeak	17.001	16.064	-5,5
Atzerriko biztanleak/biztanleria osoaren aldean %etan	8,2	7,7	-0,5 pp

Iturria: Udal Errolda.

Atzerriko biztanleak



Iturria: Udal Errolda.

- | | | |
|-----------------------|-------------------------|---|
| 1. Biztanleria | 2. Ekonomia eta enpresa | 3. Lan merkatua |
| 4. Merkataritza | 5. Turismoa | 6. Informazioaren eta berrikuntzaren gizartea |
| 7. Kultura eta kirola | 8. Etxebizitza | 9. Garraioa eta ingurumena |

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

1 2

Atzerriko biztanleak

Biztanleak: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila

Biztanleriaren joan-etorriak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

Biztanleak barruti eta auzoetan

Barrutietan

Gizarte babesa

Eskolatzeta maila

Ikasten ari diren biztanleen hezkuntza maila


ATZERRIKO BIZTANLEAK

Barrutietan

Bilboko barruti guztietan bizi dira biztanle atzerriarrak, ostera errolatze kopuruak ez dira guztietan berdinak. Lau barrutik biltzen dituzte atzerriko etorritako hamar pertsonatik zazpi. Huek dira: Ibaiondokoak (% 26,6), Errekalde (18,0), Deustukoak (% 12,3) eta Abandokoak (% 11,9).


Bilboko barruti guztiek galdu dute atzerriko biztanleria 2014an. Jausirik handiena 2013. urtearen aldean Uribarrikoan jazo da, non % 9,3koa izan den galera, eta guztira, 265 pertsona atzerriar gutxiago bizi diren. Ondotik datozkio Basurtu eta Ibaiondokoak, biak ere % 6,9ko galeraz, eta atzetik Deustu, % 6,8koaz (930 pertsona gutxiago hiruren artean).

Bilboko biztanleria guztiaren eta atzerriarraren banaketa barrutietan (%)



Iturria: Udal Errolda.

Biztanleria atzerriarraren bilakaera Bilboko barruti nagusietan 2007 – 2014



Iturria: Udal Errolda.

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	1	2	Atzerriko biztanleak	Biztanleak: Errenta, eskolatzeko eta hezkuntza maila
Biztanleriaren joan-etorriak			Herritartasunaren arabera	Pertsonen eta familien errenta
Biztanleak baruti eta auzoetan			Barrutietan	Gizarte babesa
				Eskolatzeko maila
				Ikasketan ari diren biztanleen hezkuntza maila

BIZTANLEAK: ERRENTA, ESKOLATZE ETA HEZKUNTZA MAILA

Pertsonen eta familien errenta

Eustatek, Pertsonen eta Familien Errentaren estatistikan, argitaratutako datuek erakusten dute (2013), Bilbon bizi den 18 edota urte gehiagoko biztanleen batez besteko norbanako errenta 19.647 eurokoa dela, % 0,7 gutxiago aurretik 2011n eskuraturiko azken datuaren aldean. Bizkaian, norbanakoaren batez besteko errenta % 2,2 jaitsi da, eta 18.994 euroan gelditu da 2013an. Euskal Autonomia Erkidego osorako batez besteko errenta 19.286 eurokoa izan da, % 2,2 gutxiago 2011n baino.

Laneko errenta pertsonala, batez beste, 11.735 eurotara iristen da, % 2,7 gutxiago 2011n baino, eta berriro ageri da berau diru sarrera nagusi gisa.

Errenta pertsonal erabilgarriari dagokionez berriz (errenta osoa, ken, Errentaren gaineko Zerga eta beharginaren ardurako gizarte kotizazioak), Bilbon batez bestekoa 16.318 eurokoa da, % 1,2 gutxiago 2011n baino.

Batez besteko familia errenta (hau da, familia bereko kideen osotako errenta pertsonal guztiak batuz sortzen dena) 40.806 eurokoa izan da 2013an, % 2,7 gutxiago 2011n bildutako batez besteko diru sarreraren aldean, eta batez beste Bizkaian lortutakokoaren (40.242 euro) gainetik ageri da, eta baita EAEkoaren gainetik ere (40.179 euro).

Bilboko biztanleen batez besteko norbanakoaren errenta % 0,7 jaitsi da 2013an

Laneko errenta pertsonala da diru sarrera nagusia

Pertsonen eta Familien batez besteko errenta (€), esparru desberdinetan, 2011-2013

	2011		2013		▲ ▼	
	Pertsona Errenta	Familia Errenta	Pertsona Errenta	Familia Errenta	Pertsona Errenta	Familia Errenta
EAE	19.715	42.192	19.286	40.179	-2,2	-4,8
Bizkaia	19.187	41.476	18.994	40.242	-1,0	-3,0
Bilbo Handia (Bilboalde)	19.203	41.376	18.954	40.085	-1,3	-3,1
Bilbo	19.787	41.920	19.647	40.806	-0,7	-2,7

Iturria: Pertsonen eta Familien Errentaren Estatistika, Eustat.

Norbanakoaren batez besteko errenta

	2009	2011	2013	% 2013/11
Norbanakoaren errenta (€)	20.081	19.787	19.647	-0,7
Emakumezkoak	15.060	15.169	15.422	1,7
Gizonezkoak	25.828	25.093	24.542	-2,2
Laneko errenta pertsonala (€)	12.285	12.062	11.735	-2,7
Emakumezkoak	8.860	9.046	9.132	1,0
Gizonezkoak	16.205	15.527	14.750	-5,0
Errenta pertsonal erabilgarria (€)	16.951	16.520	16.318	-1,2
Emakumezkoak	12.939	12.902	13.033	1,0
Gizonezkoak	21.544	20.676	20.124	-2,7

Iturria: Eustat

Norbanakoaren batez besteko errenta

	2009	2011	2013	% 2013/11
Norbanakoaren errenta (€)	43.119	41.920	40.806	-2,7
Emakumezkoak	34.740	33.881	33.415	-1,4
Gizonezkoak	48.985	47.797	46.582	-2,5
Laneko errenta pertsonala (€)	26.455	25.615	24.441	-4,6
Emakumezkoak	20.151	19.949	19.524	-2,1
Gizonezkoak	30.869	29.758	28.284	-5,0
Errenta pertsonal erabilgarria (€)	36.383	34.984	33.876	-3,2
Emakumezkoak	29.600	28.573	28.076	-1,7
Gizonezkoak	41.132	39.672	38.408	-3,2

Iturria: Eustat.

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	1	2	Atzerriko biztanleak	Biztanleak: Errenta, eskolatzeko eta hezkuntza maila
Biztanleriaren joan-etorriak			Herritartasunaren arabera	Pertsonen eta familien errenta
Biztanleak barruti eta auzoetan			Barrutietan	Gizarte babesa
				Eskolatzeko maila
				Ikasketan ari diren biztanleen hezkuntza maila

BIZTANLEAK:

ERRENTA, ESKOLATZE ETA HEZKUNTZA MAILA


Errenta altuenak Abando eta Indautxuko bizilagunen eskuetan ageri dira

Azkenik, auzokako azterketak ondo erakusten ditu Bilboko biztanleriaren errenta mailen desberdintasunak, hala norbanakoaren, zelan familiako errentaren kasuan.

2013an Abando da rankingaren buru norbanakoaren batez besteko errenta altuenari dagokionez: 32.930 euro. Indautxu datorkio ondoren (31.597 euro), eta jada urrunago, Castaños (27.465 euro). Soilik hamaika auzok erakusten dute hiribilduko norbanakoaren batez besteko errentaren gainetik. Norbanako errenta urrienak berriz Iturrigorri-Peñascalean aurkitzen ditugu (9.965 euro), Otxarkoagan (10.821 euro) eta Uretamendin (10.892 euro), gutxi gorabehera Bilboko batez besteko errentaren erdi inguru-edo direnak.

Familia Errentan batez besteko kopuru altuenak ere Abandori dagozkio (69.459 euro 2013an), Indautxuri (66.660 euro), eta Castañosi (56.587 euro). Errenta eskasena berriz, Iturrigorri-Peñascaleko bizilagunen artean aurkitzen ditugu (21.510 euro), Uretamendikoaren artean (21.624 euro), edota Otxarkoagan (21.657 euro). Denera, gutxi gorabehera lau auzotik bat ageri da hiribilduko batez besteko familia errentaren gainetik 2013an, eta honetan 2011koaren antzeko proportzioa mantentzen da.

Gehieneko eta gutxieneko familia errenta, barrutiz barruti eta auzoaren arabera. 2013



Pertsonen eta familien errenta. Bilbo auzoka, 2013

Auzoa	Pertsona Errenta	Familia Errenta	Auzoa	Pertsona Errenta	Familia Errenta
Abando	32.930	69.459	La Peña	14.032	29.309
Altamira	12.576	25.149	Erribera	14.789	26.875
Ametzola	21.127	44.190	Larraskitu	13.325	27.320
Arabella	14.220	26.994	Masustegi-Mintegitxueta	17.584	37.723
Arangoiti	13.482	29.013	Matiko	18.012	35.806
Atxuri	14.871	28.709	Miribilla	23.807	44.818
Basurtu	21.583	46.110	Olabeaga	15.509	29.166
Begoña	21.486	47.167	Otxarkoaga	10.821	21.657
Bilbo Zaharra	13.652	25.672	San Adrián	16.899	36.847
Boluea	13.960	29.733	San Frantzisko	12.002	25.598
Alde Zaharra	21.870	41.709	San Inazio	17.854	36.587
Castaños	27.465	56.587	Deustuko San Pedro	22.569	48.315
Loruri	22.306	47.883	Santutxu	15.951	32.365
Errekaldeberri	15.249	30.997	Solokoetxe	16.932	35.953
Ibarrekolanda	20.013	43.702	Txurdinaga	18.175	41.709
Indautxu	31.597	66.660	Uretamendi	10.892	21.624
Iralabarri	17.421	36.219	Uribarri	15.734	31.670
Iturralde	18.407	37.183	Zabala	13.582	26.843
Iturrigorri-Peñascale	9.965	21.510	Zorrotza	14.654	30.957
			Zurbaran	17.693	36.913

Iturria: Eustat. Pertsonen eta Familien Errentaren Estatistika.

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	1	2	Atzerriko biztanleak	Biztanleak: Errenta, eskolatzeta hezkuntza maila
Biztanleriaren joan-etorriak			Herritartasunaren arabera	Pertsonen eta familien errenta
Biztanleak baruti eta auzoetan			Barrutietan	Gizarte babesa
				Eskolatzeta maila
				Ikasten ari diren biztanleen hezkuntza maila

BIZTANLEAK: ERRENTA, ESKOLATZETA HEZKUNTZA MAILA

Gizarte babesa

Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (2014)

EUSTATEk burutzen duen Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren bidez ezagutu daiteke Euskadiko etxebizitzetako egoera pobrezia mailari dagokionean. 2014ko datuetatik argi eratorri liteke zelan krisi ekonomiko eta enplegu egoeren okertze nabarmeneko sei urteren ondoren igaro den, pertsonen arteko pobrezia tasa erreala EAEn, 2008ko % 4,2tik 2014ko % 5,9ra. Eta egoeraren gaiztotze hau nabaria da biztanleek hainbat arlotan jasaten dituzten gabezia eta urritasunetan, hala zelan, instalazioetan, etxebizitzaren hornikuntza eta egoera orokorretan, ibilgailuaren zahartzean, edota oportunitateetarako aukera edo aurrezteko samurtasunean.

Bilboko kasuan, 2014ko tasa 0,8 puntu portzentual handiagoa izan arren 2008koa baino, hau ehuneko 1,1 puntu jausi da 2012-2014 bitarteko epean, eta % 9,5etik igaro % 8,4ra, altuagoa berez Bizkaikoa (% 6,4) eta EAEkoa baino (% 5,9). Azken urte honetan 28.776 pertsona bizi izan dira benetako pobrezia egoeran Bilbon.

Gizarte Babesa Bilbon

Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Sailetik bultzatzen diren gizarte-politiken helburua da ahalik eta gehien arintzea aipaturiko egoerek hiritarrengan duten eragina. Halako aurrekariak kontuan, agian hobeto ulertu liteke administrazio publikoak egiten duen ahalegina neurri zehatzak bideratzeko gizarte egoera ahulenera biztanleen mesedean, eta eskuragarri duten errenta eskasarengatik beti gizarte bazterketa arriskuan egoeran dauden taldeengana.

Gauzak horrela, Bilbon 2014ko amaieran Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta laguntzak 16.314ko kopurua izatera iritsi dira, eta horrek % 1,0 gehiago esan gura du 2013ko urtekoen aldean.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzei (GLLei) dagokienez berriz, 2014ko urtean 7.364 eskaera egin dira, eta horietako 6.045 laguntza ordaindu dira (2013an baino % 19,7 gehiago); guztira 5 milioi euro inguru banatu dira.

Batez ere San Frantzisko-La Peña barrutiko biztanleak dira GLL ordaindu gehien eskuratu dituztenak (906 guztira), Otxarkoaga-Txurdinagako aurretik (801), edota Santutxu-Boluetako aldean (784). Hiru barruti hauek dira onura handiena eskuratzen dutenak laguntza mota honen bidez.

Hain justu, Santutxu-Boluetak (% 25,6) eta Otxarkoaga-Txurdinagako barrutiak (% 24,2) izan dira urte arteko igoerarik handiena ezagutu dutenak bertako biztanleek jasotako larrialdietarako laguntzen kopuruan.

2014. urtean zehar 861.722,55 euro bideratu dira guztira Udal Laguntza Berezien eskaintzan, % 16,8 gehiago aurreko urtean baino.

6.045 laguntza gizarte larrialdietarako eta 16.314 familia onuradun

Ordaindutako gizarte larrialdietarako laguntzak, oinarriko gizarte zerbitzuen arabera

	2013	2014	% 2014/13
Ordaindutako laguntzak guztira (kop.)	5.050	6.045	19,7
Deustu-San Inazio	460	490	6,5
Uribarri-Zurbaran	439	493	12,3
Otxarkoaga-Txurdinaga	645	801	24,2
Santutxu-Boluetak	624	784	25,6
Alde Zaharra	441	526	19,3
San Frantzisko-La Peña	766	906	18,3
Irala-San Adrian	392	471	20,2
Errekalde-Peñasal	552	674	22,1
Abando	232	269	15,9
Zorrotza	204	247	21,1
Basurtu-Altamira	249	275	10,4
Sakabanatutakoak	46	109	137,0

Iturria: Bilboko Udala, Gizarte Ekintza Saila.

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	1	2	Atzerriko biztanleak	Biztanleak: Errenta, eskolatzeta hezkuntza maila
Biztanleriaren joan-etorriak			Herritartasunaren arabera	Pertsonen eta familien errenta
Biztanleak baruti eta auzoetan			Barrutietan	Gizarte babesa
				Eskolatzeta maila
				Ikasten ari diren biztanleen hezkuntza maila

BIZTANLEAK: ERRENTA, ESKOLATZE ETA HEZKUNTZA MAILA

Eskolatzeta maila

EUSTATEk argitaraturiko azken datuen arabera, Biztanleen eta Etxebizitzaren Erroldan jasoak, eta baita Udalaren Hezkuntza Estatistikan ere, jada bere ikasketak amaitu dituzten biztanleen % 20,9k dauka unibertsitateko titulazioa; guztira 65.953 pertsona, % 2,64 gehiago 2013rako argitaratu zen datuaren aldean, eta % 9,15 gehiago 2010ekoa baino. Multzo honi erdi-goi mailako ikasketak dauzkan taldea ere gehituz gero, kopurua 90.662 pertsonatara iristen da.

Bigarren hezkuntza edota lanbide heziketako ikasketak dauzkatenak, hurrenez hurren dira biztanleriaren % 22,6 eta % 14,0. Azkenik, % 31,2k burutu ditu lehen mailako ikasketak, eta % 3,5ek ez dauka ikasketarik.

Goi mailako ikasketak dauzka biztanleen % 20,9k

Formazioa

	2010	2011	2013	2014	Bar. 2014/2013		Bar. 2014/2010	
					Kop.	%	Kop.	%
Buruturiko ikasketak (10 eta urte gehiagoko bizt., kop.)	324.171	321.908	319.013	316.176	-2.837	-0,89	-7.995	-2,47
Analfabetoak eta ikasketa bakoak	13.612	12.549	11.662	11.032	-630	-5,40	-2.580	-18,95
Lehen Hezkuntza	106.751	103.709	101.016	98.749	-2.267	-2,24	-8.002	-7,50
Lanbide Heziketa	41.164	43.368	43.690	44.323	633	1,45	3.159	7,67
Bigarren Hezkuntza	74.366	71.985	73.113	71.410	-1.703	-2,33	-2.956	-3,97
Erdi-Goi mailako ikasketak	27.853	26.658	25.274	24.709	-565	-2,24	-3.144	-11,29
Goi mailako ikasketak	60.425	63.639	64.258	65.953	1.695	2,64	5.528	9,15

Iturria: Eustat.

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	1	2	Atzerriko biztanleak	Biztanleak: Errenta, eskolatze eta hezkuntza maila
Biztanleriaren joan-etorriak			Herritartasunaren arabera	Pertsonen eta familien errenta
Biztanleak baruti eta auzoetan			Barrutietan	Gizarte babesa
				Eskolatze maila
				Ikasten ari diren biztanleen hezkuntza maila

BIZTANLEAK: ERRENTA, ESKOLATZE ETA HEZKUNTZA MAILA

Ikasten diharduen biztanleriaren hezkuntza maila

Bilboko hiriak hezkuntza eskaintza garrantzizkoa dauka, hala arlo publikoan zein pribatuan, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dauden hizkuntza eredu ezberdinen arabera eskaintzen dena, eta hala, biztanle kopuru garrantzitsua erakartzen duena gure hirira beste lurraldeetatik ere.

Araubide Orokorreko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza

Bilbok ikasleen % 28,6a batzen du Araubide Orokorreko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, EAEko kopuru osoaren % 14,2 dena. 2013-2014 ikasturtean zehar Bilbon 53.938 ikasle daude unibertsitatez kanpoko araubide orokorrean dihardutenak, eta hauetako % 58,3k burutzen ditu bere ikasketak sare pribatuan, eta gainerako % 41,7k berriz sare publikoan.

Hizkuntza erduei dagokienean, D eredia da nagusi Bilbon (% 41,8), eta ondoren datozkio A eredia (% 28,5), eta B eredia (% 28,4). Sare publikoaren barruan, D eredia hautatzen duen ikasleria % 65,1era heltzen da, eta pribatuan berriz % 25,1era. B ereduak sare publikoan soilik ikasleen % 4,7 biltzen du, eta aldiz sare pribatuan % 45,3ra ere iristen da. Azkenik, sare publikoan % 30,2k aukeratzen du A ereduan matrikulatzea, eta pribatuan berriz % 27,3k egiten du. X ereduak bestetik, 694 ikasle biltzen ditu Bilbon, denak ere sare pribatuan dihardutenak.

Araubide Bereziko irakaskuntza

Araubide Bereziko irakaskuntza hiru arlo handitan antolatzen da LOGSE legearen arabera: irakaskuntza artistikoak (musika, dantza, eta arte plastikoak eta diseinua), hizkuntzen irakaskuntza, eta kirol-irakaskuntza. 2013-2014 ikasturtean, EAEn, Araubide Bereziko irakaskuntzak 136 zentro biltzen ditu EAEn, 2.566 irakasle eta 86.878 ikasle matrikulatu.

Araubide Orokorreko unibertsitatez kanpoko ikastetxeak Bilbon

	2014
Araubide Orokorreko unibertsitatez kanpoko ikastetxeak	141
Haur Hezkuntza (1. zikloa)	85
Haur Hezkuntza (2. zikloa)	66
Lehen Hezkuntza	63
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	46
Batxilergoa	35
Lanbide Heziketa (Erdi edo Goi maila)	46
Hezkuntza Berezia	14
Helduen Hezkuntza (HHE)	9
Lanbide Hastapena	10
Araubide Berezia	...
Musika ikastegiak (Oinarrizko maila eta Erdiko maila)	12
Musika eskolak	6
Hizkuntza eskolak	1
Dantza ikastegiak (Oinarrizko maila)	0
Arte plastikoko eta diseinuko ikastetxeak (Goi maila)	3
Kirol Irakaskuntzako ikastetxeak (Erdi maila)	1

Unibertsitateko irakaskuntza

Bilbok 19.215 unibertsitate ikasle dauzka 2014/2015 ikasturtean. Ikasle hauek, gehienbat, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Deustuko Unibertsitatearen artean banatzen dira, publikoa eta pribatua direnak hurrenez hurren. Lehenengoak 11.197 ikasle matrikulatu dauzka, ikasle guztien arteko % 58,3. Haue-tako 774k hartzen du parte Master Ofizialetan eta 591k Doktoretza Programetan. Bere alde-tik, Deustuk 7.940 ikasle dauzka bere geletan (ikasleen % 41,3a), zeinetako 507k diharduten hirugarren zikloan, eta 1.823k graduondoko ikasketetan. Azkenik, Mondragon Unibertsita-teak, oraindik ere hiribilduan kokatu berriak, 78 ikasle biltzen ditu bere Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzako Graduan.

Araubide Orokorreko ikasleen banaketa, mailaren eta lurraldearen arabera, 2013-14

	Haur Hezk.	Lehen Hezk.	DBH	HLPP eta HHE	Batx.	LH	HB*	GUZTIRA
Bilbo	11.855	16.319	10.583	3.568	5.252	6.163	198	53.938
Bizkaia	47.356	63.185	37.846	10.592	14.888	15.783	598	190.248
EAE	95.483	124.276	75.161	19.608	29.607	33.399	1.204	378.738

(*) Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Berariazko Hezkuntza Berezia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Zereginen Ikaskuntza.
Iturria: Eusko Jaurlaritza.

20.000 ikasle inguruk dihardu Bilbon unibertsitate ikasketak burutzen

	2014/2015
Euskal Herriko Unibertsitatea	11.197
Deustuko Unibertsitatea	7.940
Mondragon Unibertsitatea	78
GUZTIRA	19.215

Iturria: Bilboko Udala. Hezkuntza Saila.

2 EKONOMIA ETA ENPRESA

Bilboko
Urtekari **2014**
Sozioekonomikoa



Ekonomia eta enpresa jarduerak
Jarduera sektoreen erradiografia
Banaketa barrutietan

Soldatapeko beharginak dituzten enpresak

Afiliazioa Autonomoen Araubidean

Enpresen dinamikotasuna

Merkataritza elkarte berriak

Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan

Kontratu erregistratuak

Ekoizpen ekonomia

Eraikuntza

Industria

Zerbitzuak

Kanpo merkataritza

Jarduera sektoreen erradiografia

Jarduera ekonomikoen sektore-
kako azterketak bertatik nabarmen-
tzen du hiriko Zerbitzuen sektoreak
duen garrantzia. Batera hartuaz sek-
tore honetako enpresa jarduerak
zein jarduera profesionalak, sek-
toreak hiriko jarduera ekonomiko
guztiaren % 89,0 biltzen du, eta de-
nera 33.898 lizentzia. Bere aldetik
Eraikuntzaren sektoreak biltzen ditu
lizentzien % 6,5 (2.472), Industriak
% 3,7 (1.397) eta jarduera Artis-
tikoek % 0,8 (308).

2013 urtearen aldean, positiboa izan
da lizentzia kopuruaren garapena
sektore guztietan, eta bereziki dira
nabarmenezkoak Eraikuntza sekto-
reko lizentzien hazkundea (% 11,54,
254 lizentzia gehiago), eta jarduera
Artistikoetakoa (% 8,83, 25 lizentzia
gehiagoz). Gainera, Industriak ere
berreskuratzen ditu lizentziak eta
% 1,45 hazi da (20 lizentzia gehia-
go), eta Zerbitzuak berriz % 2,27
(549 lizentzia gehiago).

Ekonomia eta enpresa jarduerak

	2013	2014	Bar. Abs.	% 2014/13
Ekonomia jarduerak	36.758	38.075	1.317	3,58
Enpresa jarduerak	27.732	28.555	823	2,97
Industria	1.377	1.397	20	1,45
Eraikuntza	2.218	2.472	254	11,45
Zerbitzuak	24.137	24.686	549	2,27
Merkataritza	8.753	8.933	180	2,06
Ostalaritza	3.063	3.075	12	0,39
Finantza eta aseguruak	847	830	-17	-2,01
Higiezinak	948	950	2	0,21
Enpresendako zerbitzuak	4.238	4.426	188	4,44
Bestelako zerbitzuak	6.288	6.472	184	2,963
Jarduera profesionalak	8.743	9.212	469	5,36
Jarduera artistikoak	283	308	25	8,83

Lizentzia kopurua. Urteko datuak, urteko azken hiruhilekoari dagozkionak. Kanpo utzi dira lehen sektoreko jarduerari dagozkien datuak.
Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Jarduera ekonomikoa barrutietan

	2013	2014	% 2014/13
Jarduera ekonomikoak	36.758	38.075	3,58
Deustu	3.457	3.525	1,97
Uribarri	1.726	1.767	2,38
Otxarkoaga-Txurdinaga	621	638	2,74
Begoña	2.369	2.442	3,08
Ibaiondo	4.053	4.270	5,35
Abando	13.895	13.674	-1,59
Errekalde	2.492	2.504	0,48
Basurto - Zorrotza	1.789	1.806	0,95
Barrutia zehaztu barik	6.356	7.449	17,20

Lizentzia kopurua. Urteko datuak, urteko azken hiruhilekoari dagozkionak. Kanpo utzi dira lehen sektoreko jarduerari dagozkien datuak.
Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Barruti honetan ere nabarmenena
da Zerbitzuen sektorea, hiri guz-
tian den moduan, eta jardueren
% 95,8 bereganatzen du berak
bakarrik, denera 611 lizentzia.
Jardueren xehetan, esangura-
tsuenak dira Merkataritza, jatetxe
eta ostalaritzakoak, denera 296
lizentzia biltzen dituztenak, eta ia
guztien erdia ere badirenak.

Txikizkako merkataritza eta osta-
laritza dira, hiriko barruti guztietan
ere, pisu handiena erakusten du-
ten jarduerak. Nabarmenezkoak
dira ere finantza eta zuzenbide
zerbitzuekin zerikusia duten jar-
duera profesionalak, gehienak
Abandoko barrutian biltzen dire-
nez batez ere.

Ekonomia eta enpresa jarduerak	Soldatapeko beharginak dituzten enpresak	Afiliazioa Autonomoen Arabidean	Enpresen dinamikotasuna	Ekoizpen ekonomia
Jarduera sektoreen erradiografia			Merkataritza elkarte berriak	Eraikuntza
Banaketa barrutietan			Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan	Industria
			Kontratu erregistratuak	Zerbitzuak
				Kanpo merkataritza

SOLDATAPEKO BEHARGINAK DITUZTEN ENPRESAK

2014. urtearen amaieran, Gizarte Segurantzaren erregistraturiko Bilboko enpresen kopurua, 20.769koa izan da, eta denera kopuru absolutuetan 297 enpresaren hazkundea izan du, eta % 1,45eko portzentuala, 2013. urte amaierakoaren aldean.

Gehienak Zerbitzuetako enpresak dira hiriko enpresa egituran. Guztira 19.394 entitate dira eta enpresa ehunduraren % 93,4 osatzen dute udalerrian. Sektorearen barruan ugarienak dira merkataritza sektorean diharduten enpresak, guztien % 14,2, eta, urte osoa kontuan, ugaritze positiboa erakutsi dute, % 1,37ko hazkundeaz (40 lizentzia gehiago). Kopuruari dagokionean, bigarren lekuan ageri dira jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen artean bildu ohi diren enpresak, denera 1.576 lizentziaz, guztien % 7,6 izanik. Hauek ere hazkuntza positiboa ezagutu dute urtean zehar, baina % 0,25ekoa baino ez.

Industria eta energiaren sektoreak hartzen du jarduera guztien % 2,7, eta 569 enpresa ditu Gizarte Segurantzaren erregistratuak, baina 2014. urtean zehar sektorea % 6,26 uzkuritu da. Azkenik esan, lehen sektoreak ez duela apenas pisurik hirian, bere 22 enpresez.

Soldatapeko beharginak dituzten 297 enpresa gehiago Bilbon

Soldatapeko beharginak dituzten enpresak

	2013	2014	% 2014/13
Enpresak	20.472	20.769	1,45
Lehen sektorea	22	21	-4,55
Industria eta Energia	607	569	-6,26
Eraikuntza	811	785	-3,21
Zerbitzuak	19.032	19.394	1,90
Merkataritza	2.915	2.955	1,37
Garraioa	535	515	-3,74
Ostalaritza eta ostatu zerbitzuak	1.283	1.345	4,83
Informazioa eta komunikazioak	389	386	-0,77
Finantza zerb. eta aseguruak	362	379	4,70
Higiezinak	347	318	-8,36
Profesional, zientifiko eta teknikoak	1.572	1.576	0,25
Administrazio eta zerb. osagarriak	631	634	0,48
Administrazio publikoa	116	116	0,00
Hezkuntza	356	382	7,30
Osasuna eta gizarte zerbitzuak	935	940	0,53
Kultura eta olgeta jarduera zerb.	235	245	4,26
Bestelako zerbitzuak	9.356	9.603	2,64

Enpresa kopuruak, gutxienez soldatapeko langile bat daukatenak.
Datuak urte bakoitzeko abenduari dagozkio.
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Ekonomia eta enpresa jarduerak	Soldatapeko beharginak dituzten enpresak	Afiliazioa Autonomoen Arabidean	Enpresen dinamikotasuna	Ekoizpen ekonomia
Jarduera sektoreen erradiografia			Merkataritza elkarte berriak	Eraikuntza
Banaketa barrutietan			Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan	Industria
			Kontratu erregistratuak	Zerbitzuak
				Kanpo merkataritza

ENPRESEN DINAMIKOTASUNA

Elkarte berrien sorrera % 4 hazi da 2014an

Merkataritza elkarte berriak

2014. urtean barrena 868 elkarte berri osatu dira Bilbon. Horrek % 4,0ko hazkundea erakusten du aurreko urtearen aldean. Haziera hau, batez ere, Zerbitzuen sektoreak bultzatu du. Halakoak izan dira elkarte berri horien % 79,7, eta guztira ere % 5,6 batean hazi da sektorean diharduten elkarten kopurua. Eraikuntzak bere aldetik elkarte berrien % 14,5 biltzen ditu, eta Industriak % 5,2. Eraikuntzak % 0,8ko jaitiera erakutsi duen bitartean, Industriaren jaitiera % 11,8koa izan da.

Zerbitzu sektoreko jardueren artean azpimarratzekoa da zelan aurreko urtean baino 22 elkarte berri gehiago sortu diren Garraio eta komunikazioen alorrean (% 75,9) eta 18 gehiago Ostalaritzakoan (% 22,8). Kontrara, 21 elkarte gutxiago sortu dira Merkataritza arloan (-% 11,9) eta 3 gutxiago Enpresei eta higiezinetakoei eskainitako zerbitzuetan (-% 1,5).

Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan

% 15,2 hazi dira erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan

Enpresen dinamikotasunaren adierazle nagusietakoa gertatu ohi da Ekonomia Jardueren gaineko Zergan erregistraturiko alta kopurua ere, inskripzio hauek direnez garai jakin batean egin direnak negozio berriak eratzeko. Bilboko kasuan 2014. urtea 6.794 erregistro berriz itxi da aipatu zergan, eta horrek % 15,2ko haziera nabarmena erakusten du.

Izen-emate berrion arteko garrantzia aztertuz gero, bereziki nabarmentzekoak dira enpresa jarduerak, denera 4.700, eta guztien % 69,2 direnak. 2014. urtean % 12,4 hazi da hauen kopurua. Zenbaki absolutuetan 520 erregistro gehiago 2013an baino.

Jarduera profesionaletan hazkundea are nabarmenagoa izan da oraindik, urte arteko bariazioa % 21,7an dago-eta aurreko urtekoaren aldean. Kopuru absolutuetan 357 erregistro berri dira, guztira 2.001 osatzen dituztenak. Erregistro berri guztien % 29,5 dira.

Sektorekako garapenari begira, 2013. urtean Industriak erakutsi bazuen ere emaitzarik hoberena, 2014an Eraikuntzak lortu du hazkunde emaitzarik hoberena ehunekoetan: % 25,0. 206 erregistro gehiago zenbaki absolutuetan. Edozelan, Industria ere % 10,7 hazi da, guztira 155 erregistro berriz (15 izen-emate gehiago). Bere aldetik Zerbitzuen sektoreko enpresa jardueren erregistro berriak ere % 9,3 hazi dira (299 gehiago).

Jarduera hauen azterketa xeheagoak erakutsiko digu Jatetxe-sukaldaritzarena dela dinamikotasun handiena erakutsi duena erregistro berriei dagokienean, guztira 648z, % 16,1eko hazkun-

dea, eta 90 gehiago aurreko urtean baino. Enpresendako zerbitzuak eta Higiezinetakoko jarduerak ere modu esanguratsuan hazi dira, % 14,2 eta % 11,8 hurrenez hurren. Azkenik, merkataritza jarduerak dira, hazkunde datu positiboak erakusten badituzte ere, haziera txikiena erakutsi dutenak, % 5,0rekin.

Datu negatibo bakarra ageri da, Finantza erakunde eta aseguruekin zerikusi duten jardueren erregistro berrietakoa. Hauek % 65,4 jausi dira aurreko urtekoen aldean, soilik 45 izen-emate berriz.

Altas Impuesto Actividades Económicas

	2013	2014	% 2014/2013
Jarduera ekonomikoetako erregistro berriak (kop.)	5.900	6.794	15,2
Enpresa jardueretako erregistro berriak (kop.)	4.180	4.700	12,4
Industria	140	155	10,7
Eraikuntza	823	1.029	25,0
Zerbitzuak	3.217	3.516	9,3
Merkataritza	1.269	1.333	5,0
Jatetxeak	558	648	16,1
Finantza erakundeak, aseguruak	130	45	-65,4
Higiezinetakoko jarduerak	51	57	11,8
Enpresendako zerbitzuak	464	530	14,2
Bestelako zerbitzuak	745	903	21,2
Erregistro berriak jarduera profesionaletan (kop.)	1.644	2.001	21,7
Erregistro berriak jarduera artistikoetan (kop.)	76	93	22,4

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Merkataritza elkarte berriak

	2013	2014	% 2014/13
Elkarte berriak	835	868	4,0
Lehen sektorea	2	4	100,0
Industria eta Energia	51	45	-11,8
Eraikuntza	127	126	-0,8
Zerbitzuak	655	692	5,6
Merkataritza	176	155	-11,9
Ostalaritza	79	97	22,8
Garraioa eta komunikazioak	29	51	75,9
Finantza zerbitzuak	59	58	-1,7
Enpresa eta higiezinendako zerbitzuak	203	200	-1,5
Bestelako zerbitzuak	109	131	20,2

Iturria: Bilboko Merkataritza Ganbera eta Merkataritza Erregistroa.

Ekonomia eta enpresa jarduerak	Soldatapeko beharginak dituzten enpresak	Afiliazioa Autonomoen Araubidean	Enpresen dinamikotasuna	Ekoizpen ekonomia
Jarduera sektoreen erradiografia			Merkataritza elkarre berriak	Eraikuntza
Banaketa barrutietan			Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan	Industria
			Kontratu erregistratuak	Zerbitzuak
				Kanpo merkataritza

ENPRESEN DINAMIKOTASUNA

Kontratu erregistratuak

Kontratuak % 8,3 hazi dira, eta hainbat gehiago gizonetzkoen artean andrazkoetan baino

Hiria 2014. urtean ezagutzen ibili den egoera ekonomikoaren isla izan da noski bertako enpresek erregistraturiko kontratu kopurua, guztira % 8,3 gehiago 2013an baino. Zenbaki absolutuetan, 157.525 kontratu sinatu ziren, 12.066 gehiago aurreko urtean baino. Edonola, gehiago izan dira kontratuak lortu dituzten gizonetzkoak (% 10,1), andrazkoak baino (% 6,7). Adina kontuan, kontratu igoerarik nabarmena adin zaharragokoen artean gertatu da bitxiki, 45 urte eta gehiagokoen artean, zeinek % 14,8 kontratu gehiago sinatzen dituzten.

Jarduera sektoreei begira, eta ehunekoak kontutan, Industriak ezagutu du hazkunderik handiena erregistraturiko kontratu kopuruan (% 38,56). Ondoren dabilzkie Zerbitzuak eta Eraikuntza, % 7,72 eta % 4,83 hazi direnak hurrenez hurren. Datuak kopuru absolutuetan alderatzen baditugu, Zerbitzuen sektorea da hazkunderik handiena erakutsi duena eta 2013an izan zituen 135.913 kontratuetatik igarotzen da 2014ko 146.407ra, 10.494 gehiago.

Jarduera arloei begira, dinamikoenak, sinaturiko kontratuen bistara, Administrazioak eta jarduerak osagarriak izan dira (25.374), Ostalaritza (22.625) eta Osasungintza eta Giza zerbitzuak (21.570). Urte arteko aldatetegi dagokienez, gehien hazi diren jarduerak izan dira Garraio eta biltegiatzekoak (% 216,8), Administrazio Publikoa (% 80,2) eta Ostalaritza (% 56,2).

Kontratu erregistratuak

	2013	2014	% 2014/2013
Kontratu erregistratuak (kop.)	145.469	157.525	8,3
Emakumezkoak	79.250	84.543	6,7
Gizonetzkoak	66.269	72.982	10,1
16 eta 24 urte bitartean	22.902	23.185	1,2
25 eta 44 urte bitartean	93.229	100.656	8,0
45 eta urte gehiago	29.338	33.684	14,8
Lehen sektorea	249	218	-12,5
Industria	3.387	4.693	38,6
Eraikuntza	5.921	6.207	4,8
Zerbitzuak	135.913	146.407	7,7
Finkoak, eta finko bihurtuak	9.523	11.297	18,6
Aldi batekoak	135.946	146.228	7,6

Iturria: SEPE.

Ekonomia eta enpresa jarduerak	Soldatapeko beharginak dituzten enpresak	Afiliazioa Autonomoen Araubidean	Enpresen dinamikotasuna	Ekoizpen ekonomia
Jarduera sektoreen erradiografia			Merkataritza elkarre berriak	Eraikuntza 1 2
Banaketa barrutietan			Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan	Industria
			Kontratu erregistratuak	Zerbitzuak
				Kanpo merkataritza

EKOIZPEN
EKONOMIA

Eraikuntza

Jarduera ekonomikoak

Eraikuntzak 2014an baieztatu egin du aurreko urteko suspertzea Bilbon. 3.232 lizentzia eskuratu ditu, eta guztira % 8,6ko hazkuntza erakutsi (256 lizentzia gehiago), hiribildu osoko batez besteko gehikuntzaren hainbat gainetik (% 3,6).

Sektoreko lizentzia guztien artean enpresetakoak 254 lizentzian hazi dira, eta horrek % 11,45eko hazkuntza sendoa erakusten du, urte amaierarako 2.472 lizentzia direlarik. Ez da hori izan hala ere eraikuntzaren zerbitzuko jarduera profesionalen kasua. Bi lizentzia gehiago baino ez ditu eskuratu, eta ia bere horretan geratu da 2013ko urtearen aldean (% 0,3ko irabazia).

Sektoreak, oro har, handitu egin du bere pisua hiriko ekonomian lizentzia kopuruari dago-kionean, eta % 8,10etik izatetik igaro da % 8,49ra (0,39 puntu portzentual gehiago).

256 eraikuntza
lizentzia gehiago
2014. urtean

Eraikuntza

	2013	2014	% 2014/2013
Jarduera Ekonomikoak - Bilbo - Guztira	36.758	38.075	3,6
Jard. Ekon. - Bilbo - Eraikuntza - Guztira	2.976	3.232	8,6
Enpresa jarduerak - Eraikuntza	2.218	2.472	11,5
Eraikuntzarako Zerb. Jard. Profesionalak	758	760	0,3
Eraikuntza sekt. pisua - Bilbo - Lizentzia kop./g	8,1%	8,49%	0,39 pp

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Populazio afiliatua

Edozelan, sektoreko jarduera ekonomikoaren haziera ez dator bat bertan sortutako lan-postu kopuruaz, eta eraikuntzaren sektorean afiliaturikoen populazio datuak oraindik dira negatiboak, egia bada ere berez atzerakada ez dela esanguratsuegia (% 0,07), eta erakutsi lezakeela sektorearen egonkortze bat edo. Kopuru absolutuetan, aurreko 8.584 behargin afiliatuetatik, 8.578ra igaro da, tartean 6 lanpostu galduta.

Afiliazio guztien artetik, 2.903 (% 34) dagozkio Eraikuntzari (estu-estu), eta 5.675 berriz (% 66) eraikuntzaren jarduera osagarriari. Lehenengoan artean 110 lanpostu galdu dira (-% 3,65), eta bigarrenen artean berriz 104 irabazi (% 1,87).

2014an sektoreko afiliazioak pisua galdu du hiri osoko afiliatu kopuruaren aldean, eta aurreko % 5,23tik igaro da Bilbon % 5,17 izatera.

Populazio afiliatua

	2013	2014	% 2014/2013
Afiliatuak (kop.)	163.854	166.045	1,33
Eraikuntza	8.584	8.578	- 0,07
Eraikuntza	3.013	2.903	- 3,65
Eraikuntzaren osagarriak	5.571	5.675	1,87
Sektorearen pisua (%)	5,23	5,17	-0,06 pp

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

Ekonomia eta enpresa jarduerak	Soldatapeko beharginak dituzten enpresak	Afiliazioa Autonomoen Araubidean	Enpresen dinamikotasuna	Ekoizpen ekonomia
Jarduera sektoreen erradiografia			Merkataritza elkarre berriak	Eraikuntza 1 2
Banaketa barrutietan			Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan	Industria
			Kontratu erregistratuak	Zerbitzuak
				Kanpo merkataritza

EKOIZPEN
EKONOMIA

Eraikuntza

Afiliatuak
Autonomoen
Araubidean

Eraikuntzaren sektorean Behargin Autonomoen Araubide Berezian afiliaturiko pertsona kopurua % 4,27 hazi da 2013ko urtearen aldean, eta 2.508 afiliatutatik pasatu 2.614 izatera. Hazkundea handiagoa da hala autonomoen artean, batez beste erregistratua baino (% 1,72). Afiliatu hauen pisua % 11,6koa da multzo osoaren barruan.

Etxebizitzen
gaineko oniritziak
eta lizitazio
eskaintzak

Bizkaiko etxebizitzen gaineko oniritzi eta lizitazio eskaintzak harturik jardueraren adierazle gisa, baieztatu genezake zelan eraikuntzaren sektoreak ikusi duen bere jarduera berreskuratzen 2014. urtean, eta % 18,3ko haziera erakutsi oniritzien kopuruan, eta % 69,3koa obra publikoaren lizitazioen zenbatekoan.

Soilik oniritziak hartuaz kontuan, obra berrikoak dira jarduera positiboena erakutsi dutenak eta % 22,8 hazi dira, zabaltze edo/eta berritze obratukoek ezagutu duten % 6,3ko galeraren aldean. Lizitazioei dagokienez berriz, hala etxebizitza eraikuntzakoek, zelan obra zibiletakoek erakutsi dituzte emaitza positiboak, nahiz azken hauek diren gehien hazi direnak (% 92,6ko hazkundea % 17,8koaren aldean).

Afiliatuak Autonomoen Araubidean

	2013	2014	% 2014/2013
Afiliatuak Autonom. Araubidean (kop.)	22.155	22.535	1,72
Eraikuntza	2.508	2.614	4,27
Autonomoen pisua sektorean (%)	11,32	11,60	0,28 pp

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Oniritziak

	2013	2014	% 2014/13
Etxebizitza oniritziak (kop.)	1.784	2.111	18,3
Obra berria	1.512	1.856	22,8
Zabaltze edo/eta berritzeak	272	255	-6,3

Iturria: Sustapen Ministerioa.

Lizitazioak

	2013	2014	% 2014/13
Obra publikoaren lizitazioa (mila €)	342.681	580.210	69,3
Eraikuntza	106.874	125.934	17,8
Obra zibila	235.807	454.276	92,6

Iturria: SEOPAN.

Ekonomia eta enpresa jarduerak	Soldatapeko beharginak dituzten enpresak	Afiliazioa Autonomoen Arabidean	Enpresen dinamikotasuna	Ekoizpen ekonomia
Jarduera sektoreen erradiografia			Merkataritza elkarre berriak	Eraikuntza 1 2
Banaketa barrutietan			Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan	Industria
			Kontratu erregistratuak	Zerbitzuak
				Kanpo merkataritza

EKOIZPEN EKONOMIA

Industria

Jarduera ekonomikoak

Industria sektorea berpiztu egin da hirian 2014. urtean. Jarduera lizentzia kopurua % 2,02an hazi du, eta guztira 33 lizentzia gehiago bereganatu sektorean. Hala eta guztiz ere sektorearen bizkortzea ez da horren positiboa gertatzen hiribilduko jarduera ekonomiko guztien konparazioan, hauek % 3,58 hazi direnez batez beste.

Jarduera profesionalak izan dira jokaera positiboena erakutsi dutenak urtean zehar eta % 5,02 hazi dira, eta 259 lizentzietatik pasatu 272tara. Gutxiago hazi dira sektoreko enpresa jarduerak, % 1,45 hazita urte artekoan, eta 2013ko 1.377 lizentzietatik pasatuta 2014ko 1.397etara (20 lizentzia gehiago).

Industriaren pisua hiriko ekonomian ez da hala ezer asko aldatu. Eta 2014an 0,07 puntu portzentual galdu baditu ere, Bilboko lizentzia guztien % 4,38an geratu da azkenean.

Jarduera Ekonomikoak

	2013	2014	% 2014/2013
Jarduera Ekonomikoak - Bilbo - Guztira	36.758	38.075	3,58
Jard. Ekon. - Bilbo - Industria - Guztira	1.636	1.669	2,02
Enpresa jarduerak - Industria	1.377	1.397	1,45
Industriarako Zerb. Jard. Profesionalak	259	272	5,02
Industria sekt. pisua - Bilbo - Lizentzia kop./g	4,5	4,38	0,07 pp

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Afiliatuak

Industria sektorean afiliaturiko populazioari dagokionean, Bilboko enpresek 8.555 behargin batzen dituzte, baina horrek % 7,41 puntuko jausia erakusten du 2013ko urtearen aldean. Hiribilduan afiliaturiko populazio osoaren % 5,15 dira Industriakoak. Sektoreko afiliazio guztien artean, 5.045 (% 59) dagozkio berez Industriari, 1.460 (% 17) Energiaren azpisektoreari, eta 2.050 (% 24) Ur eta hondakinenari.

Industrian afiliatuak % 7,4 gutxiago dira

Populazio afiliatua


	2013	2014	% 2014/13
Afiliatuak (kop.)	163.854	166.045	1,34
Industria eta Energia	9.240	8.555	- 7,41
Industria	5.692	5.045	- 11,37
Energia	1.521	1.460	- 4,01
Ur eta hondakinak	2.027	2.050	1,13
Sektorearen pisua (%)	5,64	5,15	-0,49 pp

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Industria Produkzioaren Indizea

Bizkaiko industria jarduerak eten egin du jada 2008an hasi zuen jaitsiera bidea eta 2014an % 2,2 hazi du Industria Produkzio Indizea (IPI). Adierazle hau % 28 ere uzkuritu da krisiaren hasieratik.

Industria Produkzioaren Indizea



Iturria: EUSTAT.

Ekonomia eta enpresa jarduerak	Soldatapeko beharginak dituzten enpresak	Afiliazioa Autonomoen Araubidean	Enpresen dinamikotasuna	Ekoizpen ekonomia
Jarduera sektoreen erradiografia			Merkataritza elkarte berriak	Eraikuntza 1 2
Banaketa barrutietan			Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan	Industria
			Kontratu erregistratuak	Zerbitzuak
				Kanpo merkataritza

EKOIZPEN EKONOMIA

Zerbitzuak

Jarduera lizentziak

Zerbitzu sektoreak 33.898 lizentzia bildu ditu 2014. urtean, % 3,10 gehiago aurreko urtean baino (1.018 lizentzia gehiago). Kopuru honetara iristen gara batera zenbatuz, alde batetik, enpresa jardueretako 24.686 lizentziak, eta bestetik, hiriko 9.212 jarduera profesionalak -barne hartuta gainera aurreko atalean aipatu ditugun Industriari eta Eraikuntzari eskainitako zerbitzuetakoak ere-. Bi arloek erakusten dituzte emaitza positiboak, jarduera profesionalak hainbat gehiago hazten badira ere enpresa jarduerak baino (% 5,36 eta % 2,27 hurrenez hurren). Sektorearen pisua hiriko guztien artean, lizentzia kopurua kontuan, % 89,03koa da, aurreko urtekoa baino zerbait txikixeagoa hala ere (0,42 pp gutxiago).

Enpresa jardueren artean merkataritza eta ostalaritzakoak dira lizentzia kopuru altuena erakusten dutenak, % 49; guztira 12.008 lizentzia 2014. urtean. Bigarren tokian ageri dira enpresendako zerbitzuak 4.426 lizentziaz, guztien % 20.

Jarduera profesionalen artean nabarmentzen dira finantza eta zuzenbide zerbitzuekin lotutakoak (4.099), eta oso garrantzi berezia erakusten dute zuzenbidearen profesionalak, zeinen artean batez ere abokatuek (1.684 lizentzia 2014an). Garrantzizkoak dira ere Bestelako zerbitzuen alorreko lizentziak, zeinen artean 2.213 lizentzia ere badiren hezkuntzako eta osasungintzako profesionalenak.

Jarduera Ekonomikoak

	2013	2014	% 2014/2013
Jarduera Ekonomikoak - Bilbo - Guztira	36.758	38.075	3,58
Jard. Ekon. - Bilbo - Zerbitzuak - Guztira	32.880	33.898	3,10
Enpresa jarduerak - Zerbitzuak	24.137	24.686	2,27
Jarduera Profesionalak - Zerbitzuak*	8.743	9.212	5,36
Zerbitzu sekt. pisua - Bilbo - Lizentzia kop./g	89,4	89,03	-0,42 p.p.

*Barne hartzen ditu Industriari zein Eraikuntzari eskainitako zerbitzuak, jada aurreko ataletan ere kontuan hartuak.
Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Afiliatuak

Bilbon Zerbitzu sektoreko enpresetan afiliaturiko populazioa 148.571 pertsonakoa da, hiri-bildu osoko enpresa afiliazio guztien % 89,5. Ehuneko handiena merkataritza arloari dagokio (% 14), eta ondoren datoz administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak eta hezkuntza (% 11,3 eta % 11,2 hurrenez hurren). Urte arteko alderaketan, zerbitzu sektoreko afiliazioak % 1,96 hazi dira, hiriko populazio afiliatu guztiaren batez besteko % 1,34 igoeraren gainetik.

Urte arteko bilakaera positiboena Informazio eta komunikazioen alorreko afiliatuek darakutsate (% 6,71) eta Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetakoak (% 4,05). Okerrena berriz Garraio eta biltegiatzeetakoak (-% 9,07) eta Higiezinetaoak (-% 2,83).

Populazio afiliatua

	2013	2014	% 2014/13
Afiliatuak (kop.)	163.854	166.045	1,34
Zerbitzuak	145.714	148.571	1,96
Merkataritza	20.861	20.939	0,37
Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak	16.472	16.753	1,71
Hezkuntza	15.941	16.572	3,96
Jard. profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	11.152	11.604	4,05
Administrazio Publikoa	10.409	10.712	2,91
Osasungintza	11.822	12.168	2,93
Gizarte zerbitzuak	7.793	8.053	3,34
Finantza eta aseguruak	8.471	8.424	-0,55
Garraio eta biltegiatzea	8.817	8.017	-9,07
Ostalaritza	8.575	8.796	2,58
Informazioa eta komunikazioak	6.749	7.202	6,71
Etxeko behargileak	6.848	7.112	3,86
Kultura eta olgeta	2.991	3.104	3,78
Ostatu zerbitzuak	1.158	1.181	1,99
Higiezinak	1.200	1.166	-2,83
Bestelako zerbitzuak	6.455	6.768	4,85

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Hiriko afiliatu guztien % 89,5 dago erregistratua Zerbitzuen sektorean

Zerbitzu sektorearen Salmenta Indizea

Egoera ekonomikoaren berpizte hasiberria Zerbitzu sektorearen Salmenta Indizean ere islatu da 2014an, eta 2013an % 89,7 izatetik igaro da % 90,6 izatera, % 1,0ko hazkundeaz.

Bilakabide hobea erakutsi dute aurreko urtekoen aldean Garraio eta biltegiatze jarduerak (% 8,3) eta Ostalaritzakoak (% 1,9). Emaizta txarra izan da berriz Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetakoak -% 3 jausi dira-, eta Informazio eta komunikazioetakoak, hauek ere % 2,9 jaitsi dira eta.

Zerbitzuen Salmenta

	2013	2014	% 2014/13
Zerbitzuen Salmenta Indizea	89,7	90,6	1,0
Merkataritza	92,5	93,0	0,5
Garraioa eta biltegiatzea	93,3	101,0	8,3
Ostalaritza	83,9	85,5	1,9
Informazioa eta komunikazioak	75,7	73,5	-2,9
Jard. Profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	87,9	85,3	-3,0
Administrazio jard. eta zerbitzu osagarriak	83,6	83,2	-0,5

Iturria: EUSTAT.

Ekonomia eta enpresa jarduerak	Soldatapeko beharginak dituzten enpresak	Afiliazioa Autonomoen Araubidean	Enpresen dinamikotasuna	Ekoizpen ekonomia
Jarduera sektoreen erradiografia			Merkataritza elkarte berriak	Eraikuntza 1 2
Banaketa barrutietan			Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan	Industria
			Kontratu erregistratuak	Zerbitzuak
				Kanpo merkataritza

EKOIZPEN
EKONOMIA

Kanpo merkataritza

Bizkaian ondasun eta zerbitzuen esportazioak 2014. urtean 9.468,38 milioi euro-tara iritsi ziren, eta horrek % 8,6ko hazkunde indartsua erakusten du aurreko ur-tearen aldean. Inportazioen kasuan berriz, hazkundera are handiagoa izan da es-portazioena baino, eta 2013ko 10.419,13 milioi eurotatik igaro da gastua 2014an 11.593,13 milioitara (% 11,3ko igoera). Ondorioz, merkataritza saldo negatiboa, 426,72 milioi eurotan ikusi dugu hazten, eta igarotzen 2013ko -1.698,03 milioi euroetatik 2014ko -2.124,75 milioietara.

Kanpo merkataritza

	2013	2014	% 2014/13
Esportazioak* (Milioi €)	8.721,10	9.468,38	8,6
Inportazioak* (Milioi €)	10.419,13	11.593,13	11,3
Merkataritza saldoa* (Milioi €)	-1.698,03	-2.124,75	

Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa (DATACOMEX) Bizkaia.

3 LAN MERKATUA

Bilboko
Urtekari **2014**
Sozioekonomikoa



Biztanleria aktiboa, okupazioa eta langabezia

Jarduera

Okupazioa

Langabezia


Populazio afiliatua

Afiliazioa erregimenaren arabera

Afiliazioa sektorearen eta jardueraren arabera

Kontratu erregistratuak

Langabezia erregistratua

Biztanleria aktiboa, okupazioa eta langabezia	Populazio afiliatua	Kontratu erregistratuak	Langabezia erregistratua
Jarduera	Afiliazioa erregimenaren arabera		
Okupazioa	Afiliazioa sektorearen eta jardueraren arabera		
Langabezia			

BIZTANLERIA AKTIBOA OKUPAZIOA ETA LANGABEZIA

Espainiako INE - EIN - Estatistika Institutu Nazionalak eskainitako 2014ko BAI - Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuek erakusten dute Bilboko biztanleria aktiboa -landunak gehi langabeak- 165,1 mila pertsona izatera heldu dela, eta hauetako 87.400 direla gizonezko (% 53) eta 77.700 andrazko (% 47).

Hala beraz, 2014. urtean barrena behar egiteko aukeran izan den biztanleria multzoa % 1,8an jaitsi da (3.100 pertsona gutxiago zenbaki absolutuetan). Galera honen arrazoi zuzena andrazkoen arteko populazio aktiboaren jaitsiera izan da (-% 5,9), aldiz igo egin da eta gizonezkoen artekoa (% 2,5). Hala zaldu ere egin da genero tartearen (-5,8 puntu portzentual).

16 urte edo gehiagoko biztanleria aktiboa eta jarduera tasa

	2013	2014	% 2014/13
Biztanleria aktiboa (milakoak)	168,2	165,1	- 1,8
Emakumezkoak	82,6	77,7	- 5,9
Gizonezkoak	85,3	87,4	2,5
Biztanleria okupatua	137,8	133,0	- 3,5
Biztanleria langabetua	30,4	32,2	5,9
Jarduera tasa (%)	57,51	56,77	-0,74 pp*
Emakumezkoak	52,41	49,50	-2,91 pp*
Gizonezkoak	63,47	65,32	1,85 pp*

*Aldea puntu portzentualetan.
Iturria: INE (EIN) - EPA (BAI). Urteko datuak, hiruhilekoko lau inkestetako batez bestekoei dagozkie.

Jarduera

% 1,8an jaitsi da Biztanleria Aktiboa

Ondoriozko jarduera tasa ere txikitu egin da 2013. urtekoaren aldean, zehatz 0,74 puntu portzentual, % 56,77ko balioan gelditu arte. Era berean mantendu da genero desberdintasuna. 2014an 16 urte eta gehiagoko gizonezkoen artean % 65,3k ziharduen beharrean -edo behar bila-, eta adin bereko andrazkoen artean berriz % 49,5 baino ez.

Hala, hiriko jarduera tasa Bizkaikoaren batez bestekoaren gainetik geratu da (% 56,58), baina EAEko eta estatu osokoen azpitik, % 57,01 eta % 59,60 izan direnak hurrenez hurren.

Behar egiteko adinean dagoen biztanleriaren jaitsiera, atzerriar egonkorren kopuruaren txikitzea, eta behar egiteko aukeran egonda ere bilatu ere egiten ez duten pertsonen desanimoa batere aurkitu ezin lezaketelakoan, izan litezke arrazoiak biztanleria aktiboaren jaitsiera azaltzeko.

Okupazioa

Bilbon beharrean dabilen biztanleriaren kopurua 2014an 133,0 mila pertsonakoa da, eta horrek esan gura du hiriko hamar pertsona aktibotatik 8 daudela enpleguak (% 81) urte horretan. Edozelan, urte arteko batez bestekoan biztanleria okupatuaren kopurua % 3,5 jaitsi da 2013 urtekoaren aldean (4.800 pertsona gutxiago beharrean zenbaki absolutuetan).

Andrazkoek bere okupazioaren % 7,8 galdu dute aurreko urtearen aldean. Gizonezkoek berriz, asko ez bada ere, handitu egin dute berea % 0,7an. Sexu bateko eta bestekoen lan merkatuko parte hartzeaz berriz, emakumezkoena jaitsi egin da 2013ko % 49,5etik 2014ko % 47,3ra.

Enplegu tasak ere 1,4 puntu portzentual galdu ditu aurreko urtekoaren aldean, eta batez beste % 45,72koa gertatu da.

Emakumezkoen enplegu tasak (% 40,05) 3,2 pp galdu ditu eta gizonezkoenak baino baxuagoa izaten jarraitu du (% 52,41). Hala genero tartearen nabarmena gertatzen da eta 5,42 puntu portzentual altuagoa gertatzen da gizonezkoen okupazioa.

Enplegu tasa Bilbon, % 45,7an gertatzen da guztira, eta hala, hiria, estatuko batez bestekoaren gainetik ageri da (% 45,0), baina EAEkoaren azpitik (% 47,7).

Okupazio datuak aztertuz jarduera sektoreei begira, Zerbitzuak dira Bilbon bizi den populazio okupatu gehiena biltzen dutenak (% 85,3), guztira 113,4 mila pertsona. Industrian beharrean dabilen pertsona kopurua 12,9 milakoa da, guztien % 9,7, eta Eraikuntzaren sektorean okupatutakoa berriz 6,5 milara iristen da (% 4,9). Lehen sektoreak hirian erakusten duen okupazio tasa sinbolikoa baino ez da gertatzen (% 0,2).

Enhunekoetan, Industria sektorea da lanpostu gehien galdu dituen urte honetan, -% 23,7 ere bai, eta horrek 4.000 pertsona okupatu gutxiago esan gura du. Ondoren datorkio Eraikuntza urte arteko % 8,5eko galeraz eta 600 lanpostu gutxiago eskainita. Zerbitzuek ez dute alde handirik erakusten 2013an okupatzen zuten pertsona kopuruaren aldean (200 lanpostu gutxiago).

16 urte edo gehiagoko biztanleria okupatua eta enplegu tasa

	2013	2014	% 2014/13
Biztanleria aktiboa (milakoak)	137,8	133,0	- 3,5
Emakumezkoak	68,2	62,9	- 7,8
Gizonezkoak	69,6	70,1	0,7
Nekazaritza	0,1	0,2	100
Industria	16,9	12,9	- 23,7
Eraikuntza	7,1	6,5	- 8,5
Zerbitzuak	113,6	113,4	- 0,2
Enplegu tasa (%)	47,12	45,72	-1,4 pp*
Emakumezkoak	43,29	40,05	-3,2 pp*
Gizonezkoak	51,58	52,41	0,8 pp*

*Aldea puntu portzentualetan.
Iturria: INE (EIN) - EPA (BAI). Urteko datuak, hiruhilekoko lau inkestetako batez bestekoei dagozkie.

Biztanleria aktiboa, okupazioa eta langabezia	Populazio afiliatua	Kontratu erregistratuak	Langabezia erregistratua
Jarduera Okupazioa Langabezia	Afiliazioa erregimenaren arabera Afiliazioa sektorearen eta jardueraren arabera		

BIZTANLERIA AKTIBOA OKUPAZIOA ETA LANGABEZIA

Langabezia tasa % 19,44ra iritsi da 2014an


Langabezia

Biztanleria Aktiboaren Inkestak erakusten du Bilbon 2014. urtean langabezian dagoen populazioa 32,2 milakoetara iritsi dela, eta kopuru honek aurreko urtean baino banaketa desorekatuagoa erakusten duela andrazko eta gizonezkoen artean, hauetakoak direnez 17,3 mila eta 14,9 mila baino ez berriz emakumezkoen artean. 2013. urteko batez bestekoaren aldean, langabezia % 5,9 hazi da 2014an, denera 1.800 langabetu gehiagoz, eta aurreko urteetako joera negatiboa areago luzatuz.

Langabeziaren hazkundeak bi sexuei eragiten die, baina handiagoa gertatzen da eragina gizonezkoetan. Hauen artean langabezia % 8,1 hazi da (1.300 langabetu gehiago). Emakumezkoen artean berriz % 3,5 hazi da langabezia (500 langabetu gehiago).

Bilboko hiriak batez besteko % 19,44ko langabezia tasa erakutsi du, eta altuagoa izan da hau Euskal Autonomia Erkidego osokoa baino (% 16,33), nahiz estatu osokoaren azpitik mantendu, honetan batez besteko tasa urte berean % 24,44koa da eta.

Langabezia tasaren bilakaera hiruhilekoetan



Iturria: INE (EIN) - EPA (BAI). Hiruhilekoetako datuak.

16 urte edo gehiagoko biztanleria langabetua eta langabezia tasa

	2013	2014	% 2014/13
Biztanleria langabetua (milakoak)	30,4	32,2	5,9
Andrazkoak	14,4	14,9	3,5
Gizonezkoak	16,0	17,3	8,1
Langabezia tasa (%)	18,07	19,44	1,37 pp*
Andrazkoak	17,40	19,10	1,70 pp*
Gizonezkoak	18,75	19,74	0,99 pp*

*Aldea puntu portzentualetan
Iturria: INE (EIN) - EPA (BAI). Urteko datuak, hiruhilekoko lau inkestetako batez bestekoei dagozkie.

Biztanleria aktiboa, okupazioa eta langabezia

Populazio afiliatua

Kontratu erregistratuak

Langabezia erregistratua

Jarduera

Okupazioa

Langabezia

Afiliazioa erregimenaren arabera

Afiliazioa sektorearen eta jardueraren arabera

POPULAZIO AFILIATUA

2014an % 1,3 bizkortu dira afiliazioak Gizarte Segurantzari

Afiliazioa erregimenaren arabera

2014aren amaieran Bilboko enpresek guztira 166.045 pertsona dauzkate afiliatuak kotizazio erregimen desberdinen artean, % 1,3 gehiago urte artekoari begira. Horrek esan gura izan du 2.191 pertsona afiliatu gehiago eduki ditugula. Afiliazioaren igoera honek, eta ondoren aipatuko dugun kontratazioarenak, dagoeneko ikusarazten digute zelanbaiteko hobekuntza gertatzen hiritik lan merkatuan, enpresa ehunak eragindako dinamikotasunari esker.

Azken krisi ekonomikoaren tarte osoari begiratz gero, afiliazioaren bolumena guztira 15.949 pertsona kopuruan murriztu da 2007an ezagutu zuen maximo historikoaren aldean, orduan izan genituen 181.994 pertsona afiliatuetatik behera. 2014an hasi gara galdutako enplegu horren apurtzea berreskuratzeko.


Kotizazio erregimenei begira, azpimarratzekoa izan liteke esatea hamarretik zortzi pertsona daudela Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean inskribatuak (136.337 pertsona abenduan, guztien % 82,1). Bigarren kotizazio multzo handiena da Behargin Autonomoen Erregimen Bereziari dagokiona, guztira 22.535 pertsona hartzen dituen (% 13,6). Bere aldetik Etxeko Beharginen Erregimen Bereziak behargin guztien % 3,9 hartzen ditu (6.496 pertsona). Eta jada nahikoa garrantzi gutxiagoz, afiliatuen % 0,4 ageri da kokatua Itsasoko eta Nekazaritza Sektoreko Beharginen Erregimen Bereziaren, bien artean 677 erregistro dituztela.

2013ko datuen aldean, afiliazioaren bilakaerak erregimenei dagokienean haziera txiki bat erakusten du Erregimen Orokorreko afiliatuetan, 1.549 pertsona gehiago (% 1,1). Behargin Autonomoen Erregimen Bereziak bere aldetik 380 pertsona irabazi ditu (% 1,7). Eta jada balantzaren alde negatiboan aurkituko ditugu Nekazaritza eta Itsasoko Erregimenetako afiliatuak, bien artean 26 pertsona galtzen dituztenak, baina % 3,7ko galera ere badena.

Azkenik aipatu, Etxeko Beharginen Erregimen Bereziak 6.496 behargin biltzen dituela 2014ko amaieran, eta horrek % 4,6ko hazkundeak erakusten duela aurreko urteko datuen aldean (288 gehiago).

Araudi Bereziaren Behargin Autonomoen afiliazioa % 1,7 hazi da

Populazio afiliatuaren bilakaera



Datuak beti urte bakoitzeko abenduari dagozkio.
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Biztanleria aktiboa, okupazioa eta langabezia	Populazio afiliatua	Kontratu erregistratuak	Langabezia erregistratua
Jarduera	Afiliazioa erregimenaren arabera		
Okupazioa	Afiliazioa sektorearen eta jardueraren arabera		
Langabezia			

POPULAZIO AFILIATUA

Afiliazioa sektorearen eta jardueraren arabera

Sektoreen arteko banaketari dagokionean, 2014ko amaieran Zerbitzuetakoak beregatatzen du enpresek sortutako enplegu guztiaren % 89,5 (148.571 pertsona guztira). Hau izan da sektore bakarra enplegua sortzen afiliazioa kontuan (2.857 pertsona gehiago), lehen sektorea kontuan hartu barik honen presentzia eskasa dela-eta hirian.

Afiliazioak Industria eta energia eta Eraikuntzako sektoreetan ia pisu berdina du bietako enplegu tasetan. Lehenak 8.555 afiliatu hartzen ditu (% 5,2) eta bigarrenak 8.578 (% 5,2 ere). Edozelan, datuen 2014ko hurbiltze hori, Industrian gertaturiko enplegu galera nabarmenak ekarri du batez ere (-% 7,4), Eraikuntzan berriz gutxi gorabehera bere horretan mantendu den bitartean afiliazioa (-% 0,1).

Jarduera arloen arabera azterketak argi erakusten du merkataritza sektoreak beregatatzen duen garrantzia Bizkaiko hiriburuan, eta bera da afiliatu kopuru handiena biltzen duen jarduera (20.939 pertsona, guztien % 12,6). Edozelan, nabarmentzekoak dira beste hainbat jarduera arlo ere beren afiliazio kopuru handiengatik, zelan Administrazio jarduerak eta Zerbitzu osagarriak (% 10,1), Hezkuntza (% 10,0), Osasungintza (% 7,3), Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak (% 7,0) eta Administrazio publikoa (% 6,5).

Bigarren sektoreko arloen artean manufaktura industriak larriagotu egin du bere beherakada aurreko urtearen aldean eta 647 pertsona afiliatu galdu ditu, -% 11,4. Lanpostu kopurua ere murriztu egin da energia hornikuntzako jarduerekin lotutako jardueretan, kasu honetan galera txikiagoa gertatu bada ere (-% 4,0). Ur hornikuntza

Afiliazioa kotizazio erregimenen eta jarduera sektoreen arabera

	2013	2014	% 2014/13
Populazio afiliatua	163.854	166.045	1,3
Erregimen Orokorra	134.788	136.337	1,1
Autonomoak	22.155	22.535	1,7
Etxeko langileak	6.208	6.496	4,6
Nekazaritza	164	155	-5,5
Itsasoa	539	522	-3,2
Lehen sektorea	316	341	7,9
Industria eta Energia	9.240	8.555	-7,4
Eraikuntza	8.584	8.578	-0,1
Zerbitzuak	145.714	148.571	2,0

Datuak urte bakoitzeko abenduari dagozkio.
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Merkataritzak garrantzi handia edukitzen jarraitzen du afiliazio kopuruan

eta hondakinen kudeaketaren alorrak berriz % 1,1 irabazi du.

Eraikuntzan, % 1,9 hazi da afiliazioa (104 pertsona gehiago) jarduera osagarrietan (iturgintza, elektrizitatea eta abar...). Eraikuntzaren arlo estu-estuak ordea % 3,7ko jaitsiera ezagutu du, eta denera 110 afiliatu galdu.

Zerbitzu sektoreko afiliazioari dagokionez 2014an azpimarratzekoa da Informazio eta komunikazioen jardueretan gertatutako hazkundera (% 6,7), hala zelan Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoaren arloan (% 4,1) eta Hezkuntzakoan (% 4,0).

Zerbitzu sektorearen bilakaera orokorrean ona izan den arren, hau osatzen duten jarduera alorretako batzuek erakutsi dituzte eboluzio negatiboak hala ere. Hori da bereziki Garraio eta biltegiatzearen kasua, zeinak 600 afiliazio galdu dituen (-% 9,1). Afiliazioak murriztu dira ere Higiezinaren jardueretan (-% 2,8) eta Finantza zerbitzu eta aseguruetan ere (-% 0,6).

Merkataritza sektoreak hiriburuan duen garrantzia dela eta, azpimarratu behar da sektorean afiliaturiko pertsonen kopuruak egonkor iraun duela urtean zehar, % 0,4ko irabazi txiki batez izan bada ere 78 pertsona gehiagoz.

EAEko beste euskal hiriburuetan ere igo egin da afiliaturiko populazioa, baina Bilbon baino hainbat gehiago ere bai: % 2,2 Donostian eta % 1,8 Gasteizen.

Nabarmentzekoa gertatzen da Informazio eta komunikazio jardueren % 6,7ko hazkuntza

Afiliazioa jarduera arloen arabera

	2013	2014	% 2014/13
Populazio afiliatua	163.854	166.045	1,3
Lehen sektorea	316	341	7,9
Industria eta Energia	9.240	8.555	-7,4
Industria	5.692	5.045	-11,4
Energia	1.521	1.460	-4,0
Ura eta hondakinak	2.027	2.050	1,1
Eraikuntza	8.584	8.578	-0,1
Eraikuntza	3.013	2.903	-3,7
Eraikuntzaren osagarriak	5.571	5.675	1,9
Zerbitzuak	145.714	148.571	2,0
Merkataritza	20.861	20.939	0,4
Administrazio zerb. eta osagarriak	16.472	16.753	1,7
Hezkuntza	15.941	16.572	4,0
Profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	11.152	11.604	4,1
Administrazio Publikoa	10.409	10.712	2,9
Osasungintza	11.822	12.168	2,9
Gizarte zerbitzuak	7.793	8.053	3,3
Finantza zerbitzuak eta aseguruak	8.471	8.424	-0,6
Garraioa eta biltegiatzea	8.817	8.017	-9,1
Ostalaritza	8.575	8.796	2,6
Informazioa eta komunikazioak	6.749	7.202	6,7
Etxeko beharginak	6.848	7.112	3,9
Olgeta eta kultura zerbitzuak	2.991	3.104	3,8
Ostatu zerbitzuak	1.158	1.181	2,0
Higiezinak	1.200	1.166	-2,8
Bestelako zerbitzuak	6.455	6.768	4,8

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Populazio afiliatua. Hiriburuak

	2013	2014	% 2014/13
Bilbo	163.854	166.045	1,3
Vitoria-Gasteiz	107.638	109.607	1,8
Donostia-San Sebastián	104.399	106.659	2,2

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Biztanleria aktiboa, okupazioa eta langabezia	Populazio afiliatua	Kontratu erregistratuak	Langabezia erregistratua
Jarduera	Afilazioa erregimenaren arabera		
Okupazioa	Afilazioa sektorearen eta jardueraren arabera		
Langabezia			

KONTRATU
ERREGISTRATUAK

% 8,2 ugaldu dira Bilboko biztanleek sinaturiko kontratuak

Bilbon bizi diren biztanleek guztira 111.101 lan kontratu formalizatu dituzte 2014. urtean barrena. Aurreko urte osoan baino 8.462 gehiago (% 8,2 gehiago).

Sexua kontuan, kontratuen % 51,5 sinatu dituzte andrazkoek, nahiz eta urte arteko alde-raketan emakumezkoei eginiko kontratuok proportzioan gutxiago hazi diren gizonezkoei egi-nikoak baino, % 6,6 % 10,1en aldean.

Kontratuen batez besteko errotazio/txandakatze tasa 3,11 kontratukoa da pertsonako, 3,23 emakumezkoen kasuan eta 2,98 gizonezkoen artean.

Bizitokia hirian dutenek sinaturiko hiru kontratutik bat dagokie 25 eta 34 urte bitarteko gazteei (39.863), 36 puntu portzentual guztien artean. Kontratu gehien sinatu duen hurrengo adin mul-tzoa 35 eta 44 urte bitartekoa izan da (% 25,5 eta 28.291 kontratu zenbaki absolutuetan).

Azterturiko adin tarte guztiek erakutsi dituzte irabaziak erregistraturiko kontratu kopuruetan 2013an sinaturikoen aldean, salbu 16 eta 24 urte bitarteko multzoak (-% 0,4), eta ondo nabarmentzekoa izan da 45 urte eta gehiagokoan taldeak erakutsi duen ugaritze sendoa (% 15,8).

Kontratuen % 10,9 egin zaie atzerriko nazionalitatea duten pertsonari (12.063 kontratu), baina kontratu hauen bilakaera berriro gertatu da negatiboa 2014an ere, % 7,0 txikiagoa 2013koa baino, aldiz populazio osoa kontuan sinatu diren kontratuak, % 10,5eko igoera erakutsi duten bitartean.

2014an bere horretan jarraitu du kontratatuturiko enpleguaren aldi batekotasun tasa altuak (kontratuen % 91 izan dira aldi batekoak), nahiz kontratu mota honek hazkunde txikiagoa erakutsi duen kontratu finko edota finko bihurtutakoak erakutsi dutena baino. Lehenak % 7,5 hazi dira eta bigarrenak % 16,8.

Zerbitzu sektoreak bildu ditu 2014an erregistraturiko kontratuen % 85,7, baina hauen hazkun-de tasa ez da izan % 3,7koa baino, sektore guztien artean baxuena. Hazi egin da ere kontra-tazioa Eraikuntzaren sektorean (% 6,0), Industria jardueretan (% 89,7) eta Lehen sektorean ere (% 43,7).

Hiru kontratutik bat sinatu du 25 eta 34 urte bitarteko herritar multzoak

Kontratu erregistratuak

	2013	2014	% 2014/13
Kontratu erregistratuak (kop.)	102.639	111.101	8,2
Emakumezkoak	53.703	57.239	6,6
Gizonezkoak	48.936	53.862	10,1
16-24 urte bitartean	17.764	17.697	-0,4
25-34 urte bitartean	37.304	39.863	6,9
35-44 urte bitartean	25.770	28.291	9,8
45 urte edo gehiagokoak	21.801	25.250	15,8
Finkoak eta finko bihurtuak	8.338	9.739	16,8
Aldi batekoak	94.301	101.362	7,5
Lehen sektorea	782	1.124	43,7
Industria	4.942	9.373	89,7
Eraikuntza	5.132	5.438	6,0
Zerbitzuak	91.783	95.166	3,7

Iturria: SEPE.

Biztanleria aktiboa, okupazioa eta langabezia	Populazio afiliatua	Kontratu erregistratuak	Langabezia erregistratua
Jarduera	Afiliazioa erregimenaren arabera		
Okupazioa	Afiliazioa sektorearen eta jardueraren arabera		
Langabezia			

LANGABEZIA ERREGISTRATUA

2014. urte amaieran 55 langabetu gehiago ditugu hiribilduan


Bilbon 2014. urtea 31.204 pertsona langabetu erregistratuz amaitu da. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuetan, azken urtean erregistraturiko langabezia % 1,7 hazi da emakumezkoetan, eta berriz, % 1,4 jaitسي da gizonezkoen artean. Hala, andrazko langabetuak 15.938 dira, guztien % 51,3, eta gizonezko langabetuak berriz 15.104 (% 48,7).

Hiribilduan azken urtean erregistraturiko langabeziaren hazkundera % 0,2koa izan da, denera 55 pertsona langabetu gehiagoz, eta hau, urte arteko langabezia haziera txikiena izan da azken krisi aldi honen hasieratik. 2008. urtetik krisiak 16.000 pertsona baino gehiago laga ditu lan merkatutik kanpo.

Langabetu proportzio handiena erakusten duen multzoa 35 eta 44 urte bitarteko adin taldea da (8.531 pertsona, % 27,5). Ondoren datoz 45 eta 54 urte bitartekoak (7.983, % 25,7), eta atzetik 25 eta 34 urte bitartekoak (6.508, % 21,0).

Urte arteko datuei begira, herritar gazteenen adin tartea dira murrizten ikusi dutenak langabezian erregistraturiko pertsona kopurua: -% 6,9 16 eta 24 urte bitartekoen artean, eta -% 3,3 25 eta 34 urte bitartekoak. Emaiza txarrenak adinduenendakoak dira: 35 eta 44 urte bitartekoen taldean langabezia erre-

Populazio langabetu erregistratuaren bilakaera



Datuak abenduko hilabetei dagozkien urtean-urtean. Iturria: Sepe.

gistratua % 1,0 hazi da; 45 urtetik 54 bitartekoen artean % 1,2; eta azkenik 55 urte eta gehiagokoen artean % 4,0.

Urte honetan langabezian izena emaneko pertsona guztien % 65,9k egin du behar aurretik zerbitzu sektorean (20.460 pertsona). Gainerakoak horrela moduz banatzen dira: Lehen sektorekoak 572 langabetu (guztien % 1,8); Industrian 2.804 langabe erregistratu (% 9,0); Eraikuntzan, 3.574 langabetu (% 11,5); eta aurretik batere lanposturik eduki ez dutenak 3.632 (% 11,7).

2014. urtean hobera egin du langabeziaren joera Industriaren eta Eraikuntzaren sektoreetan, eta % 3,9 eta % 6,4 murriztu da haue-tan langabezia hurrenez hurren. Alderantziz, hazten jarraitu du lan-gabetuen kopuru erregistratuak Lehen sektorean (% 2,9) eta Zer-bitzuetan (% 0,9). Eta beste hainbeste gertatu da aurretik beharrik egin ez dutenen artean, zeintzuetan % 6,6 hazi den langabezia.

2014an langabeziak joera hobia erakutsi du Lanbide Hezike-tako ikasketak zeuzkaten pertsona langabetuen artean, eta % 3,6 jaitسي da hauen kopurua. Aldiz, langabezia igoerak ger-tatu dira bestelako multzoetan, ez oso handiak derrigorrezko ikasketak baino ez dauzkatenen artean (% 0,4) edota batxile-rrekoak (% 0,3), eta nabarmenagoak unibertsitate ikasketak dauzkatenen multzoan (% 3,0).

Krisiaren iraupen luzeak ekarri du berarekin 12.516 pertsona langabetu izatea jada 2 urte baino gehiago daramatenak halako egoeran, aurreko urtean baino % 13,7 gehiago (1.504 pertsona gehiago kopuru absolutuetan). Langabetu hauek gainera, erre-gistratu guztien hamarretik lauko multzoa osatzen dute jada. Hala ere, proportzioak jaitسي egin dira gainerako taldeetan: lan-gabezian 6 hilabete baino gutxiago daramatenen artean % 2,4 jaitسي da langabezia; 6 hilabete eta urtea bitartean daramatenen artean % 6,3 murriztu da; eta langabezian urtea eta 2 urteak bitartean daramatzatenen artean, % 15,4 jausi da.

EAEko beste euskal hiriburu-erri dagokienean, urte arteko alde-raketan, langabezia erregistratua igo egin da Gasteizen (% 0,2), eta jaitسي berriz Donostian (-% 3,6).

Erregistraturiko langabezia jaitسي egin da 34 urtez azpiko hiritarren artean

Población parada registrada

	2013	2014	% 2014/13
Populazio langabetu erregistratua	30.987	31.042	0,2
Andrazkoak	15.670	15.938	1,7
Gizonezkoak	15.317	15.104	-1,4
16-24 urte bitartean	2.006	1.868	-6,9
25-34 urte bitartean	6.729	6.508	-3,3
35-44 urte bitartean	8.449	8.531	1,0
45-54 urte bitartean	7.890	7.983	1,2
55 urte eta gehiagokoak	5.913	6.152	4,0
Lehen sektorea	556	572	2,9
Industria	2.919	2.804	-3,9
Eraikuntza	3.819	3.574	-6,4
Zerbitzuak	20.285	20.460	0,9
Aurretik enplegu barik	3.408	3.632	6,6
Derrigorrezko ikasketak	18.721	18.805	0,4
Batxilerra	3.516	3.525	0,3
Lanbide Hezkuntza	4.518	4.354	-3,6
Unibertsitatea	4.232	4.358	3,0
6 hilabete bitarte	9.383	9.156	-2,4
6 hilabetetik urtebetera	4.460	4.180	-6,3
Urtebetetik 2 urtera	6.132	5.190	-15,4
Bi urtetik gora	11.012	12.516	13,7

Iturria: SEPE. Datuak beti dira abenduko hilabeteetakoak.

Populazio langabetu erregistratua. Hiriburuak

	2013	2014	% 2014/13
Bilbo	30.987	31.042	0,2
Vitoria-Gasteiz	20.991	21.035	0,2
Donostia-San Sebastián	11.193	10.785	-3,6

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

4 MERKATARITZA

Bilboko
Urtekari **2014**
Sozioekonomikoa




Merkataritza jarduerak eta enpresak

Merkataritza jardueraren dinamikotasuna

Soldatapeko enplegua

Familien kontsumoa

Sektorearen salmentak



MERKATARITZA JARDUERAK ETA ENPRESAK

Elikadura, edari eta tabakoarekin zerikusia duten saltokiek lidergoa mantentzen dute lizentzia kopuruan

2014a amaitzean, Bilboko merkataritza sektoreak 8.933 lizentzia aktibo biltzen ditu, hau da, udalerriko enpresa sarearen lau jardueratik bat (% 23,5) merkataritzari dagokio, eta izan ere hau da, zalantza barik, garrantzi handieneko sektore ekonomikoa hirian.

Txikizkako merkataritza alorrak hartzen du merkataritza jardueren % 78,1 (6.976 lizentzia guztira), eta aldiz, handizkako azpisektoreari dagokio gainerako % 21,9a.

Merkataritza jardueren kopuruak % 2,1 haziera izan zuen 2014an, hau da, 180 lizentzia aktibo gehiago. Hazkunde hau, bietan eman zen, txikizkako merkataritzan (% 1,9; 128 lizentzia gehiago), zelan handizkakoan (% 2,7; 52 gehiago).

Duten garrantziagatik nabarmentzekoak dira, txikizkako merkatartitzan, elikadura, edari eta tabakoarekin zerikusia duten saltokiak (2.139 aktibo), oihala eta oinetakoenak (1.359) eta etxeko hornikuntza eta eraikuntzarekin loturikoak (958). Lehenek gorakako joera indartu dute 47 lizentzia gehituta, eta oihala eta oinetakoen alorrekin zerikusia dutenek berriz, 35 lizentzia berri batu dituzte. Etxeko hornikuntza eta eraikuntzakoak jaitsi egin dira 2014an zehar eta 21 jarduera gutxiago erakutsi.


Urte artekoan hazten diren gainerako jardueren artean, nabarmentzeko modukoak dira medikuntzako tresneria eta ortopediak eskaintzen dituzten jarduerak (% 7,9), lurreko ibilgailuen salmenta (% 7,5) eta edergintza, farmazia eta drogeria produktuak (% 5,1). Alderantziz, altzariak eta bulegoen hornikuntza komertzializatzen dituzten saltokiek, eta etxeko hornikuntza eta eraikuntzakoek, 7 eta 21 lizentzia galdu dituzte, hurrenez hurren.

Handizkako merkataritzari dagokionean, industria-arteko merkataritza da lizentzia gehien biltzen dituen (430), eta ondoren datoz merkataritza bitartekariak (345) eta nekazaritzako lehengaiak (335). 2014an garapen handiena izan dutenak farmazia eta etxerako produktuak izan dira (% 11,0; 12 lizentzia gehiago), eta merkataritza bitartekariak (% 9,9; 31 lizentzia gehiago).

Merkataritza jarduerak

	2013	2014	Aktiboen saldoa	% 2014/13
Merkataritza jarduerak	8.753	8.933	180	2,1
Txikizkako merkataritza	6.848	6.976	128	1,9
Elikadura, edariak, tabakoa	2.092	2.139	47	2,2
Oihala eta oinetakoak	1.324	1.359	35	2,6
Farmazia, edergintza eta drogeria prod.	490	515	25	5,1
Etxe tresneria eta eraikuntza	979	958	-21	-2,1
Saltoki handiak, bazarrak	208	217	9	4,3
Altzariak, bulegoen hornikuntza	182	175	-7	-3,8
Liburuak, egunkariak	373	367	-6	-1,6
Bitxiteria	183	180	-3	-1,6
Jostailuak, kirol gaiak	126	129	3	2,4
Medikuntza tresneria, ortopedia	126	136	10	7,9
Loradenda eta antzeko	86	86	0	0,0
Saltokiz kanpoko salmenta	234	239	5	2,1
Lurreko ibilgailuen salmenta	281	302	21	7,5
Gainerakoa	164	174	10	6,1
Handizkako merkataritza	1.905	1.957	52	2,7
Nekazaritzako lehengaiak	328	335	7	2,1
Oihalak, jantzigintza, etab	117	119	2	1,7
Farmazia eta etxerako produktuak	109	121	12	11,0
Epe luzeko kontsumo ondasunak	288	288	0	0,0
Industria arteko merkataritza	439	430	-9	-2,1
Bestelako handizkako merkataritza	243	249	6	2,5
Ekoizkinen berreskuratzea	67	70	3	4,5
Merkataritza bitartekariak	314	345	31	9,9

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.



MERKATARITZA JARDUERAK ETA ENPRESAK

Soldatapeko beharginak dituzten merkataritza enpresak % 2,8 gutxiago izan dira

Gizarte segurantzaren izena emandako merkataritza enpresen kopurua ere hazi egin da, kasu honetan % 1,4, eta 2.955 enpresatara iritsi da (40 enpresa gehiago). Merkataritza enpresen sarean ere hobekuntza jazo da, hala txikizkako merkataritzaren jardueran, zein handizkakoarenean. 2014 urtea amaitzean, soldatapeko beharginak dituzten txikizkako enpresen kopurua 1.989koa da, aurreko urtean baino 38 gehiago (% 1,9). Eta handizkako merkataritzan berriz, 746 zenbatu dira, % 0,9ko hazkunde portzentualez (guztira 7 enpresa gehiago).

Azkenik, ibilgailu motordunen salmenta eta konponketaren azpisektoreko enpresak 220 izan dira aurreko urtean baino 5 gutxiago (% -2,2).

Merkataritza sektoreko autonomoei dagokienez, 2014, urtea amaitzean 6.277 dira Gizarte Segurantzako erregimen honetan izena emanda dauden hiriko biztanleak. Urtean zehar hazi egin da multzo hau, 31 enpresa berriz (% 0,5). Azpisektore biek, txikizkakoak eta handizkakoak, erakutsi dute joera baikorra. Hala, txikizkako banaketan dihardutenak hazi egin dira 11 kide berri gehituta (% 0,3), eta handizkako banaketan dabiltzanek berriz 26 pertsona gehitu dituzte (% 1,6). Alderantziz, ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa jarduerak % 1,3ko jaitsiera jasan zuen (6 enplegatu autonomo gutxiago).

Soldatapeko behargindun enpresak


	2013	2014	% 2014/13
Soldatapeko behargindun enpresak	2.915	2.955	1,4
Txikizkako merkataritza	1.951	1.989	1,9
Handizkako merkataritza	739	746	0,9
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	225	220	-2,2

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Autonomoen Erregimen Berezian erregistraturiko enplegatuak. Merkataritza

	2013	2014	% 2014/13
Autonomoen E. Berezian erregistraturikoak	6.246	6.277	0,5
Txikizkako merkataritza	4.187	4.198	0,3
Handizkako merkataritza	1.605	1.631	1,6
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	454	448	-1,3

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.



MERKATARITZA JARDUERAREN DINAMIKOTASUNA

Txikizkako merkataritzako izen emateak % 3,1 igo dira, eta handizkakoak % 10,7

2014. urtean zehar, 1.096 izen emate berri erregistratu dira guztira, eta honek % 3,1eko igoera erakusten du aurreko urtearen aldean. Handizkako merkataritzako jardueretan izen emate kopurua 237ra heldu da, eta % 15,0 hazi ala 2013. urtearen aldean.

Elikadura, edari eta tabako saltokiek bildu dute hiru izen emate berritik bat (384), urte arteko % 0,8ko jaitsiera txiki bat jasanik. Ondoren datozkio, talde nabarmenen legez, oihal eta oinetako saltokiak (194), etxeko hornikuntza eta eraikuntzakoa (128 izen emate berri), eta saltokiz kanpo jazoriko merkataritza (88 izen emate berri).

Azpimarratzekoa da medikuntzako tresneria, ortopedia, optika, eta argazkigintzako saltokien lizentziek erakutsi duten hazkunde portzentuala (% 280). Jarraian datozkio lurreko, aireko eta itsasoko ibilgailuen saltokiak (% 42,4) eta oihal eta oinetakoenak (% 14,1). Alderantziz, behera egin dute izen emate berriek loradenda eta antzekoetan (% -55,0), altzari eta bulegoen hornikuntzakoenean (% -45), eta liburu eta egunkarienean (% -20,5).

Izen emateak merkataritza jardueretan

	2013	2014	% 2014/13
Txikizkako merkataritza jardueretako erregistroak (kop.)	1.063	1.096	3,1
Elikadura, edariak, tabakoa	387	384	-0,8
Oihal eta oinetakoak	170	194	14,1
Farmazia, edergintza eta drogeria prod.	59	67	13,6
Etxe tresneria eta eraikuntza	117	128	9,4
Altzariak, bulegoen hornikuntza	20	11	-45,0
Liburuak, egunkariak...	44	35	-20,5
Bitxiteria	26	20	-23,1
Jostailuak eta kirol gaiak	14	15	7,1
Medikuntza tresneria, ortopedia	5	19	280,0
Loradenda eta antzeko	20	9	-55,0
Lur, aire eta itsasoko ibilgailuak	33	47	42,4
Saltoki handiak, bazarrak	40	42	5,0
Saltokiz kanpoko salmenta	91	88	-3,3
Gainerakoa	37	37	0,0
Handizkako merkataritza jardueretako erregistroak (kop.)	206	237	15,0
Handizkako merkataritza	163	160	-1,8
Nekazaritzako lehengaiak	45	40	-11,1
Oihalak, jantzigintza etab.	15	18	20,0
Farmazia produktuak eta etxerakoak	18	16	-11,1
Epe luzeko kontsumo ondasunak	20	23	15,0
Industria arteko merkataritza	33	33	0,0
Bestelako handizkako merkataritza	32	30	-6,3
Ekoizkinen berreskuratzea	11	10	-9,1
Merkataritza bitartekariak	32	67	109,4

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Ekonomia jardueren gaineko zerga.

SOLDATAPEKO ENPLEGUA

Merkataritza sektorean izen emaniko pertsonen kopurua % 0,4 hazi da Bilbon

Merkataritza da Bilbon pertsona gehien enplegatzen duen sektorea. 2014. urte amaieran, Gizarte Segurantzaren izena emaniko pertsonen kopurua 20.939koa izan zen merkataritza enpresen sektorean. Kopuru hau hiriko enplegu osoaren % 12,6 da, eta azken urteetako jardunaren garrantzia mantendu du.

Bertoko ekonomian igartzen den joera aldaketa merkataritza nabaria gertatu da ere eremuko enpleguan, kontuan izanik sektoreko afiliatu kopuruak % 0,4ko hazkunde txiki bat erakutsi duela 2014an (78 soldatapeko pertsona gehiago), eta hala, azken urteetako beherakako norabidea apurtu. Hobekuntza hau, hala ere, txikizkako merkataritzako enpleguak erakutsi duen portaera positiboak azaltzen du, ze, handizkako merkataritzako enpleguak eta ibilgailuen salmenta eta konponketakoak jaitsierak jasan dituzte.


Txikizkako merkataritzak biltzen du merkataritza guztiko enpleguaren % 68,3 (14.301 pertsona), handizkakoak % 25,1 (5.252 pertsona), eta gainerako % 6,6a ibilgailu motordunen salmenta eta konponketak.

Enplegu sorkuntza antzekoa da kotizazio erregimen bietan, eta hazkunde txikiak erakusten dituzte, bai soldatapeko beharginen artean, zelan Behargin Autonomoen Erregimen Berezian izen emandakoen artean ere. Lehen multzokoen hobekuntza % 0,3koa da, eta aurreko urtean baino 47 pertsona gehiago dauzka; autonomoen kasuan berriaz, hobekuntza % 0,5ekoa da, 31 pertsona gehiagoz.

Pertsona enpleguak

	2013	2014	% 2014/13
Pertsona enpleguak	20.861	20.939	0,4
Txikizkako merkataritza	14.105	14.301	1,4
Handizkako merkataritza	5.347	5.252	-1,8
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.409	1.386	-1,6
Soldatapeko beharginak	14.615	14.662	0,3
Behargin autonomoak	6.246	6.277	0,5

Fuente: Ministerio de Empleo y Seguridad Social.



FAMILIETAKO KONTSUMOA

2014an, euskal familien kontsumoa aurreko jardunean baino bizkorrago jaitsi da (% -2,7; 2013ko % -1,3aren aldean), Eustatek argitaraturiko azken datuen arabera. Eskariaren ahulezia zuzenean igaro da merkataritza sektorera, eta ondorioz, txikizkako merkataritzaren salmentak % 0,64ko jaitsiera jasan du Bizkain. Fenomenoa azaltzeko ulertu behar da Bizkaiko familien kontsumorako lau eurotik batek (% 24,9) merkataritza saltokiak dituela helmuga. Emaita kaxkarra izanik ere, ez da 2013an eman zen % -1,26, hura bezain txarra izan.

Aurreko urtearen aldean ehuneko 0,5 puntu jaitsi baditu ere, etxebizitzak dakarren gastua da garrantzitsuena banaketan, gastu kopuru guztiaren % 35,2 hartzen du eta. Ondoretik datozkio garrantzian elikagai eta alkoholik gabeko edarien gas-tua (% 13,8) eta ostalaritzakoa (% 10,0). Bestalde, garrantzi handiagoa hartu du garraiora bideratutako aurrekontua za-tiak, 2013ko % 8,4tik, % 9,7ra igarota 2014an. Joera bera ja-rraitzen du aisialdi, emanaldi eta kulturari eskainitako gastuak ere, eta % 5,6an kokatzen da.

Gastuaren egitura jantzi eta oinetakoak erosten erabili-tako ehunekoak osatzen du (% 5), etxeko tresneriarenak (% 4,4), osasunarenak (% 2,6), eta edari alkoholik eta tabakoarenak, eta irakaskuntzarenak (% 1,7 kasu bie-tan). Gainerakoa, bestelako ondasun eta zerbitzuetan erabiltzen da (% 7,7).

Kontsumo adierazleak


	% 2013/2012	% 2014/2013
Euskadiko familien kontsumoa	-1,3	-2,7
Txikizkako merkataritzaren salmenta indizea	-1,26	-0,64
Kontsumo salneurriak	0,57	-0,76

Bizkaiko datuak, familien kontsumoak izan ezik (hauek Euskadikoak).
Iturria: Eustat. Familien gastuaren bilakaera.

Familietko kontsumo gastuaren egitura

	2013	2014
Orokorra	100,0	100,0
Elikagaiak eta edari ez alkoholik	14,0	13,8
Edari alkoholik eta tabakoa	1,8	1,7
Jantzi eta oinetakoak	5,4	5,0
Etxebizitza, ura, argindarra, gasa eta bestelako erregaiak	35,7	35,2
Altzariak, etxeko tresneria eta ohiko kontserbazio gastuak	4,6	4,4
Osasuna	2,9	2,6
Garraioa	8,4	9,7
Komunikazioak	2,8	2,6
Aisialdia, emanaldiak eta kultura	5,3	5,6
Irakaskuntza	1,5	1,7
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	9,6	10,0
Bestelako ondasun eta zerbitzuak	8,0	7,7

Bizkaiko datuak. KPiren kopuruak %tan.
Iturria: Eustat. Familien gastuaren bilakaera.



SEKTOREAREN
SALMENTAK

Bizkaiko merkataritza sektoreko salmenten adierazlea % 0,6 hazi da 2014. urtean. Eraitza hau baikortzat hartu daiteke aurreko urteetan jasan duen beheranzko joera apurtzen duen neurrian. Datu positiboa handizkako merkataritzari dagokio, zeinak % 0,4 irabazi duen, txikizkakoak % 0,4 galdu duen bitartean.

Txikizkako merkataritzaren portaera aztertuz, ezberdintasun handia igarri daiteke elikagaien salmentaren eta gainerako produktuenaren artean. Lehena % 4,1 jaitsi da, eta azkenak berriz % 3,1 hazi. Saltoki handietan ere salmentek ez dituzte datu onak erakutsi 2014an, eta izan ere, elikagaien salmenta % 4,0 erori da, eta gainerakoa berriz % 0,2 baino hazi ez.

Bizkaiko merkataritza sektorean enplegatutako herritar kopuruak lehendik zekarren joera negatiboa jarraitu du, eta urte arteko -1,9ko bariazio negatiboa izan du.

Merkataritza sektorearen salmentak

	2013	2014	% 2014/13
Salmenta indizea	92,5	93,0	0,6
Txikizkako merkataritza	94,3	94,0	-0,4
Elikadura	96,6	92,7	-4,1
Gainerako produktuak	91,1	93,9	3,1
Handizkako merkataritza	92,6	92,9	0,4
Saltoki handiak	95,5	94,4	-1,1
Elikadura	102,7	98,6	-4,0
Gainerako produktuak	92,4	92,6	0,2

Iturria: EUSTAT.

Ibilgailuen matrikulazioa

	2013	2014	% 2014/13
Partikularrak	10.381	12.153	17,1
Enpresak	3.230	3.235	0,2
Bestelakoak	246	296	20,3
GUZTIRA	13.857	15.684	13,2

Fuente: Faconauto.

5 TURISMOA

Bilboko
Urtekari **2014**
Sozioekonomikoa



Turismo jarduera

Turismo jarduera Bilbon

Bidaiari sarrera, jatorria eta igarotako gauak

Itsas bidai aldietako turismoa

Biltzar eta bileretako turismoa

Turismo jarduera

Turismo jarduera Bilbon

Bidaia sarrera, jatorria eta igarotako gauak

Itsas bidai aldietako turismoa

Biltzar eta bileretako turismoa

TURISMO JARDUERA

2014an murriztu
egin zen kategoria
txikieneko hotel
eskaintza.

Turismo jarduera Bilbon

2014. urtean Bilbok 69 establezimenduren hotel eskaintza eduki du, tartean 23 hotel 3 izar edo gehiagokoak, eta beste 46 hotel eta ostatu, izar bat edo bikoak, betiere Eustat - Euskal Estatistika Erakundeak lantzen duen ETH - Establezimendu Turistiko Hartzaileen inkestaren arabera.

Hotel eskaintza honek esan gura du hiriak egunero 3.975 logela eta 7.616 toki eskaini dituela. Hauetako % 80 izan dira gainera kategoriatuenerako segmentuari dagozkionak, 3 eta izar gehiagokoak. Hotel establezimendu hauen tamaina, batez beste, 110 plazatakoa da, baina batez besteko hau 266 lolekutara ere igotzen da 3, 4 eta 5 izarretako hotelen artean; aldiz 32 lolekutara murrizten izar bateko edo biko hotel eta ostatueta.

Hiribilduak zertxobait murriztu du eskaintza aurreko urtekoaren aldean, 3 establezimendu galdu ditu-eta kategoriatuenerako hotel eta ostatuaren artean. Edozelan, eguneko eskaintako plaza kopuruak 88 loleku irabazi ditu (% 1,17 gehiago), hain zuzen 3 eta izar gehiagoko hotelek eragina, bada izar bat eta bikoaren artean, kasu honetan ere murriztu egin da eskaintza. Era berean hazi da logela kopurua ere, eta 59 gehiago ditugu egun.

Egoera ekonomikoa pixkanaka erakusten hasi den berpizteak eta turismoaren kopuru hobetzeak bere isla izan dute hirian ostatu sektoreko jardun ekonomikoek bereganaturiko lizentzia kopuruan, % 6,1 hazi dena, eta 2013ko 99tik igaro 2014ko 105era.

Azken urte honek ikusi du ere hotel eta moteletako lizentzia kopurua 36tik 38ra igaro dela (% 5,6ko hazkunde), eta ostatu eta apopilo egoitzetan berriz 42tik 46ra (% 9,5 gehiago). Berriz, lizentzia bat galtzen da ostatu-fonden kategorian, eta 12ren orde 11 dira. Bestelako kategoriako ostatu lizentziak ere hazi egin dira zertxobait, eta 9tik 10era pasa.

Hotel egoitzen eskaintza

	2013	2014	% 2014/13
Establezimenduak denera	72	69	- 4,17
3, 4 eta 5 izarretako hotelak	23	23	0,00
Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatuak	49	46	- 6,12
Eguneko loleku eskaintza, denera	7.528	7.616	1,17
3, 4 eta 5 izarretako hotelak	5.945	6.124	3,01
Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatuak	1.582	1.492	- 5,70
Eguneko logelak denera	3.916	3.975	1,04
3, 4 eta 5 izarretako hotelak	3.042	3.143	2,58
Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatuak	874	832	- 4,22

Iturria: Eustat.

Ostatatze jarduerak (lizentziak)

	2013	2014	% 2014/13
Ostatatze lizentziak guztira	99	105	6,1
Hotelak eta motelak	36	38	5,6
Ostatu eta apopilo egoitzak	42	46	9,5
Ostatu-fondak	12	11	- 8,3
Bestelakoak	9	10	11,1

Datuak laugarren hiruhilekoari dagozkio.

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia (Ekonomia Jardueren gaineko Zerga).



TURISMO JARDUERA

Bidaia sarrera, jatorria eta igarotako gau kopuruak

Bidaia sarrera

Ostatu establezimenduek sendotu egin dute beren jarduera, bai bidaia sarreretan, zein igarotako gau kopuruan

2014. urteak balantze positiboa utzi digu Bilboko ostatu establezimenduen jardura datuetan aurreko urtekoen aldean. Izan ere, dena 742.445 bidaia sarrera izan dira eta 1.443.407 gau igarotak, eta kopuruak urte arteko % 1,7 eta % 5,3ko hazkundera erakusten dute hurrenez hurren. Egoera honek baieztatu egiten du azken urteetako hazkunde joera.

Hain justu azken 13 urteetan Bilbok ia-ia bikoiztea lortu du hiria bisitatzen duen bidaia kopurua, eta guztiz berresten du hiriaren barne indar itzela turismoaren jomuga bihurtzeko.

Jatorria


Espainiako estatua da Bilbora iristen diren turisten emaitza handiena

2014. urtean barrena, Bilboko hotel establezimenduetan ostatu hartu zuten turista guztien % 58,6k zuen beren jatorria Espainiako estatuan. Gainera, aurreko urtean izandakoak baino % 0,5 gehiago izan dira, guztira 434.861 bidaia.

Nabarmentzekoak dira Madrilgo Erkidegotik etorritakoak, hauek jarraitzen dute-eta ugariak izaten eta Espainiako estatutiko sarreraren laurdena dira (% 25,4), EAETik datozenak baino ere ugariagoak (% 17,9), edo Kataluniatik (% 14,2) eta Andaluziatik (% 9,5).

2014. urtean barrena Espainiako estatutiko bidaiarien kopurua, zein Espainiaz kanpokoena hazi da, azken hauek hazkunde tasa handiagoa erakutsi baldin badute ere. Lehenengoan artean, 434.861 bidaia izan dira (2.112 gehiago 2013an baino). Bigarrenak berriz % 3,6ko kopuruan hazi dira, 307.584 bidaia izan arte. Azken hauen artean, jatorri herrialde nagusia Frantzia da zailantza gabe (guztien % 21,2), oso aurretik Alemaniaren aldean (% 9,6), edo Erresuma Batua (% 9,2) edota AEBak (% 7,2).

Bidaia sarreraren bilakaera (*)



(*) Zuzendu egin dira 2011, 2012 eta 2013 urteei dagozkien datuak Eustatek bere Establezimendu Turistiko Hartzaileen inkesta garatzeko ezarri dituen aldaketarekin metodologikoen ondorio, eta hauek izan duten eraginarengatik informazio bilketan, zein azken emaitzetan. Iturria: Eustat.

Bidaia sarrerak, jatorriaren arabera

	2013	2014	% 2014/13
Bidaia sarrerak	729.715	742.445	1,7
Estatukoak	432.749	434.861	0,5
Estatuz kanpokoak	296.966	307.584	3,6

Iturria: Eustat

Bidaia merkatu emankorrenak (2014)

Espainiako estatua		Estatuz kanpokoak	
Madril	25,4%	Frantzia	% 21,2
EAE	17,9%	Alemania	% 9,6
Katalunia	14,2%	Erresuma Batua	% 9,2
Andaluzia	9,5%	AEB	% 7,2
Gainerakoak	33,0%	Italia	% 7,1
		Gainerakoak	% 45,7

Fuente: Eustat.

1. Biztanleria
4. Merkataritza
7. Kultura eta kirola

2. Ekonomia eta enpresa
- 5. Turismoa**
8. Etxebizitza

3. Lan merkatua
6. Informazioaren eta berrikuntzaren gizartea
9. Garraioa eta ingurumena

Turismo jarduera

Turismo jarduera Bilbon
Bidaia sarrera, jatorria eta igarotako gauak
Itsas bidai aldietako turismoa

Biltzar eta bileretako turismoa

TURISMO JARDUERA

Bidaia sarrera, jatorria eta igarotako gau kopuruak

Igarotako gauak


Igarotako 10 gautatik 8 izan dira 3 eta izar
gehiagoko hoteletan

2014. urtean barrena Bilboko hotel establezimenduetan igarotako gau kopurua 1.443.407koa izan da, eta bolumen honek % 5,3ko irabazia erakusten du aurreko urteko kopuruen aldean (zenbaki absolutuetan 72.238 gau igarotze gehiago). Guztiztatik, 832.820 gau igarotze dagozkie Espainiako estatu barruko bidaiariei, eta beste 610.587 berriz estatuz kanpokoei. Edozelan, azpimarragarria da zelan azken hauek askoz ere gau igarotze haziera nabarmenagoa erakutsi duten urte honetan (% 7,1), Espainiako estatukoek baino (% 3,9).

Bilbon ostatu hartu duten bidaiarien batez besteko egonaldia 1,94 egunekoa izan da, aurreko urtekoa baino luzexeagoa, orduan 1,88koa baino ez zen-eta izan. Espainiako estatuz kanpoko bisitariak dira beren egonaldia gehiago luzatzen dutenak gure hirian, batez beste 1,99 egun. Espainiako estatukoek batez bestekoa berriz 1,92 egunekoa da. Lolekuen okupazio tasa ere igo egin zen 2014an, eta % 51,9koa izan zen.

Hotel establezimendu desberdinen kategoria kontuan, jabetuko gara 3, 4 eta 5 izarretako hotelek bereganatu dituztela 2014. urte guztian aurrera izaniko gau igarotzeen % 80,2. Gainera kategoria honetako hoteletan nabarmendu da batez ere gau igaroen hazkundeak, % 6,2ko haziera erakusten dute, kategoria txikiagoko ostatu eta apopilo egoitzek erakutsitako % 1,5eko hazkundearen aldean.

Bidaiariak igarotako gau kopuruen bilakaera (*)



(*)Zuzendu egin dira 2011, 2012 eta 2013 urteei dagozkien datuak Eustatek bere Establezimendu Turistiko Hartzaileen inkesta garatzeko ezarri dituen aldaketak metodologikoen ondorio, eta hauek izan duten eraginarengatik informazio bilketan, zein azken emaitzetan.

Iturria: Eustat.

2014. urtean barrena, EAEko hiru hiriburuen artean, Bilbo nabarmendu da nagusi eta berak jarraitu du gau igarotze guztien ia erdia biltzen (% 48,8). Gasteizen emaitzak ere ohargarriak izan dira, bertako sarrera kopuruaren hazkunde handia izan den neurrian (% 9,7), nahiz gau igarotzeak ez diren horrenbeste hazi (% 2,7). Edozelan ere hiruren artean Donostia da balantze hoberena erakusten duena, eta hazkunde nabarmenak, bai sarrera kopuruetan (% 6,1), zelan igarotako gau kopuruetan (% 5,2).

Batez besteko egonaldia eta lelekuen okupazio tasa

	2013	2014	% 2014/13
Batez besteko egonaldia	1,88	1,94	3,2
Okupazio tasa (%)	49,9%	51,9%	2,00 pp

Iturria: Eustat.

Bidaiariak igarotako gauak, jatorriaren arabera

	2013	2014	% 2014/13
Bidaiariak igarotako gauak	1.371.169	1.443.407	5,3
Espainiako estatukoak	801.220	832.820	3,9
Estatuz kanpokoak	569.949	610.587	7,1
3, 4 eta 5 izarretako hotelak	1.090.298	1.158.307	6,2
Izar 1 eta 2ko ostatu eta egoitzak	280.871	285.100	1,5

Iturria: Eustat.

Bidaia sarrerak eta igarotako gauak hiru hiriburu eta hotel egoitzetan

	2013	2014	% 2014/13
Bidaia sarrerak EAEko hiriburu eta hotel egoitzetan	1.461.696	1.527.689	4,5
Gasteiz	239.058	262.287	9,7
Donostia	492.923	522.957	6,1
Bilbo	729.715	742.445	1,7
Igarotako gauak EAEko hiriburu eta hotel egoitzetan	2.823.864	2.959.753	4,8
Gasteiz	465.486	478.187	2,7
Donostia	987.209	1.038.159	5,2
Bilbo	1.371.169	1.443.407	5,3

Iturria: Eustat.

- 1. Biztanleria
- 4. Merkataritza
- 7. Kultura eta kirola

- 2. Ekonomia eta enpresa
- 5. Turismoa**
- 8. Etxebizitza

- 3. Lan merkatua
- 6. Informazioaren eta berrikuntzaren gizartea
- 9. Garraioa eta ingurumena

Turismo jarduera

Turismo jarduera Bilbon
Bidaieri sarrera, jatorria eta igarotako gauak
Itsas bidai aldietako turismoa

Biltzar eta bileretako turismoa

TURISMO JARDUERA

Itsas bidai aldietako turismoa

Gurutzaldi bidaiei loturiko
jarduna berreskuratu egin
da 2014an

Itsas gurutzaldiei lotutako jarduera turistikoak 58 porturatzez itxi zuen 2014. urtea, eta guztira, 80.161 bisitari ekarri. Datu hauek % 31,8ko hazkundera erakusten dute gurutzaldien kopuruari dagokionean, eta % 43,1ekoa berriz bidaarienean 2013ko datuen aldean. Hala berreskuratu dira hiru urte lehenagoko kopuruak.

Itsas gurutzaldien jarduera

	2013	2014	% 2014/13
Gurutzaldiak	44	58	31,8
Gurutzaldietako bidaariak	56.004	80.161	43,1

Iturria: Bilboko Portua.

Turismo jarduera

Turismo jarduera Bilbon

Bidaia sarrera, jatorria eta igarotako gauak

Itsas bidai aldietako turismoa

Biltzar eta bileretako turismoa

BILTZAR ETA BILERETAKO TURISMOA

Negoio turismoa % 4,9 piztu da 2013.
urtearen aldean

2014. urtean zehar 1.064 bilera burutu ziren Bilbon, Bilbao Convention Bureau-k eskainiriko datuen arabera, 50 gehiago hala, 2013an izanikoak baino. Jardunaldi motakoak izan dira 2014an buruturiko bilera hauetako % 85, % 20,2 gehiago aurreko urtekoen aldean (152 gehiago). Gainera, pisua irabazi dute sektorearen jardunean, 10,8 puntu portzentual. Batzar eta konbentzioek beriz alderantzizko joera erakutsi dute, % 11,0 eta % 53,5ean jausi dira eta, hurrenez hurren 81 eta 80 bilkura gutxiago elkartuta.

Bilbon batzarrak, konbentzioak eta jardunaldiak antolatu dituzten sektoreak batez ere osasungintza eta medikuntza arloarekin loturiko jarduerak dituztenak izan dira (% 22,7), teknologiarekin (% 20,4) eta ekonomiko-komertzialekin (% 18,8). Gainerakoak beste bi sektoretan banatzen dira gehienbat, batetik gizarte arloarekin lotutako bilkurak (% 12,6), eta bestetik unibertsitatearekin (% 11,7).

Gure hiriburuak dena 186.130 ordezkari eta parte hartzaile bildu ditu azken urtean burutu diren bileretan, askoz emaitza ikusgarriagoa 2013koa baino, guztira 41.008

batzarkide gehiago ekarri dituen hiriburura (% 28,3 gehiago).

Bilkuren batez besteko iraupena 2014. urtean 1,71 egunekoa izan da hala ere, 2013. urtean baino % 7,1 laburragoa.

Bere aldetik negozio turismoak oso urte sasoi markatuak erakutsi ohi ditu beti, eta 2014. urtean martxoko, apiril, maiatz, ekain, urri eta azaroko hilabeteek bildu dituzte Bilboko hirian burututako bilkura gehienak (741 zenbaki absolutuetan). Uztail edo abuztuan burututakoak beriz nekez iritsi dira guztien % 4 izatera.


Hala ere, aisialdi turismoaren portaerak orekatu ohi du joera hori, azken honek hiribildura dakarren turista multzoa batez ere biltzen denez beselako bilkuren jarduna jaisten den hilabeteetan hain zuzen, ondoko grafikoan ikusi genezakeen moduan, urte sasoiak kontuan.

Batzar eta bilerak

	2013	2014	% 2014/13
Bilkurak	1.014	1.064	4,9
Batzarrak	91	81	- 11,0
Konbentzioak	172	80	- 53,5
Jardunaldiak	751	903	20,2
Parte hartzaileak	145.122	186.130	28,3
Batez besteko iraupena (egunak)	1,84	1,71	- 7,1


Fuente: Bilbao Convention Bureau.

Bilkuretako ordezkarien bilakaera



Iturria: Bilbao Convention Bureau.

Bilkura eta ohiko turismoa Bilbon urte sasoiaren alderatuak



Iturria: Bilbao Convention Bureau. Eustat.

6 INFORMAZIOAREN ETA BERRIKUNTZAREN GIZARTEA

Bilboko
Urtekari **2014**
Sozioekonomikoa



Informazioaren gizartea Bilbon

Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Enpresa eta profesionalen ezagutza jarduera trinkoak

Unibertsitatea ikerketa iturri.

Informazioaren gizartea eta enpresak

Informazioaren gizartea eta familiak

Orain dela bi hamarkadetatik berrikuntza denondako bihurtu da gero eta garrantzi handiagoko kontua, hala enpresen lehiakortasuna hobetzeko, edo hiri eta eskualdeetako, zein bertako biztanle on gizarte maila altxatzeko, alor guztietan.

Gainera gero eta nabarmenagoa gertatzen da jada ekonomiaren isuria hirugarren sektorerantz, eta honen etengabeko espezializazioa ezagutza intentsiboagoa eta lan prestakuntza handiagoa eskatzen duten sektoreetarantz, baita interes gero eta biziagoa ere ekoizpen prozesuei balioa erantsiko dieten jardunen inguruan, aldi berean ingurumen kalte txikiagoak eraginez.

Bide honetan Bilbok ulertu du ezinbestekoa dela proiektu berritzaileak diseinatzea hiriaren eta metropoli osoaren etorkizunerako, jakinaren gainean izanik betiere, beste hiri asko dituen mundu batean lehiatzen garela, eta agertoki hur honek aldi berean eskaintzen digula aukera, zein erronka. Horregatik saiatuko gara dauzkagun enpresak mantendu eta indartzeaz gainera, beste hainbat erakartzen, oso bereziki orain suspertzen dabiltzan sektore dinamikoenetara, eta hauetarako beharrezkoa den giza jeinua eta kapitala sortuz, honi eutsiz eta hura erakarriz. Horregatik dabil gure hiria estrategia berezia abiarazten hirian ekonomia ireki eta berritzailea sustatzeko. Azken urtean aurrera udalerrian gauzatutako ekimenetako batzuk izan dira ondokoak:

People Olympics proiektua. Gizarte ekimen berritzailea, plataforma teknologiko berria darabilelarik biztanle on parte hartze eta ongizatean sakontzeko asmoa duena, azken batean gure jarduera kolektiboetan aldaketak lortzeko jomugaz, pertsonon bizimodua hobetze aldera, aldi berean denok ere jokamolde aktibo eta osasuntsuagoak geureganatzen ditugun bitartean.


Bilbao Fashion Tech Lab. Lankidetzatza proiektu berezia da hau, Maker mugimenduko teknologoaren eta modaren sektoreko enpresen artekoa. Artearen eta teknologiaren arteko hibridazioa, teknologia wearable-ak (jantziak bertan gainean eramangarriak direnak) aztertzeak aukera ematen duena, eta berrikuntzaren eta proiektu berrien bidea ireki liezagukeena.

Auzofactory. BilbaoEkintza erakundeak sortutako proiektua da Bilboko udalerrirako, bertako auzoetan ekimen ekonomikoak sortzeko jomugaz, oso bereziki ezagutza eta teknologian intentsiboak izan litezkeen enpresa aukerak bultzatuz, eta hauen euskarri fisiko baliatuz, batez beste edo bestez beste, auzoetan jada erabiltzeari utzitako eraikitzen birgaitzea.


iBilbao 2020. Hauxe da Bilboko Espezializazio Adimentsuaren Berrikuntza Estrategia, saiakera paregabea guretako, European Bilbo izan dugunez aurreneko hirietakoa kera honetako estrategiak diseinatzen tokian tokirako, eta horretarako lurraldearen aktiboak eta honen aparteko ezaugarri bereziak identifikatuz, lurraldearen lehiakortasun abantailak azpimarratuz, eta ekimen guztiaren inguru beharrezko eragileak eta baliabideak bilduz gure etorkizunaren irudikapen bateratu baten inguruan.

Ikerketa, garapen eta berrikuntzari dagokienean, Europako Berrikuntzako Adierazleen Panelak -IUS 2015-, Europar Batasuneko herrialdeak sailkatzen ditu hauekiko ekonomiek darakusten berrikuntza gaitasunaren arabera eta benetan garatzen dituzten berrikuntza ekimenei begira. Euskal AE, EBko 13. postuan kokatzen du, Espainiako estatua baino hainbat gaitasun berritzaile indartsuagoz, baina EB28koen batez bestekoaren azpitik hala ere.

Europako Berrikuntza Panela, IUS 2015. Euskal AE eta EB-28



Iturria: Eustat (2015eko ekainean argitaratua).



INFORMAZIOAREN GIZARTEA BILBON

Informazioaren gizartea eta enpresak

Internetarako barnera bideak aurrera jarraitzen du Bilboko enpresetan eta daborduko iritsi da enpresa bilbotarren % 84,7ra ere, eta honek ehuneko 3,2 punturen gorakada erakusten du 2013. urtekoaren aldean. Enpresa handienen kasuan berriz (hamar behargin edo gehiago dauzkatenetan), Internet sarerako sarbidearen neurria % 98,3koa da.

Banda zabala da Interneteko konexiorako modurik erabiliena. Hain zuzen udalerrian 2014an, Internet sarerako sarbidea daukaten enpresen % 79,2 lotzen da ADSLren bidez (hamar edo enplegatu gehiagoko enpresen kasuan berriz % 80,2 dira). Hala eta guztiz ere, halako konexioen murriztea nabari da pixkanaka azken urteetakoaren aldean, betiere sarerako sarbide teknologia berrien fabore, dela kable edo zuntz optiko bidez (% 41,7), edota konexio mugikorren bidez (% 76,4).

Beste ekipamendu teknologiko aurrerratu zenbaiten ezarpen mailari dagokionez, esan behar, hau ere gero eta bizkorrago doala, direla sare informatiko finkoak, wireless (kable barikoak), direla datu baseen transferentzia elektronikorako sistema informatikoak, edota intranet edo extranet sareak. 2014an hain justu, udalerriko enpresen % 68,9k aitortu du ezarria duela jada sare informatikoa (% 96,2k era bai, hamar edo enplegu gehiago dauzkatenen kasuan), eta hauetako denetako % 56,0k aitortzen du haririk gabeko sarea darabilela, wireless-a.

Lau enpresatik batek ere badauka intranet propioa, baita enpresen % 65,6k ere, hamar edo enplegatu gehiagoko enpresen kasuan. Guztira enpresen % 21,6k dauka zabalduta extranet sarea enpresaren beraren muga fisikoez harago; por-tzentaje hau % 48,9raino ere iristen da enpresa handienen kasuan (10 behargin edo gehiago dituztenetan).

Bilboko enpresen % 85ek du Interneteko sarbidea

Hornikuntza teknologikoa Bilboko enpresetan (%)

	2013	2014
Interneteko sarbidea duten enpresak	81,5	84,7
10 lanpostu edo gehiagokoak	96,9	98,3
Webgunea duten enpresak	49,1	55,2
10 lanpostu edo gehiagokoak	83,9	86,4
Salerosketa elektronikoa egiten duten enpresak	20,9	25,5
10 lanpostu edo gehiagokoak	28,3	27,8
Erosketak egiten dituzten enpresak (%)	19,0	23,0
Salmentak egiten dituzten enpresak (%)	4,7	6,1

Iturria: Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -Enpresak-, Eustat.

% 25,5eraino hazi da Interneteko sarbidea edukita merkataritza elektronikoa darabilen enpresa kopurua, nagusiki erosketak bideratzeko

Interneteko sarbidea daukaten enpresen % 25,5ek sortzen ditu merkataritza elektronikoko eragiketak, direla erosketak eta / edo salmentak online kanalen bidez. Zehatz, enpresen % 23,0k bideratu zituen 2014an erosketak Internet bidez; ordea soilik enpresen % 6,1ek eragin zituen online bidezko salmentak. 10 edo enplegatu gehiagoko enpresen kasuan, salmenta ehunekoak garaixeagoak dira: enpresen % 21,3k erabili dituzte erosketa elektronikokoak, eta % 8,2k lortu dituzte sare bidezko salmentak.

Bilboko enpresen agerpenak ere jarraitu du azken urteotan bere Interneteko hazkunde, sarearen eta baliabide elektronikoen gero eta erabilera zabalagoaz batera. Zehatz, 2014an hamar behargin edo gehiago dauzkaten enpresen % 86,4k dauka Bilbon webgune propioa (2013an % 83,9 ziren), eta oro har, gutxieneko, enpresaren informazio orokorra eskaintzen dute (% 99,9); eta askok beraiek eskaintako zerbitzu eta produktuen zerrendak ere bai (% 57,7).

Interneteko sarrera edukita, 10 behargin edo gehiago daukaten enpresen % 86,4k dauka webgune propioa

INFORMAZIOAREN GIZARTEA BILBON

Informazioaren gizartea eta familiak

Bilbok eta Bizkaiak aurrerapen handia erakutsi dute azken urte hauetan Informazioaren Gizarteak eskaintzen dizkigun abantaila eta probetxu aukera ugarien garapenean.

Beste gizarte aurreratu guztietan legez, familia bilbotarren artean ere gero eta maizago aurkitzen ditugu gailu elektroniko multzo handi eta ugarien jabe izan eta erabiltzen dituztenak, eta hala, ezinbestez edo, baita gailu hauen guztien berritze eta ordezkatzeari abiatzen dutenak berrikuntza teknologikoek hartaratzten gaituzten neurrian.

2014an ere, eta Bizkaia osoari dagozkion datuak kontuan, beherantz jarraitu du ordenagailu pertsonala daukan pertsona kopuruak (% -4,4). Edozelan ordea, 577,4 milakoetaraino hazi da (% 2,1 gehiago) ordenagailu eramangarria daukatenen kopurua, eta honi erantsirik 15 edo urte gehiagoko herritarren artean tablet-a daukatenen kopurua (% 70,7), ondo antzeman daiteke guztira ekipamenduen artean gertaturiko ordezkatzeari.

Urte honetan zehar ere hazi da Interneteko sarbidea daukaten 15 edo urte gehiagoko herritarren kopurua, 2013an 701,4 milako zirenak, eta 2014an 722,2 (% 3,0ko hazkuntza). Era berean, posta elektronikoa etxean bertan daukatenen kopurua 684,1 milakoetatik igaro da 691,2tara (% 1,0ko hazkuntza).

Kontuan hartu beharreko lehen alderdia Interneteko sarearen erabilpenari dagokionez, da, Bilboko 15 edo urte gehiagoko herritarren % 66,5 dela Internet erabiltzaile 2014. urte amaieran. Eta ehuneko honek 3,1 puntuko hazkundera erakusten du aurreko urtekoaren aldean.

Edozelan, Interneten erabilera handia izanik ere udalerriko herritarren artean, oraindik nabari da teknologia hauen erabilera eten digitala sexua kontuan hartuz gero. Hain zuzen 2014an, Bilbon bizi et, Internet erabili duen gizonezkoen kopuruak (% 71,4), 9,2 puntutan gainditzen du andrazkoek oraindik erakusten duten erabilera tasa (% 62,2). Esan behar da, hala eta guztiz ere, urtebete lehenago genero eten hau Interneten erabilera ehuneko 11,6 puntutan zegoela (% 69,6, % 58,0ren aldean).

Gehien erabili diren zerbitzuen rankingaren buruan jarraitzen du posta elektronikoaren erabilera. Ondoren ageri dira ondasun eta zerbitzuen kontsultak, eta hedabideen edizio digitalei eginiko bisitak. Hainbat nabaria da ere teknologia berriak darabiltzan erabiltzaile kopurua, sare sozialetan parte hartzeko bide, edota bat-bateko mezularitzako aplikazioak erabiltzen dituenak.

Bilbon bizi den 15 edo urte gehiagoko hiru pertsonatik bi da Internet erabiltzaile

Hornikuntza teknologiko nagusiak Bizkaiko familien artean (15 eta urte gehiagoko herritarrek, milakoetan)

	2013	2014	% 2014/2013
PCa	435,0	415,8	-4,4
Eramangarria	545,8	577,4	2,1
PDA / Tableta / Pocket PCa	195,8	334,3	70,7
Internet	701,4	722,2	3,0
Posta elektronikoa etxean	684,1	691,2	1,0

Iturria: Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -Familiak-, Eustat.

Internet darabiltzen dituzten herritarren %a (15 urte edo gehiagoko herritarren %a)

	2013	2014
Guztira	63,4	66,5
Andrazkoak	58,0	62,2
Gizonezkoak	69,6	71,4
Eten digitala (p.p.)	11,6	9,2

Iturria: Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -Familiak-, Eustat.

KERKUNTZA GARAPENA ETA BERRIKUNTZA

Berrikuntza gastua Bilbon % 7,1 hazi da, 288,3 milioi eurotaraino

Eustatek argitaraturiko azken txostenen harian, Bizkaian 9,8 milako dira 2014an enpresa berritzaileak, eta % 4,3an murriztu da kopuru hau aurreko urteko datuen aldean. 10 edo behargin gehiago dauzkaten enpresen kasuan berriz, are gehiago jausten da aipatu kopurua, % 6,3an zehatz. Bizkaiko lurraldean 1,5 milako dira enpresa berritzaileak.

Datu zalantzarik gabekoak gorabehera, hala hiriak berak, zelan lurralde osoak ere, sano indartzen jarraitzen dute ikerketa, garapen eta berrikuntza ekimenak (I+G+b), hala zelan enpresen eta pertsonen gaitzea laguntzen ere ekimen hauek guztiak behar bezala garatu ahal izan litzaten.

I+G+b-ari eskainitako ahalegin ekonomikoaren garrantzia samur antzeman liteke kontuan hartuz Bilboko 10 eta enplegatu gehiagoko enpresek 288,3 milioi euro bideratu zituztela 2013an berrikuntza jardunetara, 2012an baino %7,1 gehiago. Eta kopuru honek osatzen du Bizkaiko gastu ahalegin guztiaren % 28.

Bilbon, 10 eta enplegatu gehiagoko enpresen heren batek (% 32,0) garatu zituen 2013. urtean berrikuntza ekimenak. Edozelan ere hurrengo hau aurreko urtekoaren berdintsua da (% 32,1 2012an).

I+G jarduerari dagokienez, udalerriko 185 enpresek aitortu dute hala moduzko jardunak garatu izana 2013. urtean zehar, aurreko urtean baino % 9,5 kopuru handiagoa. Enpresa hauek denera 3.822 behargin bideratu zituzten halako jardunak garatzeko, eta hauetako % 65 dira (2.481) enplegatu ikertzaileen kolektiboaren parte.

I+G jardueren garapenak 106,7 milioi euroko gastua eragin du 2013an, eta horrek % 3,0ko murrizketa adierazten du 2012ko gastuaren aldean. Gastuen eragileak sektoreka: 48,5 milioi dira enpresek gastatutakoak, 41,8 milioi unibertsitateak eta 16,5 milioi administrazio publikoek.

Prozesu berrien jardura asmatzaileak berriz, balantze positiboa erakusten du 2014. urtean 2013ko adierazleen konparazioan, eta hori ez da udalerriko enpresa eta unibertsitateen ikerketa eta garapen jardueren emaitza baino. Hain justu 2014an, 17 patente eskaera erregistratu ziren, 2013an baino bi gehiago. Era berean eskatu ziren 471 marka komertzial berri (% 18,6 gehiago 2013an baino), 9 baliagarritasun modelo, 9 diseinu industrial eta 40 izendapen komertzial.

Berrikuntza

	2012	2013	% 2013/12
Enpresa berritzaileak (milakoetan)	9,4	9,8	4,3
10 behargin edo gehiagokoak	1,6	1,5	-6,3
Berrikuntza jardueretako gastua (milioitan)	1.224,1	1.234,4	0,8
10 behargin edo gehiagokoak	1.008,0	1.033,0	2,5

Iturria: Berrikuntza Inkesta – EUSTAT (Bizkaia).

I+G

	2012	2013	% 2013/12
I+G gastua (milaka €tan)	110.108	106.777	-3,0
I+G jarduerak dauzkaten enpresak (kop.)	169	185	9,5
I+G-ari eskainitako beharginak (kop.)	3.808	3.822	0,4
I+G-ari eskainitako ikerlariak (kop.)	2.451	2.481	1,2

Iturria: I+G inkesta, Eustat.

Patenteak eta markak. Bilbon erregistraturiko eskaerak

	2013	2014	% 2014/13
Patenteak	15	17	13,3
Markak	397	471	18,6
Baliagarritasun modeloak	7	9	28,6
Diseinu industrialak	13	9	-30,8
Izendapen komertzialak	35	40	14,3

Iturria: OEPM.

Bilboko 185 enpresek garatu dituzte I+G jarduerak 2013an, 106,7 milioi euroko gastua eraginda

ENPRESA ETA PROFESIOALEN EZAGUTZA JARDUERA TRINKOAK

Informazioak eta komunikazioak (telekomunikazioak, zerbitzu informatikoak, ikus-entzunezko zerbitzuak, eta informazioaren eta edizioaren ingurukoak), finantza eta aseguru zerbitzuek, eta jarduera profesional zientifiko eta teknikoek (zerbitzu juridikoak, kontularitza zerbitzuak, aholkularitzak, arkitektura eta ingeniariak, I+G zerbitzuak, publizitatea, marketina, eta abar) osatzen dute enpresa eta profesionalen ezagutza jarduera trinkoko “sektorea”, zuzenenean lotzen dena berrikuntzarekin eta ezagutzaren gizartearekin.

2014. urteak bere ateak itxi zituen udalerriko 27.230 pertsonari emanez enplegua sektore honetan (kopuru hori guztirako enpleguaren %16,4ko tasa erlatiboa da), eta hauek 2.341 enpresatan dihardute beharrean (enpresa guztien % 11,3). Datu hauek ezagutza trinkoko enplegu tasaren % 3,3ko hazkundea erakusten dute, eta 0,3 p.p.koa enplegu totalaren aldean.

Zerbitzu profesional, tekniko eta zientifikoaren azpisektoreak eskaintzen dituen sektore guztiko hamar enplegutik lau baino gehiago (% 42,6), eta hauen guztien ia erdia ageri dira (% 49,1) zuzenean loturik zerbitzu juridiko edota kontularitza eta aholkularitza zerbitzuekin (5.698 pertsona afiliatu).

Zerbitzu informatikoak nabarmentzen dira enplegu kopuru handiena sortzen duen jarduera arlo nagusi gisa (3.783 enplegu), informazio eta komunikazioaren azpisektorearen barruan. Finantza eta aseguruaren azpisektorean berriz, enpleguaren % 63,5 oparoa dagokie finantza jardueri (5.352 enplegu).

Azken urtean barrena hazi egin da informazio eta komunikazioaren azpisektoreko enplegu maila (% 6,7) eta zerbitzu profesional, tekniko eta zientifikoetako (% 4,1). Alderantziz, datu negatiboa jasotzen da finantza eta aseguruaren zerbitzuen alorretik, honek zertxobait galtzen du eta enplegua (% -0,6)

Nabarmentzekoa da enpleguaren hazkundea finantza zerbitzuetan (% 9,6) eta informatikoetan (% 8,2), eta datu negatibo lez berriz, telekomunikazioetan pilatzen den jausi ageria (% -16,3), eta publizitatea eta marketinekoa (% -0,2).

Ezagutzan trinkoak diren enpresa zerbitzu eta profesionalen sektorean bildutako enpresa eta soldatapeko beharginak dauzkatenak, 2.341 dira, eta datuak % 0,8ko hazkuntza erakusten du 2013koaren aldean. Aldaketarik garrantzizkoena hala ere, finantza eta aseguru zerbitzuen sektorean diharduten enpresen artean jazotzen da, % 4,7 ere hazi direlako. Informazio eta komunikazioetako enpresek berriz, eta zerbitzu profesional, tekniko eta zientifikoetakoek ez dute aldaketarik apenas erakusten.

Enpresa eta profesionalen ezagutza jarduera trinkoko zerbitzuak: pertsona afiliatuak

	2013	2014	% 2014/13
Pertsona afiliatuak (kop.)	26.372	27.230	3,3
Informazioa eta komunikazioak	6.749	7.202	6,7
Telekomunikazioak	1.075	1.027	-4,5
Zerbitzu informatikoak	3.335	3.783	13,4
Ikus-entzunezko zerb., informazioa eta edizioa	2.339	2.392	2,3
Finantza eta de aseguru zerbitzuak	8.471	8.424	-0,6
Finantza zerbitzuak	5.398	5.352	-0,9
Aseguru zerbitzuak eta osagarriak	3.073	3.072	0,0
Zerbitzu profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	11.152	11.604	4,1
Zerbitzu juridikoak, kontularitza eta aholkularitza	5.492	5.698	3,8
Arkitektura, ingeniariak eta I+G zerbitzuak	3.405	3.602	5,8
Publizitatea eta marketina	1.285	1.236	-3,8
Bestelakoak	970	1.068	10,1

Iturria: Espainiako Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

Ezagutza trinkoko zerbitzu profesional eta enpresetakoak: Soldatapeko kontratatutak dituzten enpresak

	2013	2014	% 2014/13
Soldatapeko kontratatutak dituzten enpresak (kop.)	2.323	2.341	0,8
Informazioa eta komunikazioak	389	386	-0,8
Telekomunikazioak	43	36	-16,3
Zerbitzu informatikoak	184	199	8,2
Ikus-entzunezko zerbitzuak, informazioa eta edizioa	162	151	-6,8
Finantza eta aseguru zerbitzuak	362	379	4,7
Finantza zerbitzuak	83	91	9,6
Aseguruak eta osagarriak	279	288	3,2
Zerbitzu profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	1.572	1.576	2,6
Zerbitzu juridikoak, kontularitza eta aholkularitza	1.012	1.009	-0,3
Arkitektura, ingeniariak eta I+G zerbitzuak	261	271	3,8
Publizitatea eta marketina	199	195	-2,0
Bestelakoak	100	101	1,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

UNIBERTSITATEA IKERKETA ITURRI


Euskal Herriko Unibertsitateak 11.197 ikasle dauzka Bilbon

Unibertsitatea da teknologiarantz eta giza aurrerapenerantz bideratutako ikerketaren zutabee-tako bat. Bera da ezagutza leku, eta egunean-egunean etengabe berreraikitzen den ezagu-tzaren jagole. Honen jardunak etengabeko berrikuntza dakarkigu, eta ezagutzaren esparru berriak irekitzen dizkigu, aurkikuntza, proba eta aplikazio berrien garapenetik eratorriak.

Unibertsitateak Bilbon hiru eredu erakusten ditu: batetik, Euskal Herriko Unibertsitatea, pu-blikoa; bestetik, Deustuko Unibertsitate pribatu, aitortza onekoa; eta azkenik, Mondragon Unibertsitatea, hau gaztea eta enpresari zuzenago atxikia, eta orain aspaldi barik kokatua dena gure hiribilduan. Hirurek erakusten dute lankidetzaren eta elkarlanerako dinamika aktiboa. Hala, bateratuak, edota eurentako bakoitzak bere aldetik ere, nazioarteko eta nazio arteko sareak dauzkate ikerketari lotuak, eta hala Bilbo hiriaren ordezkari garrantzitsua eskaintzen dute euren profesionalak beren foro eta batzarretan garatzen dituzten ekimenen bidez.

Ezagutzaren sortzaile gisa duen rol honetan, eta haren ondorengo transferentzian enpre-setara eta oro har gizartera, unibertsitatearen jarduna osagai oinarritzak bihurtzen zaigu hiriaren garapen ekonomikoan. Unibertsitateek garatzen dituzten ikerketa eta berrikuntza ekimenen emaitzak neurgarriak gertatzen dira hauek urtero aurkezten dituzten patenteen bidez -adierazle egokiak hauen egoera eta bilakabidea aztertzeko-.

EHUK aurkeztutako patente erregistroen garapena 2000-2013



Iturria: EHU ZENBAKITA 2013.

Eta Euskal Herriko Unibertsitateak eskainita, 2013. urteari dagozkion azken datuek erakusten dute 59 izan direla patente erregistro eskariak, jaitziera nabarmena aurreko urteko datuen alderaketan.

EHUK hainbat fakultate dauzka Bilbon hainbat auzotan sakabanatuta: Sarrikon, Elkanon, Casillan eta San Mamesen. 2014. urtean, zehatz 11.197 izan da bere EHUKo ikasketak Bilbon burutu dituen ikasle kopurua. Aipamen berezia merezi dute bertan matrikulaturiko ikasle kopuruari gagozkiola, Ingeniari-tza Goi Eskola Teknikoak (3.436 ikasle) eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak ere (3.189 ikasle). Ondotik dihoazkie, matrikula kopuruari dagokionez, Industria ITUE (Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola) (1.898 ikasle), Enpresaritza Eskola (1.252), Meatzeen eta Herri Lanen ITUE (654) eta Medikuntzako Ikasketa Unitatea Basurtuko Ospitalean (297). Hauetaz erantsi behar, gradu-ondoko ikasketetan diharduten beste 454 ikasle.

Bilboren erdigunean bertan dago kokatua Deustuko Unibertsitatearen campusa, Guggenheim mu-seoaren aurrez aurre. Campusa osatzen dute: Eraikin Nagusiak, non eskaintzen diren Zuzenbide eta Letretako ikasketak; Komertzialaren eraikinak, Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultatea har-tzen duena; ESIDE eraikinak, non eskaintzen diren ingeniarietako ikasketak; eta Mendeurreneko eraikinak. Hauen parean zabaltzen du Deustuko Unibertsitateak CRAI (IIBZ) liburutegia (Ikerketa eta ikerkuntzarako Baliabideen Zentroa), zein campusari lotzen zaion itsasadarren gainetik, Aita Arrupe izena daraman pasabidearen bidez.

Bilboko campusak 7.940 ikasle jaso ditu 2014. urtean, nabarmenezko direlarik Psikologia eta Hezkuntza Fakultateko 1.971 ikasleak. Matrikulen kopurua kontuan atzetik dihoazkie Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (999 ikasle), Zuzenbide Fakultatea (877), Ingeniaritza Fakultatea (558) eta Teologia Fakultatea (117). Bada beste ikasle kopuru garrantzitsua ere, ikasketak ofizialen programazio bateratuan parte hartzen duena (711), zeinetako 321 diren, eta azpimarragarria da, Enpresen Admi-nistrazio eta Zuzendaritza Graduak eta Zuzenbide Graduak ikasleak, eta Enpresa Administrazio eta Industria Teknologietako Ingenieritzakoak (176).

EHU – Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleak (Bilboko Campusa)

	2014
Guztira EHU Bilboko campusean	11.197
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	3.189
Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa	3.436
Industria ITUE	1.898
Meatzeen eta Herri Lanen ITUE	654
Enpresa IUE (Ikasketen Unibertsitate Eskola)	1.252
Medikuntzako Ikasketa Unitatea (Basurtuko Ospitala)a	297
Esperientzia Gelak	454
Multimedia Kazetaritza Masterra	17

Fuente: UPV/EHU EN CIFRAS 2014

Deustuko Unibertsitateko ikasleak (Bilboko campusa)

	2014
Deustuko Unibertsitatea	7.940
Zuzenbide Fakultatea	877
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	999
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	1.971
Enpresa Zientzia eta EAZren Fakultatea	377
Ingeniaritza Fakultatea	558
Beste fakultateak	117
Ikasketak ofizialetako programazio bateratua	711
Gradu-ondo eta doktoretza ikasketak	2.330

Iturria: Deustuko Unibertsitatea

7 KULTURA ETA KIROLA

Bilboko
Urtekari **2014**
Sozioekonomikoa




Udalaren kultura jarduera

Antzerkia, dantza eta musika jarduerak

Museoetako jarduerak

Liburutegiak

Kirola



“Munduaren etorkizunerako oinarrizko inbertsioa da kultura garapen politiken bihotzean kokatzea”

Unesco

“Benetako kultura da naturarekin jaioa, sinplea, xaloa eta garbia”

Masanobu Fukuoka

Fundazio Garaikideko Kulturaren Behatokiko⁽¹⁾ aditu taldeak berriro balioztatu ditu 2014. urtean Bilboko kultur jarduera eta erakundeak.

Ebaluazio honen ondorioek berriro kokatu dute Bilbo estatu osoko hirien arteko hirugarren tokian bere kultur eskaintzaren kalitatea eta eraberritzea kontuan. Aurretik ez ditu izan Madril eta Bartzelona baino.

Fundazio Garaikideak -Behatokiarene eskutik- urtero eragiten dio kultura arloko profesional aitortuek osaturiko aditu talde bati kontsulta xehea, estatu osoko kultura paisaiaren ikuspegi zehatza bereganatu nahian. Kontsulta honen bitartez lantzen ditu hainbat adierazle iraunkor, aukera ematen diotenak, erkidego autonomoetako eta bakoitze-ko hiri garrantzitsuenetako kultura jardueraren balorazioa eta segimendua egiteko, hala zelan urtean zehar esanguratsuen bihurtu diren kultura erakunde eta jazoerena.

2014. urteko kultura erakunde eta jazoera garrantzitsuenak ebaluatu ahal izateko, itaun ireki bat bideratu ohi zaio adituen taldeko profesional bakoitzari, eta hauen erantzunetan 51 kultura erakunde eta jazoera gertatu dira hiru bider baino gehiago aipatuak. Bakoitzak jasotako aipamen kopuruaren arabera rankingean, Guggenheim Museoa 9. lekua hartu du, Alhóndiga-Bilbaok 25.a, eta lehendabiziko aldiz ageri da zerrendan Bilboko Arte Ederretako Museoa 4 bider aipatua.

Hala, berriro bihurtu da ikusgarri hiriko eragile guztiek egindako ahalegina Bilboko hiriaren kultur dimentsioa bultzatzeko garaian, eta oso bereziki, administrazioaren kultura erakundeek eragindakoa.

UDALAREN KULTURA JARDUERA

2005. urtean atxiki zitzaion Bilboko Udala Kulturaren Agenda 21 egitasmoari. Agenda hau izan da lehen dokumentua mundu mailan, agerian bildu dituen hirien eta lekuko gobernuen printzipioak eta konpromisoak kultur garapen jasagarri eta iraunkor baten alde: kultura, aniztasuna, sormena. Kultura, garapen jasagarriaren laugarren zutabea.

Kulturaren Agenda 21eko hiri sinatzaile den legez, Bilbok onartua du bere ardura, kultura dimentsio giltzarria izan dadin hiriko politika urbanoetan, eta beretuak ditu ere hainbat printzipio, konpromiso eta gomendio, kulturaren garapena hiritik bertatik indartzeko, gizartearen eskubide kolektibotzat aitortzen duen neurrian kultura.

Hala, eman gura izan da aditzera kultura aniztasuna, eta kulturaren ikuspegi irekia bultzatzearen eta defenditzearen garrantzia, zelan sormenaren beraren balioa, eta hala, pertsona guztien parte hartzea ere kulturaren dimentsioan.

2014. urtean barrena hiribilduko kultur ekinbidea, batetik bat, sei jardun lerrotan gauzatu da: kultura eta aisia jazoeren programazioa, kultur programazioaren indartzea, sormenaren eta formazio artistikoaren sustatzea, auzoetako programazioa -Kultura Barrutik-, lankidetzaren hiriko sektore artistikoekin, eta dagoeneko abian dauden zerbitzuen egonkortzea.

Ondoren erantsirik taulan ikusi litekeen moduan, aipatu lerroen zabalpen lanetan 40 proiektu garatu dira guztira, eta hauen bidez 1.697 ekitaldi eraman ahal izan dira aurrera, zeinetara 909.032 pertsona baino gehiago bildu diren.

Udalaren kultura jardueraren adierazleak (2014)

Proiektuak		Ekitaldi kop.	Bertaratutak
Aisia eta kultura ekitaldiak	56 ^a Zinebi	319	53.928
	XV Bilboko Kalealdia		
	Txotxongiloen Nazioarteko XXXIII. Jaialdia		
	XVI BAD		
	FANT 20		
Zerbitzuen egonkortzea	XV BilbaoPoesia	733.522	
	Udal Liburutegien Sarea		
Kultura programazioaren bultzada	Udal Artxiboa	737	49.926
	Bidebarrieta Kulturgunea		
	Liburu azokak bultzatu		
	XV. Arte eta Kultura Topaketak lagundu		
	Argitalpenak		
	Bilbao Izan		
	XXVI. Bilbainada Lehiaketa		
	Kultur programazioa Udal Liburutegien Sarean		
	Hiri arteko lankidetzak		
	Kultura arloko diru laguntzak		
Sormen eta formazio artistikoaren sustapena	Hitzarmenak	173	10.208
	Bilbao Eszena		
	6. Artistak egoitzan		
	Bilboko Zirkuitua		
	Bilboko Haur Antzerkia		
	Kultura lantegiak 2013 - 2014		
Kultura Barrutik - Auzoetako programazioa	Literatur lehiaketak	468	61.448
	Bilbao Film Commission		
	Programazioa 8 Barrutietan		
	Expodistrito		
	Bilbao Distrito Jazz		
	Gabonetako Abesbatza Lehiaketa		
Lankidetzaren beste sektore artistikoekin	Dantza Plazetan		
	XXX Udaberriko Bertso Saioak		
GUZTIRA		1.697	909.032

(1) Fundación Contemporánea -Fundazio Garaikideak- burutua, kulturarekin zerikusia duten profesional izen ezagunekoei osaturiko aditu talde baten iritzia batu ondoren, hala zelan administrazio publikoetako kultura arlo eta erakundeetako arduradun hainbatena ere.

A ANTZERKIA DANTZA ETA MUSIKA JARDUERAK

Musikak, dantzak eta antzerkiak 449.286 herritar bildu dituzte
2014an Arriaga Antzokian eta Euskalduna Jauregian

Arte eszenikoek Bilbon urte osoko programazioa barreiatzen dute, eta udalerri osoan zehar garatzen hiriak bere dituen hamaika ekipamendu eszenikoetan eta beste sei kontzertu aretoetan. Guztion artean nabarmentzekoak dira Arriaga Antzokia eta Euskalduna Jauregia berezkoa duten programazioaren zabalarengatik, baina 2014. urtean bereziki hiri osoa bihurtu da agertoki zabal irekia, kontu eginda, urte honetan hirian burutu den ikuskizun eskaintza ugari eta era askotakoa.

Txotxongiloen Nazioarteko XXXII. Jaialdia, Bilbao BBK Live, dantza eta antzerki garaikideak BAD Jaialdiaren XVI. aldia, auzoetako musika Bilbao Distrito Jazz emanaldiekin, edota Arriaga eta Campos Elíseos -Eliseoko Zelaiak- antzokietako eta Euskalduna Jauregiko antzerki eta musika egitarau emankorrak, ez dira, hiriak eskaini eta aurkeztu duen kultura jarduera osoaren lagin erakusgarria baino.

2014an **Arriaga Antzokiak** 72 ikuskizun programatu ditu, guztira 267 emanaldi izan dituztenak, eta denera 148.607 ikusle bildu. Antzokiak, batez beste, 557 pertsona erakarri ditu emanaldiko, urtean zehar ateak ireki dituen 202 egunetan.


Eskaini diren 72 ikuskizunetatik, 20 izan dira antzerki muntaketak, 5 dantza emanaldiak, 18 kontzertuak, 2 opera, 3 zarzuela, musikal 1, eta beste 23ak, askotariko emankizunak.

2014an **Euskalduna Jauregiak** beste urte betez luzatu du bere lidergoa estatu osoko Batzar Jauregien artean, bertan buruturiko ekitaldi kopuruari begira, eta guztira 802 izan dira, jazoera eta emanaldien artean.

Musika eta ikuskizun jarduerekin zerikusia zuten emanaldiek 300.679 entzule/ikusle bildu dituzte 352 emanalditan.

Antzerkia izan da emanaldi gehien bildu dituen jarduera, 128 saioz. Azpimarratzekoak dira ere Orkestra eta Abesbatzen 66 kontzertuak, Opera denboraldia 22 emankizunez, Ballet eta Dantzako 9 ikustaldiak, eta beste 26 Kontzertu ere era hainbatetakoak.

Campos Elíseos Antzokiak -Eliseoko Zelaiak-, Bilbao Eszena -Antzerki baliabideen zentroak, Bilborock-ek, hACERIA -ahALTZAI RUTEGIA- aretoak, Fundizioak, Pabiloi 6k, Kafe Antzokiak, Muelle 3 dantza+sorkuntza gunek eta Sala Kontainer Aretoak osatu dute hiriko guneko eszeniko eta kontzertu areto garrantzitsuenen zerrenda.



MUSEOETAKO JARDUERAK

Guggenheimen eta Arte Ederretako Museoaren eskaintzek 1.201.966 pertsona bertaratu dituzte

Fundazio Garaikideko Kultura Behatokiak bederatzigarren tokian kokatu du Guggenheim Museoa 2014an Espainiako estatuko kultur erakunde eta jazoera garrantzitsuenen zerrendan, 148 aditu profesional kontsultaturik eginiko balorazioaren ondoren. Nabarmentzekoa da ere 36. tokian Arte Ederretako Museoaren programazioaren kalitatea.

Edozelan, bi pinakoteka hauei gehitu beharra dago hiriko beste 10 museoren eta hainbat arte galeriaren presentzia nabarmena, udalerrriaren museo eskaintza osatzeko, denok ondo jakitun bagara ere Guggenheim Museoak berez eskaintzen duen nazioarteko zalantza bako proiektioaz, edota Arte Ederretako Museoaren arte bilduma entzutetsuak.

Guggenheim Bilbao Museoak 2014an 1.011.363 bisitari erakartzea lortu zuen, zeinetako % 64 izan ziren Espainiako estatuz kanpokoak. Hauen artean nabarmentzekoak izan ziren Frantziatik iritsitakoak, eta neurri txikiagoan bada ere, Britainia Handitik, AEB eta Alemaniatik etorritakoak. Bisitarien beste % 36a Espainiako estatu barrutik dator, eta hauen artean nabarmen dira euskal herritarrek, hiru bisitaritik bat baino gehixeago ere bagarenak.

2014an bisitatuena, nabarmen asko, Yoko Onoren atzera begirako erakusketa izan da, Half-A-Wind Show. Oso harrera ona erakutsi du ere Georges Braque, kubismoaren aitzindariaren erakusketa asmo handikoak, hil zeneko 50. urteurrena betetzen zela-eta osatua.

Bilboko Arte Ederretako Museoak 190.603 bisitari bereganatu zituen 2014. urtean. Horietako % 68 zetorren EAEko beste bazter batzuetatik, eta ia beste % 19 Espainiako estatuz kanpotik.

Europar mugimendu hiperrealistaren inguruan bildutako lehen atzera begirako handia (Hiperrealismoa 1967-2013), estilo honen erakusgarri diren 34 pintoreren 68 obra erakutsiz, eta Markus Lüpertz-en obra izan dira nabarmentzekoak museoaren 2014. urteko programazioan, beste hainbat erakusketaren artean.

Bilboren museo eskaintzaosatzen dute izen ezaguneko beste hainbat gu- nek ere. Hauen artean: Alhóndiga Bilbao, Eleizmuseoa -Elizbarrutiko Arte Sakratuko Museoa -Museo Diocesano de Arte Sacro-, Arkeologi Museoa, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa edota BilbaoArte, aipagarrien artean.

Museoak

	2013	2014
Museo kopurua	12	12
Guggenheim	931.015	1.011.363
Arte Ederrak	192.394	190.603

Iturria: Guggenheim Bilbao Museoa, Arte Ederretako Museoa.

Udalaren kultura jarduera

Antzerkia, dantza eta musika jarduerak

Museoetako jarduerak

Liburutegiak

Kirola

LIBURUTEGIAK

Bilboko liburutegi publikoek 719.369 bisita inguru jasotzen dituzte urtean

Bilbok liburutegi, hemeroteka eta dokumentazio eta ikerketa zen-troen eskaintza zabala dauka, eta hau zerbitzu publikoen esparruan bereziki gauzatzen da Bizkaiko Foru Liburutegian, eta Udal Liburu-tegiek eskaintzen duten sare ugarian.

Bidebarrietako Liburutegi Nagusiaren jarduna, beste 14 udal liburu-tegiek garatutakoaz osatzen da, Begoña, Deustu, Uribarri, Txur-dinaga-Otxarkoaga, Ibaiondo, Errekalde eta Basurtu-Zorrotzako barrutietan banatuak, eta soilik funts musikalek osatua den Bilbao Musika liburutegi espezializatua.

2014an % 2,5 gutxitu bazen ere, liburutegi sarearen erabilerak han-dia izaten jarraitzen du, eta hazi egin da erabiltzaile txarteldunen ko-purua. Hazi egin da ere eskueran daukagun bildumaren tamaina.

Nabarmena da beste guztien gaintik Bidebarrietako Liburutegi Na-gusiaren jarduna, berak bakarrik biltzen du-eta liburutegiek 2014an bildutako bisita kopuru osoaren % 38,5; eta berak batzen dituelako liburutegietako funts guztien % 27tik gora. Horrek azaltzen du zer dela-eta gertatzen diren bertan sareko mailegu guztien ia herena.

Kudeaketa publikoaren barruan azpimarratzekoak dira ere Bizkaiko Foru Liburutegiak dauzkan ia 300.000 aleak, zeinen artean 41 inku-nable eta 624 eskuizkribu. Baliabide sare zabal hau gainera, hiriko museo azpiegiturei loturiko beste zenbait gun e bibliofiloz osatzen da (Arte Ederrak, Guggenheim, Euskal Museoa...), unibertsitatea, zelan Deustuko Unibertsitateko Liburutegia, milioi inguru liburu ki inprimatu ere badituena, edota beste era bateko baliabideak (Al-hondigako Medioteka edo Azkue Biblioteka, besteak beste).

Liburutegien adierazleak


	2013	2014	% 2014/13
Bertaratuak	737.750	719.369	-2,5
Maileguak	376.036	352.327	-6,3
Bildumaren tamaina	428.784	438.658	2,3
Erabiltzaile txarteldunak	108.767	110.694	1,8

Iturria: Bilboko Udal Liburutegiak.

Liburutegien adierazleak (2014)

	Bisitak	Erabiltzaileak	Maileguak	Funtsak
GUZTIRA	719.369	110.694	352.327	438.658
Bidebarrieta	276.674	38.425	113.342	119.632
Deustu	107.165	15.069	49.851	31.137
San Inazio	47.538	7.627	25.202	22.401
Zurbaranbarri	9.554	2.690	8.308	8.273
Castañós	23.348	2.068	13.445	6.486
Otxarkoaga	18.152	3.406	10.680	15.115
Begoña	78.427	15.123	49.301	35.359
San Adrián	8.170	2.181	6.797	7.455
San Frantzisko	26.928	4.135	14.097	16.439
Zabala	3.320	984	4.579	4.672
Ibaialde	24.709	1.643	7.939	8.248
Irala	12.692	2.524	10.816	10.775
Errekalde	33.860	9.158	16.067	15.408
Zorrotza	35.435	4.653	18.220	15.364
Buia				1.421
Bilbao Musika	13.397	1.008	3.683	9.182
Garellanoko gordailua				111.291

Iturria: Bilboko Udal Liburutegiak.



KIROLA

86.545 bilbotarrek egiten du kirola udal kiroldegietan

Bilbo 2014ko Munduko Saskibaloia Kopako egoitzetako bat legeaz aukeratu izana kirol jazoera eta jardun garrantzitsua izan da Bilboko hiriaren konpromisoa eta bokazioa berresteko eta bultzatzeko garaian, kirola lehen pertsonan bizi duen hiri ereduan, kirola bere biztanleen egunerokotasunean barneratzen duen hiria.

Ez dira bakarrik maila profesionaleko kirol ekitaldiak sustatu. Baizik kirol praktika ere biztanle guztien artean zabaltzeko gura da, berrikuntza etengabearen diharduen ekipamendu eta instalazio eskaintza osatu baten bitartez.

Udalaren Kirol Pabiloiak, Alhondigako jarduera fisikoetarako guneak, eta batez ere, dauzkagun 10 udal kiroldegiek, aukera ezin hobea eskaintzen dute kirol jarduerak hiri osoan barrena praktikatu ahal izateko.

2014. urtean zehar, 86.545 izan dira kiroldegia erabili dituzten pertsona abonudunak.

Bilboko hiriak gainera, kirol ekitaldi kopuru garrantzitsua bildu du ere, zeinen artean bereziki diren aipagarriak, berez duten garrantzi objektiboarengatik Munduko Saskibaloia Kopa, Red Bull-Cliff Diving-a jauzkarien uretako jauzi ikaragarriekin, Chess Masters Bilbao Finala, Nazioarteko XIV. "Bilboko Hiria" Atletismo Bilkura, Herri Krosa parte hartze handikoa, edota Bilbao Triatloia, beste askoren artean.

8 ETXEBIZITZA

Bilboko
Urtekari **2014**
Sozioekonomikoa



Etxebizitza

Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

Higiezin eskaintza

Etxebizitza berria eta erabilitakoa

Etxebizitzen transakzioak

Etxebizitzen alokairua

Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

Etxebizitza	Higiezinaren eskaintza
Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak	Etxebizitza berria eta erabilitakoa Etxebizitzaren transakzioak Etxebizitzaren alokairua Lokal komertzialak, garaieak eta trastelekuak

ETXEBIZITZA

Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

Biztanleen eta Etxebizitzaren errolda

Azken Etxebizitzaren Udal Erroldaren arabera, Bilbok 161.075 etxebizitzako parkea dauka 2014an, zeinetako 160.745 diren familia etxebizitzak, eta beste 300 berriz modu bateko edo besteko egoitza kolektiboak. Eraikuntzen batez besteko adina 48,7 urtekoa da.

Egoitza kolektiboak etxebizitza kopuru osoaren % 0,2 dira, eta horietako % 35,5 aurkitzen da hutsik 2014an. Mota ugariak azpimarratzearren, udalerriko 330 egoitza kolektiboen artean aurkitzen ditugu zahar-etxeak, babes-etxeak edo komentuak, bestelako hotel, ostatu eta kideko ostatu egoitzez gainera.

Eraikuntzen batez besteko adina 48,7 urtekoa da

Euskal AEko etxebizitzak lurraldeka eta motaren arabera. 2014

	Etxebizitzak denera	Familia etxebizitzak			Egoitza kolektiboak	
		Denera	Nagusiak	Gainerakoak	Erabilia	Hutsi
Euskal AE	1.033.801	1.032.360	876.774	155.586	978	463
Araba / Álava	161.726	161.456	133.583	27.603	183	87
Gipuzkoa	336.558	336.126	285.083	51.043	286	146
Bizkaia	535.517	534.778	457.838	76.940	509	230
Bilbo	161.075	160.745	142.368	18.377	213	117
Donostia-San Sebastián	90.214	90.054	75.956	14.098	116	44
Vitoria-Gasteiz	116.324	116.149	101.889	14.260	130	45

Iturria: Eustat. Etxebizitzaren udal estadistika 2014.

Etxebizitza	Higiezinaren eskaintza
Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak	Etxebizitza berria eta erabilitakoa
	Etxebizitzen transakzioak
	Etxebizitzen alokairua
	Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

ETXEBIZITZA

Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

Etxebizitzak

Udalerriko 10 etxebizitzatik bat hutsik aurkitzen dugu

Bilboko hiriak 4.064,27 hektareako azalera dauka, eta bertan 11.645 eraikin altzatzen dira, zeinen artean aurkitzen ditugun 2014. urtean 33.920 lokal eta 158.586 etxebizitza, Udal Erroldak eskainiriko datuen arabera.

Etxebizitza kopuruaren hazkuntza aurreko urtekoaren aldean % 0,2koa da (348 etxebizitza gehiago kopuru absolutuetan). Haue-tako % 90,1 daude erabiliak (batez beste 2,45 pertsonaz bizitzako), eta aldiz gainerako % 9,9 etxebizitzak daude hutsik.

Bilbo hiriko etxebizitza multzoak modu desberdinean biltzen dira bertako zortzi barrutietan. Ibaiondon aurkitzen dugu etxebizitza kopururik handiena (guztien % 17,7), eta aurre hartzen die hala, Abando (% 15,4), Deustu (% 14,0) eta Errekalderi (% 13,7). Barruti haue-tako bakoitzean etxebizitza parkea 20.000 etxebizitzaz goitikoa da. Abando, Uribarri, Basurtu-Zorrotza eta Ibaiondo dira berriz etxebizitza huts kopuru handienak erakusten dituztenak, Abandokoa izanik kopuru altuena (% 15,6). Otxarkoaga-Txurdinagan ber-riz, etxebizitzen % 6,0 soilik aurkitzen da hutsik.


Abando eta Begoñiako barrutiek nabarmentzen jarraitzen dute, aurreko urteetan legez, bertako etxebizitza dentsitate handiengatik. Hauetako batez besteko neurriek (114,7 eta 107,0 etxebi-zitza hektareako hurrenez hurren 2014an) ia-ia hirukoizten dute udalerriko batez besteko dentsi-tatea (39,0 etxebizitza/Ha).

Bilboko etxebizitza parkea, barrutiaren arabera (kop.)

	2013		2014			
	Etxebizitzak	Hutsak %	Etxebizitzak	Hutsak %	Bizt./etxeb.	Dentsitatea (Etxeb./hektarea)
Etxebizitzak guztira (kop.)	158.238	9,9	158.586	10,2	2,44	39,02
Deustu	22.160	9,3	22.160	9,2	2,46	44,49
Uribarri	17.453	10,2	17.558	11,0	2,34	41,58
Otxarkoaga-Txurdinaga	11.025	6,0	11.024	5,7	2,60	28,17
Begoña	18.892	6,7	18.896	7,0	2,35	107,03
Ibaiondo	27.994	9,6	28.004	9,6	2,43	29,20
Abando	24.503	15,6	24.526	15,4	2,47	114,74
Errekalde	21.607	9,2	21.795	10,2	2,43	31,47
Basurtu-Zorrotza	14.604	9,7	14.623	10,3	2,46	20,58

Iturria: Udal Errolda.

Bilboko etxebizitza kopuruaren bilakaera 2014-2013, barrutiaren arabera (%)



Iturria: Udal Errolda.

Lokalak

Bilboko Udal Erroldak zehazten du 2014. urtean 33.920 direla udalerrian barrena erroldaturiko lokalak (176 gutxiago aurreko ur-tean erroldatuak baino). Hauen erabilera tasari dagokionean ber-riz, % 62,4 dira bertan jardunen bat burutzen duten lokalak.

Lokal erabilien kopuru erlatiboa aldatu egiten da barrutien ara-bera: Abandotik hasita, erabile-ra tasaren batez bestekoaren gaintetik ageri den bakarra, % 76,7ko erabileraz, Uribarriraino, non aurkitzen dugun erabilera portzentajerik txikiena (% 43,2). Bion artean berriz beste barru-ti guztiak, erabilera maila goitik beherakoan: Begoña (% 61,2), Deustu (% 60,5), Ibaiondo (% 59,3), Basurtu-Zorroza (% 56,1), Otxarkoaga-Txurdinaga (% 54,9) eta Errekalde (% 53,3).

Etxebizitza	Higiezinaren eskaintza
Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak	1 2 Etxebizitza berria eta erabiletakoa Etxebizitzen transakzioak Etxebizitzen alokairua Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

HIGIEZINEN

ESKANTZA

Etxebizitza berria eta erabilia

Bilbon behera jausi da etxebizitzaren prezioa, hala berri, zein erabiliarena

Eusko Jaurilaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Higiezinaren Eskaintzari buruzko Estatistikaren arabera, Bilbon eskaintzen den etxebizitza berri librearen batez besteko prezioa 3.893 €/m²-koa da 2014. urtean, eta kopuru honek % 4,3ko jaitsiera erakusten du aurreko urtekoaren aldean.

Behera etorri da era berean bigarren eskuko etxebizitzaren prezioa urte artekoan, kasuan % 3,5, eta hala igaro da 2013ko 3.634 €/m²-tik, 3.505 €/m²-ra 2014an. Metro koadroko balio honek, 301,2 mila eurotara ekarri du etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa.

Etxebizitza erabilien prezioen barrutikako azterketatik berriz, eratorri liteke Deustu-San Inazio eta Abandokoa direla hiriko batez besteko kostua gainez egiten duten barruti bakarrak, hurrenez hurren 3.653,4 eta 4.231,2 €/m²-ko balioz batez beste. Preziorik baxuena Otxarkoagan aurkitzen dugu, batez besteko 2.724,1 €/m²-ko kostuz.

Etxebizitzaren batez besteko prezioa

	2013	2014	% 2014/13
Etxebizitza berria (€/m ²)	4.068	3.893	- 4,3
Etxebizitza erabilia (€/m ²)	3.634	3.505	- 3,5

Iturria: Eusko Jaurilaritza.

Etxebizitza berri libre eta erabiliaren batez besteko salmenta prezioa (€/m²), kokagunearen arabera (2014ko 4. hiruhilekoa)

	Etxebizitza berri libreak		Etxebizitza erabiliak	
	Prezioa/m ² (€)	Prezioa /Etxebizitzako (milaka €)	Prezioa/m ² (€)	Prezioa /Etxebizitzako (milaka €)
Bilbo	3.892,7	291,1	3.504,6	301,2
Deustu-San Inazio	-	-	3.653,4	310,3
Uribarri	-	-	3.103,5	261,0
Otxarkoaga	-	-	2.724,1	227,6
Bolueta	-	-	3.163,7	255,1
Zazpikaleak	3.564,7	251,5	2.868,9	245,2
Abando	-	-	4.231,2	381,8
Errekalde	3.931,3	292,0	3.057,8	247,1
Basurtu	-	-	3.064,4	243,6

Iturria: Eusko Jaurilaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkesta, 2014.
 (-) Baliorik gabe laginaren eskasiaz.

Etxebizitza	Higiezinaren eskaintza
Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak	1 2 Etxebizitza berria eta erabilitakoa Etxebizitzen transakzioak Etxebizitzen alokairua Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

HIGIEZINEN
ESKAINITZA

Etxebizitzen transakzioak

2014an etxebizitza transakzioak %51 hazi ziren Bilbon

2014. urtean ezagutu dugun egoera ekonomikoaren hobekuntza islatu da urte osoan zehar gauzatu diren etxebizitza transakzio datuetan ere. Prezioen egonkortasunak eta hipoteka kredituek zabaldu duten bide berriak eraman gaitu higiezinaren merkatuaren suspertzera, eta hala beraz, etxebizitzen inguruko transakzio edo salerosketa kopuruaren areagotzera.

Espainiako Sustapen Ministerioak argitaraturiko datuen arabera -notario aurrean eskritura publikora altxaturiko etxebizitzen salerosketaren inguruko informazioa eskaintzen duen Higiezinaren Transakzio Estatistikatik abiatuta-, 2014. urtean % 51,0ko igoera nabarmena ezagutu du salerosketan hartu edo emaniko etxebizitzen kopuruak Bilbon, eta guztira 2.486 operazio burutu dira, kopuru hau bera nahikoa urrun egon arren oraindik ere 2007. urtean burutu zirenetatik, noiz 3.840 transakzio ere zenbatu ziren.

Etxebizitza librearen merkatuak bildu ditu 2014. urtean transakzio guztien % 87,5, eta urte arteko % 38,2ko hazkundea erakutsi du eragiketa kopuruak. Babesturiko etxebizitzen artean berriz, eragiketak 309 izan ziren, 2013. urtean baino 238 gehiago kopuru absolutuetan.

Etxebizitza eraiki berrien transakzioak ere modu esanguratsuak hazi ziren 2013. urtearen aldean (% 11,7). Bigarren eskuko etxebizitzen kasuan berriz, 1.995 eragiketa burutu ziren, aurreko urtean baino 582 gehiago (% 41,2).

Etxebizitza transakzioak

	2013	2014	% 2014/13
Etxebizitzak denera	1.646	2.486	51,0
Libreak	1.575	2.177	38,2
Babestuak	71	309	335,2
Eraiki berriak	233	491	110,7
Bigarren eskukoak	1.413	1.995	41,2

Iturria: Higiezinaren salerosketei buruzko estatistika, Sustapen Ministerioa.

Etxebizitza

Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

12

Higiezin eskaintza

Etxebizitza berria eta erabilitakoa

Etxebizitzen transakzioak

Etxebizitzen alokairua

Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

HIGIEZINEN ESKAINTZA

Etxebizitzak alokairuan

Bilbon etxebizitza baten batez besteko errenta 895,8 eurokoa da

Bilbon etxebizitza alokatzearen kostua 2014. urtean igo egin zen zertxobait aurreko urtearen aldean (% 0,20), eta hala, batez besteko errenta, 895,8 eurokoa da.

Lurraldeei begira, Bizkaiak erakusten du batez besteko errenta kosturik garestiena (861,0 €/hileko), eta EAEko hiru lurraldeetatik soilik honetan gertatu da urte arteko garestitzea, hala Arabak, zelan Gipuzkoak jaisten ikusi dituzte-eta alokatze errentak 2013ko urtearen aldean, % 1,95 eta % 0,38 hurrenez hurren.

Bilbo hiriko barrutietako datuak parekatuz sumatu liteke Errekalde eta Abandokoek urte artean errenten beherakada jasan dutela, % 6,58 eta % 3,38koa hurrenez hurren. Bestaldean berriz, Bolueta da igoerarik handiena erakutsi duena (% 5,59), eta ondoretik datozkio honi Deustu-San Inaziokoa (% 3,16ko igoera) eta Alde Zahar / Zazpikale-takoa (% 1,39).

Erregimen libreko etxebizitzaren alokairu errenta garestiena Abandoko barrutian aurkituko dugu, 1.009,3 €/hileko. Merkeena berriz, Boluetan, 802,7 €/hileko.

Erregimen libreko etxebizitzaren alokairua (€/hileko), kokagunearen arabera (2014ko 4. hiruilekoa)

	2013	2014	% 2014/13
EAE	825,4	844,7	2,34
Bizkaia	838,8	861,0	2,65
Araba	743,9	729,4	-1,95
Gipuzkoa	821,6	818,5	-0,38
Bilbo metropolitanoa	862,3	879,2	1,96
Bilbo	894,0	895,8	0,20
Deustu-San Inazio	860,7	887,9	3,16
Bolueta	760,2	802,7	5,59
Alde Zaharra	823,1	834,5	1,39
Abando	1.044,6	1.009,3	-3,38
Errekalde	886,9	828,5	-6,58
Uribarri	n.d.	803,1	d.b.
Basurtu	n.d.	827,4	d.b.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza. Higiezin eskaintzari buruzko inkesta, 2014.

* Etxebizitza kolektiboaren errenta datuak biltzen dira soilik.

(Datu barik Uribarri eta Basurtuko barrutietarako -ezta Otxarkoagarako 2014an- laginaren eskasagatik).

9 GARRAIOA ETA INGURUMENA

Bilboko
Urtekari **2014**
Sozioekonomikoa



Garraioa eta mugikortasuna

Hiri eta metropoli barruko garraioa

Aire garraioa

Itsas garraioa

Ingurumena

Jasangarritasunaren aldeko apustua

Hondakinen sorrera eta kudeaketa

Garraioa eta mugikortasuna	Ingurumena
Hiri eta metropoli barruko garraioa	Jasangarritasunaren aldeko apustua
Aire garraioa	Hondakinen sorrera eta kudeaketa
Itsas garraioa	

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Bilbon garraio publikoak mugitu dituen bidaiarien kopurua ia-ia bere horretan geratu da 2014an

Hiri eta metropoli barruko garraioa

Bizkaiko Garraio Partzuergoak argitaraturiko datuen arabera, 2014. urtean zehar, garraio publikoak Bilbon 116.251,4 mila bidaiari mugitu ditu, dela Metro Bilbaoz buruturiko bidaietan, dela Euskotranen bidez, edo Bilbobusen. Oro har % 0,15 puntuko igoera txikia erakusten du 2013aren aldean.

Metro Bilbao % 0,3an ugaritu du garraiatu duen bidaiari kopurua, eta horrek norabide aldaketa erakusten du aurreko bi urteetako beherakadaren ondoren. 2014an 87,4 milioi tiket balioztapen eragin zituen, zeinak zenbaki absolutuetan esan gura duen 264,4 mila bidaiari gehiago egin zirela aurreko urtearen aldean.

Bilboko hiri inguruko garraibide honek eskaini dituen datuen arabera, igoerarik nabariena azken lauhilekoan gertatu zen, bidaiarien % 3,25eko gehikuntza erakutsita, eta baita egun bakarreko erabiltzaileen errekor historikoa ere, hain justu abenduaren 21koan San Tomasetako feriaren ospakizunaren harian (386.225 bidaiari). Bidaiari gehien erabili zituzten geltokiak Indautxu eta Moyuakoa izan ziren (6 milioi bidaiariz goitik).

Bilbobusek ere, gure hiri barruko garraio kolektibo zerbitzuak, % 0,98 hazi zuen bere bidaiari kopurua 2013. urtearen aldean (252,9 mila erabiltzaile gehiago). Garraibide honen erabiltzaileen % 42,6 inguruk, behar kontuengatik egiten ditu bere bidaiak.

Autobus zerbitzuak 28 linea konbentzional ibiltzen ditu, eta beste 7 Auzolinea eta 8 Gautxori. 147 unitate ditu bere autobus flotan, eta guztira 513 geltoki zerbitzatzeko ditu Bilboko hirian zehar. Horrek esan gura du Bilboko populazio osoaren % 99,7k daukala autobus geltokia 300 metro baino hurreagoan.

Urria izan da bidaiari kopuru handiena ezagutu duen hilabetea (2.453.125), eta eguenak izan dira erabiltzaile gehieneko aste egunak. Astegunetako bidaiari kopurua batez beste 86.226koa izan da, eta 77 eta 56 lineek jarraitu dute lider izaten mugitutako bidaiari kopuruaren rankingean (2.046.151 eta 1.993.809, hurrenez hurren).

Euskotran, tranbia zerbitzua, izan da 2014. urtean balantze negatiboa erakutsi duen bakarra. Guztira 2.779,9 mila bidaiari burutu ditu, baina kopuru horrek urte arteko % 10,90eko beherakada erakusten du, batez beste 7.616,2 erabiltzailearen galera eguneko.

Hiri eta metropoli barruko garraioa

	2013	2014	%2014/13
Bidaiariak guztira (milakoak)	116.074,18	116.251,4	0,15
Metro Bilbao	87.133,03	87.397,4	0,30
EuskoTran	3.119,95	2.979,5	-4,50
Bilbobus	25.821,20	26.074,1	0,98

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

Garraioa eta mugikortasuna	Ingurumena
Hiri eta metropoli barruko garraioa	Jasangarritasunaren aldeko apustua
Aire garraioa	Hondakinen sorrera eta kudeaketa
Itsas garraioa	

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aire Garraioa

Bilboko aireportuak 4.015.352 bidaiari ezagutu ditu 2014. urtean zehar, eta honek batetik aire garraioaren urte arteko % 5,6ko hazkundera esan gura du (guztira 214.563 bidaiari gehiago), eta bestetik, berriro gainditu duela 4 milioi bidaiariren kopurua.

Urte osoko erregistro globalak nazioarteko trafikoaren bilakaera ona baieztatzen du, % 7,7ko haziera erakutsi duena 2014an. Horri erantsi behar Espainia barruko bidaiari kopuruaren hazkundera ere, 2014an % 3,3koa izan dena.

Edozelan, eta azken urteotan Espainiatiko trafikoaren garrantzi erlatiboa pixkanaka beherantz etorri den arren -2009an % 74 zena 2014an % 60ra igaro da-, merkatu sektore hau du oraindik ugariera Bilboko aireportuko bidaia komertzialetan (2,3 milioi 2014an).

2014. urtean barrena 42.950 hegaldi izan dira, eta horrek % 0,2ko jaitziera txikia erakusten du aurreko urtearen aldean (93 hegaldi gutxiago). Edozelan, hegaldi komertzialak guztien % 92,9 izan dira, eta % 1,7ko igoera erakutsi dute, hain zuzen nazioarteko trafiko hazkundera esker (% 5,8; 2013an baino 935 mugimendu gehiago), aldiz Espainia barruko bidaia jausi egin diren arren (-% 1,2; 264 hegaldi gutxiago).

Aurreko urtean bidaiari gehien mugitu dituzten aire konpainiak, Vueling, Air Europa eta Lufthansa izan dira, bakoitzak bidaiariren % 37, % 12 eta % 11 hurrenez hurren. Hiruren artean bereganatzen dute aireportuko urte osoko bidaiari emanaren erdia baino gehiago. Madril Barajaseko Adolfo Suarez aireportuak, eta Bartzelonako El Prat-ek, bideratzen dute bere aldetik bidaiari guztien trafikoaren % 28, eta beraiek dira jatorri edo/eta helburu aireportuen rankingean liderrak bidaiari kopuruan.

Aire garraioa

	2013	2014	% 2014/13
Bidaiariak (guztira)	3.800.789	4.015.352	5,6
Hegaldi komertzialak	3.791.287	3.974.818	4,8
Espainiako estatu barrukoak	2.304.220	2.376.910	3,3
Nazioartekoak	1.487.067	1.597.908	7,7
Hegaldiak (denera)	42.683	42.590	-0,2
Hegaldi komertzialak	38.913	39.584	1,7
Espainiako estatu barrukoak	22.722	22.458	-1,2
Nazioartekoak	16.191	17.126	5,8
Merkantziak (t)	2.544	2.861	12,4

Iturria: Aena.

% 5,6 hazi da bidaiari kopurua Bilboko aireportuan

Transporte y movilidad

- Hiri eta metropoli barruko garraioa
- Aire garraioa
- Itsas garraioa

Ingurumena

- Jasangarritasunaren aldeko apustua
- Hondakinen sorrera eta kudeaketa

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Itsas garraioa

Urteko % 3,12ko hazkundera, eta 31 milioi tona gairak dira Bilboko Portuak erakutsi dituen datuak 2014. urtearen amaieran, eta horrela baieztatzen du bere jarraieraren berreskurapena.

Merkantzien trafikoa bildu ditu eragiketa ia-ia guztiak (30,8 milioi tona, eta urte arteko % 4,13ko hazkundera). Bertako trafikoa eta hornidurazkoa berriz 187.016 tonara jausi da (% 60,26 gutxiago 2013ko urtearen aldean).

Ontziratutako likidoak izan dira (petrolio gordina, fuel olio eta gasa nagusiki) Portuko merkantzia trafikoen erdia baino gehiago eragin dutenak, eta guztira 16,3 milioi tona ere mugitu zituzte 2014an. Kopuru honek urte arteko % 3,70eko haziera erakusten du. Solido ontziratutako trafikoa berriz % 3,76 igo da bere aldetik, eta guztira 4,6 milioi tonako bolumena mugitu du.

Salgai orokorren mugimendua era hazi da, kasuan % 4,92, eta 9,9 milioi tona iritsi ditu. Emaiz honetan batera bilduak ageri dira, salgai orokor konbentzionalen mugimenduaren hazkundera batetik (% 6,12), eta bestetik edukiontzietan kudeaturikoa (% 4,34).


Esan behar azkenik, edukiontzien trafikoa ere % 3,96 hazi dela 2013. urtekoaren aldean, eta guztira 630.886 TEU unitate kudeatu direla.

Itsas garraioa

	2013	2014	% 2014/13
Portu trafikoa (t)	30.072.863	31.009.013	3,12
Merkantzia trafikoa	29.602.313	30.821.997	4,12
Ontziratutako isurkariak	15.761.451	16.351.157	3,70
Ontziratutako solidoak	4.421.584	4.587.730	3,76
Bestelako merkantzia	9.419.278	9.883.107	4,92
Edukiontzia	6.334.636	6.609.638	4,34
Konbentzionala	3.084.642	3.273.469	6,12
Hornidura trafikoa eta lokala	470.550	187.016	-60,26
Edukiontzia (TEUak)	606.827	630.886	3,96

Iturria: Estatuko Portuak ('Puertos del Estado').

Portuko trafikoa 31 milioi tona gairak zituen 2014an



INGURUMENA

Jasangarritasunaren apustua

Bilboko Udalak egina duen apustua, udalerrian jasangarritasuna eta ingurumena sustatzea-ren alde, 2011-2015 Gobernu Planean jasotzen da. Txosten honetan ildo horretako hainbat ardatz estrategiko erakusten dira, eta horien artean nabarmen 'Eraldaketa iraunkorarekin jarraitu' dioena. Eta hori lortzera dira bereziki bideratuak, beste hainbat egitasmoz gain, Klima-aldaketakarako bulegoa, eta Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana, edota hiriko uztai ber-dearen garapen aurrerapena, eta itsasadarraren indartzea, jarduera eta bizitza erdigune legez, "Bilboko Zubiak" proiektuaren bidez.

Era berean, hiriko udala ganoraz dabil beharrean etxebizitza jasangarrien eraikuntzan. Udal etxebizitzaren elkarte publikoak apustu argia egin du hazkunde jasangarriaren alde, hala giza alderditik, zein ingurumenekotik, eta ekonomikotik. Eta ingurumenarekiko kezka barneratu du bestelakoan eskaintzen dituen zerbitzu guztietan, eta kanpoko eragileekiko harremanetan ere. Eta ingurumenaren dimentsio honetan saiatzen da ere aurkitzen energia eraginkor-tasunezko neurriak, bai etxebizitza sustapen berrietan, zelan dagoeneko altxatuak diren eraikinetan ere, hauen birgaitze energetikoaren bila.

Gainera 2014. urtea izan da Bilboko hiriak Europako 2014ko Baso-Hiria izendapena jaso duen urtea European Forest Institute (EFI – Europako Basoetako Institutua) erakundearen eskuetatik, eta hala bihurtu da hiria erakunde honen Urteko Konferentziaren egoitza ere. Bere aitorten hau eskaintzeko, Europako Basoetako Institutuak kontuan hartu du Bilboko Udalak ingurune berdeak hobetzen burutu duen lana, eta baita hiri inguruko baso eta lan-darediak hiriko ehunean integratzen, hiri eredu trinkotua erakutsi nahian, hiriaren zabaltzea kontrolatuz inguruko natur espazioetan, eta hiri inguruan dugun balio handiko baso dentsi-tatea ere gordetzeko aukera eskainiz.

EFIren Urteko Konferentziaren egoitza izateak, eskaini dio ere Bilbori lankidetzat marko ba-teratua sustatzeko aukera basoen eragileen artean, hala publikoak zelan pribatuak izan, azkenean sektorea indartzeko guztien eskutik, eta ingurumenaren ikuspegi itxiegia bat ere gainditu guran, eta denak batera sustatu guran, giza ikuspegia, zein ekonomikoa, eta lan jardueren suspertzea ere.

Azpitarratu azkenik, Bilbo izan dela era berean Basque Ecodesign Meeting 2014 ekital-diaren egoitza (Euskal Ekodiseinuaren Bilkura 2014), jada nazioarteko gertaera bihurtua, sektoreko enpresa liderrak batzen dituen -eragile dinamizatzaile legez-, bai administrazio publikoarekin, Unibertsitatearekin, eta sektorean adituak diren banakoekin. Batzarrean be-reziki azaldu ziren Ekodiseinuaren inguruko araudi berriak, euskal enpresek lortutako ingu-rumen hobekuntzak, eta praktika onetako hainbat kasu erakusgarri, beste aplikazio eremu hainbatera ere eraman litezkeenak.

Hondakinen sorrera eta kudeaketa

Bilbon etxebizitzetako hondakinen batzeak 116.096 tonako bolumena hartu zuen 2014. urtean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Hondakinen Behatokiaren datuen arabera. Kopuru honek % 0,21eko jaitsiera erakusten du 2013. urtean bildutako bolumenaren aldean. Hala ere, murrizketa hori ez da gertatu etxeko hondakin sormen tasa per capita-n, ze hau urteko 335,8 kilotara igo dugu 2014. urtean.

Bilketa nahasia ere hazi egiten da zertxobait 2013. urtearen aldean (57 tona gehiago, % 0,06), eta bildutako etxeko hondakin guztien bolumenaren % 81,3 gertatu da. Bestalde, gaikako bilketa, 21.677 tonara jaitsi da, eta horrek urte arteko % 1,36ko jaitsiera esan gura du (298 tona gutxiago).

Etxeetako hondakinak ez dira % 0,21 baino murriztu

Hondakinen sorrera

	2013	2014	% 2014/13
Etxeetan sorturiko hondakinak (t)	116.337	116.096	-0,21
Bilketa nahasia	94.362	94.419	0,06
Gaikako bilketa	21.975	21.677	-1,36
Etxeetako hondakinak (kg./bizi./urte.)	333,0	335,8	0,84

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.